# Goienkaria

2010eko urtarrilaren 22a > Egubakoitza > X. urtea > 406. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net TOKIKOM

"Proiektuak bultzatu ditugun lekuetan hobetu egin dira bizi baldintzak"

**Mikel Gantxegi** Mundukideko zuzendaria > 07



**G2a** Aretxabaletako abesbatzaren 30 urteak DVDan > 31

**ARRASATE** Markulete industrialdea gertu dago enpresak hartzeko > 12

**BERGARA** Izendapen plaka jarriko diete Usondo parkeko zuhaitzei > 17

**OÑATI** Osasun etxe osteko parkinga berrantolatu egingo dute > 24

GIZARTERATZEA > GAZTEAK

# "Elgetan dauden gazteek ez dute zerikusirik Debakoekin"

**PROFIL EZBERDINA** Foru Aldundiak dio Elgetako adin txikikoek Debakoen "oso profil ezberdina" dutela

**ADIN TXIKIKOAK** Martxan dago Elgetan, Aixolan Foru Aldundiak egokitu duen harrera etxea; bederatzi gazte daude

**LASAITASUN MEZUA** Erostarbe alkatearen nahia da herritarrak lasai egotea; zalantzak argitzeko batzarra ere deitu dute > 02-03

AZPIEGITURAK > AHT

## Bergarako tarteak lizitatuta

AHTren Bergarako lotuneko hiru tarteak lizitatu berri ditu Sustapen Ministerioak > 05

**MIKEL GONZALEZ**
> REALEKO JOKALARIA

## "Bide erdia egin dugu, baina beste erdia geratzen da: 22 partidu"

Eguaztenean, danbor hots artean, Donostian egin zizkion adierazpenok Mikel Gonzalez Realeko jokalari arrasatearrak GOIENKARIAri.

Reala lider dago. Kategoriaz igotzeko bidean da talde txuri-urdina, baina Gonzalez zuhurra da: "Bide onean gaude, baina jokalariak behin eta berriro ari gara esaten oraindik asko geratzen dela". Hala ere, taldea "une gozoan" dagoela ere aitortzen du eta mailaz igotzea "poliki-poliki geroz eta gertuago" ikusten duela onartu du. > 28



**KONTXAN** Mikel Gonzalez, eguaztenean, Donostiako pasealeku ezagunean. XABIER URTZELAI

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-06
**Elkarrizketa** > 07
**Iritzia** > 08
**Gutunak** > 10
**Herriak** > 11-27
**Kirola** > 28-29
**Kultura** > 32
**Sailkatuak** > 34
**Gazteak** > 35
**Telebista-Irratia** > 36
**Zerbitzuak** > 36
**Berri-zakua** > 37
**Eskelak** > 37

ARRASATE > HIRIGINTZA

## Abaroa berria 518.000 euro gehiago kostako zaio Udalari

Arrasateko erretiratuendako egoitza izango den Abaroa berria hasierako aurrekontua baino %15 gehiago kostako da; 518.000 euro inguru gehiago, hain zuzen. Garestitzea izan da, batez ere, Amenabar enpresa eraikitzaileak instalazioetan izan zuen aurreikuspen faltagatik. Biark Estudiok, proiektuaren egileak, hasieratik jakinarazi zuen Amenabarren aurrekontuarekin ezinezkoa zela proiektua gauzatzea. Hala ere, Udalak esleitu egin zion obra. Arazo horiek obra atzeratzea eragin dute; uda aurretik eraikina funtzionamenduan izatea espero dute. > 13

JENDARTEA > OHITURAK

## Sagardo denboraldia hasi da

Arrasateko Txondorran asteon egin dute txotx; Aramaioko Iturrietan, bihar > 04

EKONOMIA > ENPLEGUA

## Gureak-eko kideak lorezain

Lorezain ikastaroa egiten dihardute Arrasaten, lan merkatuan aukera gehiago izateko > 06

# Bederatzi adin txikiko atzerritar daude Elgetako harrera etxean

**PROFILA** Haur eta Gazteria Zuzendaritzak azpimarratzen du "Deban egon zirenekin zerikusirik ez" dutela Elgetan bizi diren gazte atzerritarrek

**BATZARRA** Aldundiko eta Udaleko arduradunen nahia da herritarrak lasai egotea; euren zalantzak argitzeko, batzar irekia izango da arduradunekin otsailaren 3an


Gipuzkoako Foru Aldundiko adin txikikoen harrera-etxea Aixolan.

LEIRE KORTABARRIA > ELGETA

Bizilagun berriak daude Elgetan: Foru Aldundiaren zaintzapean dauden bederatzi adin txikiko atzerritar. Aixolan baserri bat birgaitu du Aldundiak, araztegi txiki antzeko bat ere egin du, eta Debagoienean Foru Aldundiak duen adin txikikoendako laugarren harrera etxe bihurtu da. Gazte horiek hasi dira euren hezkuntza programarekin: hizkuntza, matematika orokorra eta landa eta igeltserotza tailerrak egiten dituzte. Horrez gain, ingurunea eta bertako kultura ere ezagutuko dituzte apurka-apurka.

Bailarako lau etxeez gain, beste hainbat ditu Aldundiak Gipuzkoa osoan. Gehienak anonimotasunean bizi dira, euren presentzia igarri barik. Eta normalean hala izaten da. Baina salbuespenen bat egon da eta arazoak sortu izan dira –Deban, Endoian orain gutxira arte zabalik egon den etxea–. Hori dela eta, Foru Aldundiko Haur eta Gazteria zuzendari Joxi Insaustik argi utzi nahi du honakoa: "Elgetan dauden gazteek ez dute zerikusirik Endoian izan zirenekin; ez dira gazte berberak eta profil aldetik ere oso desberdinak dira. Hauek dituzten arazoak dira gure inguruko edozein gaztek izan ditzakeen arazoak, araudiak ondo ez hartzea. Euren sozializazio prozesua askoz errazagoa eta normalagoa izango da".

**Lehen fase baten, gazteok ez dira etxetik irtengo; gerora, irteera guztiak hezitzaileekin egingo dituzte**

**Hizkuntza, matematika eta tailerrak egiten dituzte, eta ingurua eta bertako kultura ezagutuko dituzte**

Hezkuntza programaren lehen fasean, "bizitza guztia etxean egiten dute. Irteera guztiak kontrolatuak izango dira eta hezitzaileekin egingo dituzte. Oraingoz, ez dira ikastetxera joango", gaineratzen du Joxi Insaustik.

Elgetarrek aukera izango dute zalantzak argitzeko Foru Aldundiko ordezkariekin, hemendik bi astera herri batzarra egingo baitute.

**KOORDINAZIO MAHAIA**

Erakundeen arteko elkarlana giltzarri izango da. Hala, beste neurri bat da mahai bat osatuko dutela. Aldundiaren asmoa da Elgetako, Eibarko eta Ermuko udal ordezkariek parte har dezatela; beste aldetik, Aldundiko teknikariak izango dira. Mahai horrek balioko du Aixolako etxearen funtzionamendua koordinatzeko, bai modu jarraian, bai inoiz arazorik sortzen denean irtenbide koordinatua emateko.

Oraingoz, Elgetako Udalarekin izapide administratiboak

**Oxel Erostarbe** > Elgetako alkatea

## "Herrian zabaldu diren zurrumurruak gezurra dira"

L.K. > ELGETA

**Elgetako alkateak nahi du herritarren zalantzak argituta gera daitezen otsailaren 3an Foru Aldundiarekin egongo den herri batzarrean.**

**Parte hartu ahal izan duzue harrera etxea zabaltzeko prozesuan?**

Diputazioaren eskumena da, Udalak ez du aukerarik zentro hori ipintzea debekatzeko. Diputazioari hasieratik esan genion segurtasuna ziurtatu behar zela, zerbitzua modu egokian eman gura genuela eta baserria berritzeko lanak zorrotz jarraituko genituela.

**Noiz jakin zenuten etxean dagoeneko lanean zebiltzala?**

Hainbat hedabidetan irakurri genuen zentroa urtea bukatzeko zegoela zabaldu zela. Obra bukaera-




GOIENKARIA

egiten dabil Foru Aldundia. Elgetako Udalak erabaki du etxea daraman enpresarendako –ardura Foru Aldundiarena da, baina azpikontratatu egiten du lana– zigor administratibo eskaera egitea, obra bukaera agiria ez zuelako aurkeztu etxea funtzionatzen hasi aurretik; Udala ere kexu da ez zitzaiolako jakinarazi etxea funtzionamenduan zegoela. Foru Aldundiak dio obrekin lotutako agiriak badabilela Udalari ematen, eta, dena dela, bizigarritasun baimena dagoeneko bazeukala. "Obrak bukatu dira; eskatuta daukagu obra bukaera baimena, eta hainbat dokumentu dagoeneko eman dizkiogu Elgetako Udalari. Tramite administratiboak dira", Joxi Insaustiren hitzetan.

Udalaren kezkak kontuan hartuta, Haur eta Gazteria zuzendariak konfiantza agertu du erakundeen arteko hartu-emana ona eta ulerkoia izango dela.

**BAILARAN, GIPUZKOARRAK**
Debagoienean dituen lau harrera etxeek, Aixolakoarekin, 34 adin txikikorendako lekua daukate; Aixolakoak hamar har ditzake, oraingoz, baina Diputazioa saiatuko da gutxiago edukitzen. Lekuen erdiak ume eta nerabe gipuzkoarrendako dira eta beste erdiak, atzerritarrendako. Horrez gain, gazteon profilak askotarikoak dira: arauak onartzen ez dituzten adin txikikoak zein bestelako arazoak jasan dituztenak. Gaur egun, 34 leku horietatik gehienak gazte gipuzkoarrek betetzen dituzte.

Aldundiaren ardurapean dauden gazteok 18 urte betetzen dituztenean, emantzipazio prozesuan sartzen dira. Gazte atzerritarrak Lortuz delako programan sartzen dira, eta tailerretan-eta praktikak egiten dituzte; gero, Lortuz programaren bidez ere, batzuek lanpostua lortzen dute. Besteek, normalean, ikasten jarraitzen dute, heziketa profesionala egiten dute edo badago unibertsitatean dagoen bateren bat ere. Foru Aldundiak jarraitzen du emantzipazio prozesua.

ko baimena emateko hainbat agiri aurkeztu behar zituen zentroa kudeatzen duen enpresak eta udaletxean ere hainbat hedabidetatik deika ari ziren. Egoera ikusita, gure teknikariak bidali genituen zentroa zabalik ote zegoen ikusteko; gure sorpresarako, adin txikikoak bertan zeudela jakin genuen.

Haserre deitu genuen Foru Aldundira. Argi esan genien obra bukaerako baimenik eman gabe horrela jokatu zutenez, enpresaren aurka zigor espedientea zabalduko genuela eta lehenago egin genuen moduan beste batzar bat egitea garrantzitsua zela herritarrei zentroaren gaineko informazio zuzena emateko. Erantzuna egokia izan da, herritarrei azalpenak egiteko batzarra otsailaren 3an egingo da eta aurkeztuko dituzte falta diren agiriak. Ez da gutxi Foru Aldundiak onartzea hobeto jokatu behar zutela; onartu behar da ez dela samurra gai hau kudeatzea eta askotan Aldundiak hainbat erabaki hartu behar dituela presaka.

**Zergatik zigor espedientea?**

Obra bat egiten duten herritarrekin Udalak berdin jokatu behar du. Enpresak bazekien agiri batzuk falta zituela baimena izateko. Badakigu baimenak badituela eta aurkeztuko dituela hurrengo egunetan. Ez dugu ulertu haren


GOIENKARIA

jarrera eta pentsatzen dugu egokia dela zigor espedientea zabaltzea.

**Udalak ze galdera edo kezka eramango ditu batzarrera?**

Udalak nahi duena da herritarrek, batez ere Aixolako auzotarrek, zalantzaren bat badute zer egin behar duten jakitea. Aspaldian zurrumurru asko dago herrian eta orain arte jakin ditugun guztiak gezurra dira. Kontu hau serioa da eta gezurrak soka motza du. Diputazioarena da zentro horren eskumen osoa eta pentsatzen dugu egokiena gauza hauek guztiak argitzeko Diputazioko teknikariak azalpenak ematera etortzea dela.






**JENDARTEA** > EKITALDIA

# Sagardotegi denboraldia hasi da gurean

Arrasateko Txondorra sagardotegiak martitzenean egin zuten irekiera ekitaldia

Aramaioko Iturrietan bihar hasiko dute denboraldia; 8.000 litro sagardo dituzte gertu

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE

Asko dira datozen asteetan urteko sagardoa probatzera Hernanira edo Astigarragara joango direnak. Baina ibarrean geratzeko aukera ere izango dute, Arrasateko Txondorra eta Aramaioko Iturrieta sagardotegiek gertu dute-eta sagardoa.

Arrasatearrek martitzenean zabaldu zituzten kupelak. Saizar sagardotegiko sagardoz betetako bi kupel eta txakolin bete kupel bat dituzte. Aramaioko txondorgile Basilio Ugartek eta Gose taldeko kideek egin zuten txotx sagardoarekin eta txakolinarekin. Herritar asko joan zen Txondorrara. Aurreskua dantzatu eta txalaparta doinuak entzun ondoren, Manex Agirre eta Andere Arriolabengoa bertsolariek saioa egin zuten. Edatekoarekin, jatekoa ere bai: txuletak eta bakailao tortillak ez ziren falta izan.

**ITURRIETAN, BIHAR...**

Aramaioko Iturrieta sagardotegikoek, berriz, bihar egingo dute irekiera festa: 19:30ean hasiko dute jaia, eta, giroa berotzeko, Gasteizko Trikitixa Eskolako kideek parte hartuko dute.

Iturrietako ugazabek 8.000 litro sagardo dituzte gertu bezeroen artean banatzeko. Denboraldiak Aste Santura arte iraungo duela esan digute.



Lagun asko batu ziren Txondorran martitzenean. ANDER MONEDERO

**... ETA PARTAITTIN, DOMEKAN**

Txakolinak hartuko dio lekukoa sagardoari domekan; izan ere, Angiozarko Partaitti auzoan jaiak ospatuko dituzte, eta Arrasateko Kataide txakolina dastatzeko aukera egongo da. 12:00etan meza egingo dute, eta animaliak eta ortuak bedeinkatu ondoren zabalduko dituzte botilak.

**TURISMOA**

## Bailarako informazioa Fiturren etzi arte

Besteak beste, eroan dute Ignaziotar Lurraldearen informazioa

**M.B.** > BERGARA

Fitur turismo azokak eguaztenean zabaldu zituen ateak, eta ehunka bisitari jasoko ditu domekara arte. 170 herrialdetako 11.000 enpresatako ordezkaritzak daude Madrilen; tartean Debagoienekoa. Gipuzkoako standean dago bailarako informazioa; besteak beste, Ignaziotar Lurraldearen eta Arrikrutzen gainekoa. Gaurtik, Debagoieneko Mankomunitateko Turismo teknikari Ana Heriz egongo da Gipuzkoko standean informazioa banatzen.

Bestalde, ICTE erakundeak iaz *Q* kalitatea eskuratu zutenei ikurrak banatu zizkien eguaztenean Santiago Bernabeu futbol zelaiko palkoan. Oñatiko Etxe-Aundi jatetxeko nagusi Marga Romariz ekitaldian egon zen.

Debagoieneko
**PROFESIONAL LIBERALAK**



**ABOKATUAK**

**BERNARDINO MAIZTEGI**
Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**JUAN ANTONIO SIERRA**
Bergara / Irizar 2
T: 943 76 03 35

**LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER**
Arrasate / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

**RAFAEL ARANBURU**
Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL**
Aretxabaleta / Basabe ind. f-0-10-pab.
T: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

**AHOLKULARITZAK**

**AIERDI AHOLKULARITZA**
Bergara / Artekale 1
T: 943 76 03 50

**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**
aretxabaleta / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

**ASEGI AHOLKULARIAK**
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

**TBG AHOLKULARITZA**
BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

**ZENBAKI AHOLKULARIAK**
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

**ARKITEKTO TEKNIKOAK**

**JESUS LASKURAIN PEREZ**
BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

**ETXE ADMINISTRAZIOAK**

**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**
ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

**PROKURADOREAK**

**JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA**
DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

**HONDAMENDIA** > LAGUNTZAK

# Haitira bidaltzeko ekarpen asko egin dituzte debagoiendarrek

Ibarreko banketxe eta aurrezki kutxa gehienetan kontuak zabalik dituzte laguntza emateko

Karitateko Mesedeetako Ahizpek laguntza batzeko kontu korrontea zabaldu dute BBVAn



Bergarako Euskadiko Kutxan Haitira bidaltzeko ekarpenak egiteko kontu korrontea zabalik dute. MIREIA BIKUÑA

**T. MADINA/M. BIKUÑA** > BERGARA
Mundu osoko laguntza heltzen hasi da Haitira, baita Debagoienekoa ere. Diru kantitate handiagoak edo txikiagoak, banketxeen edo aurrezki kutxen bidez, edo gobernuz kanpoko erakundeen bidez. Debagoiendar asko dira azken astean Haitin bizi duten egoera arintzeko euren ekarpena egin dutenak. "Antzerako hondamendiak egon direnean baino ekarpen gehiago jasotzen gabiltza", esan digute bailarako hainbat herritako banketxeetako eta aurrezki kutxetako arduradunek. GKEen kontu korronteak zabalik egongo dira datozen asteetan.

**ASKOTARIKO KANTITATEAK**
Euskadiko Kutxak, BBVAk, Banco Guipuzcoanok, Gipuzkoako Kutxak, Banco Santanderrek, La Caixak... Guztiek dituzte zabalik GKE ezberdinetako kontu korronteak. Oñatiko Euskadiko Kutxaren bulegoan esan digute 30 bat ekarpen jaso dituztela, eta 20 eta 1.000 euro artekoak izan direla.

Bestalde, Aretxabaletako Gipuzkoako Kutxan askotariko ekarpenak egin dituzte, eta gehienak 50 eta 100 euro artekoak izan dira. Bergarako BBVAn ekarpen gehienak 50 eurokoak direla diote arduradunek, nahiz eta 300 euroko ekarpenik ere egin duten.

Azkenik, Arrasateko La Caixakoek ekarpen berezia egiten dihardute: bezeroek Haitirako ematen duten 10 euroko, bulegoan bertan euro bat gehitzen dute.

Bestalde, Karitateko Mesedeetako Ahizpek kontu korronte bat zabaldu dute BBVAn Haitirako dirua batzeko. Interesatuek 01820915100201538479 zenbakian egin dezakete ekarpena.

ESANAK

**"Antzerako hondamendiak egon direnean baino ekarpen gehiago jasotzen gabiltza bulegoan"**

**Ibon Agirre** > Arrasateko La Caixa

**KOMISIORIK EZ**
Hondamendietarako bideratzen diren laguntzen ekarpenak egiterakoan, batzuek komisioak kobratzen dituztela entzun eta irakurri dugu Hainbat komunikabidetan. Legezkoa den jakiteko Arrasateko La Caixako bulegoko zuzendari Ibon Agirrerekin egon gara: "Komisioa kobratzea legezkoa da. Dena den, norberak nahi duen GKEk ekarpena egingo duen banketxean edo aurrezki kutxan kontua badu, ez digute komisiorik kobratu behar". Era berean, banketxean edo kutxan kontua duen edonori transferentzia egiteko orduan ez digutela komisiorik kobratu behar gaineratu digute.

Bergarako Kutxako bulegoan esan digute eurek GKEen kontu korronteetara bideratzen dutela dirua, eta ez dutela komisiorik kobratzen.

**AZPIEGITURAK** > AHT

# Lizitatu dituzte AHTren Bergarako lotuneko tarteak

Arrasate-Bergara, Elorrio-Elorrio eta Elorrio-Bergara zatietako 17 kilometroak egiteko sei milioi euroko aurrekontua onartu dute

**U. AGIRRE/M. BIKUÑA** > BERGARA
Espainiako Sustapen Ministerioak lizitatu ditu AHTren Bergarako lotuneko hiru tarteak: hain zuzen ere, Arrasate-Bergara, Elorrio-Elorrio eta Elorrio-Bergara.

Guztira, 17 kilometro batzen dituzte. Lanok egiteko sei milioi euroko aurrekontua onartu dute. Hurrengo pausoa hiru tarte horietako proiektuak idaztea izango da.

**HIRU ZATIAK**
Arrasate-Bergara zatiak 8,8 kilometro izango ditu eta Arrasateko, Bergarako eta Elorrioko lurrak zeharkatuko ditu. Tarte horretan bide bakarreko lau biaduktu eta bide bikoitzeko bat eraikiko dituzte. Gainera, bide bakarreko lau tunel eta bide bikoitzeko bat izango ditu. Zati horretako lizitazioak 2.850.000 euroko aurrekontua du.

Elorrio-Bergara tarteak, berriz, 4,4 kilometro ditu, eta 1.850.000 euroko aurrekontua. Bi biaduktu eta bide bakarreko bi tunel egingo dituzte.

Azkenik, zatirik laburrena Elorrio-Elorria tartea izango da, eta 3,7 kilometro izango ditu. Bost zubi eta bide bikoitzeko tunel bat egingo dituzte han. Lanok egiteko 1,3 milioi euro izango dituzte.

Espainiako Gobernuak eraikiko du Gasteiz eta Bilbo arteko tartea Adifen eskutik.

**MANIFESTAZIOA HENDAIAN**
Bestalde, AHT! Gelditu Elkarlanak eta Iparraldeko Ingurumenaren Defentsarako Elkarteen Batzordeak (CADE) antolatuta manifestazioa egingo dute bihar Hendaian 16:00etan. *AHTrik ez! Proiektu txikitzaileak gelditu!* lelopean egingo duten manifestazioaren helburua AHTak ingurumenari, jendarteari eta ekonomiari eragiten dizkien kalte larriak salatzea da. Gainera, 09:30ean, Hendaiako azoka zaharrean Euskal Herriko, Espainiako, Frantziako eta Italiako eskualde ezberdinetan AHT egitasmoen aurka borrokatzen diharduten hainbat talde elkartuko dira, euren arteko hartu emanak sendotzeko.

> EKONOMIA
### Eroski, banaketa sektoreko munduko enpresa onenen artean

Eroski banaketa sektoreko munduko enpresa onenen artean dago, *Deloittek Stores* aldizkariarekin egindako ikerketa baten arabera. Eroski Taldearekin batera, Mercadona, El Corte Ingles eta Inditex taldea daude lehen 100 enpresen artean. Ikerketaren arabera, Eroski Taldeak aurrera egin du iaztik. Orain 76. tokian dago eta iaz 90. tokian zegoen. Supermerkatuen zerrendan, aldiz, 25. tokian dago.

Zerrenda egiteko munduko 250 banaketa enpresa onenen salmentak, bilakaera eta 2010erako aurreikuspenak hartu dituzte kontuan. Wal-Mart enpresa dago lehen tokian.

> DEIALDIA
### Elkarretaratzea egin zuten Arrasaten, Elena Calen hilketa salatzeko

Domekan Tolosan hil zuten Elena Calen heriotza salatzeko elkarretaratzea egin zuten martitzenean Arrasaten. Herriko Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Plataformak deituta hainbat lagun bildu ziren *Emakumeei erasorik ez!* leloa zuen pankartaren atzean. Plataformako kideen ustez, guztion inplikazioa beharrezkoa da halakorik gerta ez dadin.

Domeka arratsaldean labankadaz hil zuten 45 urteko emakumea. Donostiako Ospitalera eroan zuten, eta ebakuntza gelan zendu zen. Hilketaren ondorioz bi gizonezko atxilotu zituen Ertzaintzak: emakumearen bikotekidea eta eurekin bizi zen gizona.

> ZERBITZUAK
### Oñati-Arantzazu autobusa ez dabil 13:30etik 17:30era

*Asteleheneko Goienkarian* esan genizuen Oñati-Arantzazu autobusak orduro ematen duela zerbitzua, baina informazio okerra da. Hauxe da ordutegi zuzena: Oñatitik 08:30ean, 09:30ean, 10:30ean, 11:30ean eta 12:30ean, 17:30ean eta, 18:30ean irteten da; eta, Arantzazutik 09:00etan, 10:00etan, 11:00etan, 12:00etan, 13:00etan, 14:00etan, 18:00etan eta 19:00etan. Bestalde, Oñati eta Arantzazu lotzen duen autobus zerbitzua ez dabil eguerditan. Hain zuzen ere, 13:30etik 17:30era ez da autobusik irteten Oñatitik, eta 14:00etatik 18:00etara ezta Arantzazutik ere.

Oñatiko Udalak emandako datuen arabera iaz 9.000 lagunek erabili zuten autobusa.



Monterron inguruko lorategia garbitzen topatu genituen astelehenean langileak. ANDER MONEDERO

**EKONOMIA** > ENPLEGUA

# Lorezaintzaren trikimailuak ikasten dabiltza zortzi lagun

Ikastaroa gertatu dute Gureakeko Goroldik eta Arrasateko Udalak; amaitzean, ezgaitasuna duten bi lagun aukeratuko dituzte urtebetez lan egiteko

**A.MONEDERO/M.BITERI** > ARRASATE

Gureak taldeko Goroldi lorezaintza enpresak eta Arrasateko Udalak adimen urritasuna edo gaixotasun mentalen bat duten zortzi lagunendako lorezaintza ikastaroa antolatu dute. Horren helburua bikoitza da: batetik, ezgaitasuna duten pertsonak lan merkatuan aukera gehiago izan dezaten prestatzea; eta bestetik, normaltasun osoz lan egin dezaketela erakustea.

Ikastaroa 270 ordukoa da; azaroaren 30ean hasi zen eta otsailaren 19ra arte iraungo du. Egubakoitzetan eskola teorikoak dituzte; lorezaintzarekin lotutako askotariko gaiak lantzen dituzte, hala nola erreminta bakoitzaren zeregina edo makineria zelan erabiltzen den ikastea. Gainerako egunetan, kalean ematen dute goiz guztia, 08:00etatik 14:00etara. Era guztietako lanak egiten dituzte han; tartean, loradegietako belarra moztu, hostoak jaso eta zaborra batu. Ikasleak pozik daude, esker oneko lana delako, eguraldi txarrarekin gogorragoa egiten dela onartu badute ere.

**MONTERRON ETA SANTA BARBARA**

Ikastaroa amaitzean, Goroldik bi langile aukeratuko ditu. Monterron eta Santa Barbarako parkeetako lorategiak urtebetez garbitzeko eta egokitzeko ardura izango dute bi lagun horiek.

etxeko leihotik



**Iban Arantzabal** > 'iarantzabal@goiena.com'

## Munillaren kontra ez, familietatik gertu

Egia esan, ni ez naiz nor Munillak zein postu bete behar duen argitzeko. Kristau ikasbidean hazia eskolan zein etxean, Arrasateko viatoristekin ikasia... baina ez, ez dut nire egiten Eliza. Kanpo ikusten dut nire burua. Hori horrela, badirudi elizanteei dagokiela gotzainaren hautaketaren gaineko erabakia. Horrela litzateke Eliza ez balego militarrak bezainbesteko hierarkizatu; edo gotzaina izendatuko balitz Alemanian, Austrian edo Suitzan moduan. Ez da kasua. Madrilek izendatu du Munilla eta kito. Hain zuzen ere, Nafarroan Fernando Sebastian izendatu zuten letxe: inperatiboz, bertako Elizari kontsulta egin barik.

**"Munilla gotzain izendatzeak familia apurtuak ekartzen dizkit gogora"**

Izendapenaz iritzirik ez, baina bai Munillek, biek, Debagoienean (ere) izan duten jardun ilunaz. Gogora datozkit familia apurtuak, horiek merezi dute gure begirunea, eta ez zaie laguntzen Gipuzkoako Elizak "baztertu" zituztenak gotzain izendatzen.

Gure herrietako alabak barrote barrura bultzatuta (beti neskak izatea ere bada ba!): belauniko egiten dituzte ordu pila bat belaunak zisko egin arte, beste neska ezagun batek lurrean egiten du lo, harri gainean. Badaude familia bakarra komentuko harresitik barrura dutela diotenak, amari ere kasu pitorik egin barik. Oso ordu gutxi lo eginda, gosea pasatzen, karitatetik lortzen dutena bakarrik jaten... Gotzainak horrela ereingo du fedea 2010ean?

**> Euskal Herrian erreportajerik ez. Katalunian: Txema Auzmendi, Koldo Rodrigez, Iñazio Arregi, Joxe Agirre, Javier Vitoria... Euskal elizanteak izendapenaz berbetan. Zeresana izan, eta esan egiten dute: libre, ezkutatu barik. *Catalunyareligio.cat.***

**> Jose Ignacio Munilla famatua zen lehen ere. Informazio bila jo dut eta *enticonfio.com* webguneko artikuluak irakurtzeak zer pentsatua sorrarazi dit. Gipuzkoa eta gipuzkoarrak hori baino aurreratuago daudelakoan nago, baita Gipuzkoako Eliza ere.**

## Fagorrek indukzio plaka berriak aurkeztu ditu New Yorken

AEBetan orain arte ezezaguna zen indukzio teknologia hango merkatura iritsi da, Fagor markako indukzio plaka berrien bidez. New Yorkeko Wired Store denda sofistikatu eta abangoardistan horien aurkezpena egin zuten abenduan, Marcus Samuelssonen eskutik. Sukaldari esanguratsua da Samuelsson, Barack Obamak Etxe Zurian egindako Estatuko lehen afaria gertatzeaz arduratu zen-eta.



MONDRAGON TALDEA

**EKONOMIA** > HITZARMENA

## Jaurlaritzak eta Mondragon Taldeak akordio berria dute

Bost alor landuko dituzte: komunikazioa, enpresa garapena eta berrikuntza, tartean

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Jaurlaritzako Industria Sailak eta Mondragon Taldeak lankidetza hitzarmena sinatu dute 2010-2013 aldirako. Akordio horren bidez, honako bost alorretan jardungo dute:informazioa eta komunikazioa, ekintzailetza, enpresa garapena, teknologia eta berrikuntza, eta nazioartekotzea.

Hitzarmenaren erreferentzia-esparruak 2008-2010 aldirako sinatutako aurreko hitzarmena eta Industria Sailaren jarduera plan berriak dira: 2010-2013 aldirako lehiakortasun plan berria, egun lantzen ari direna, eta zientzia eta teknologia plan berria, 2010. urtean zehar egingo dena.

**JARRAIPENA**

Hitzarmenaren jarraipena eta kontrola sinatzaileen ardura izango da; horretarako, osoko mahai bat eta jarraipen batzorde bat eratuko dituzte.

"Garapen iraunkor eta endogenorako ekimen komunitario eta kooperatibo produktiboak" bultzatzen ditu Mundukidek. Proiektuak garatzen diren lekuetako pertsonek edo elkarteek bultzatuak, hemengo esperientzia kooperatiboan oinarrituta. Gustura dago Mikel Gantxegi zuzendaria emaitzarekin, proiektuak bultzatu dituzten lekuetan "bizi baldintzak hobetu" egin direlako.

**Mikel Gantxegi** > Mundukide Fundazioko zuzendaria

# "Proiektuak bultzatu ditugun lekuetan bizi baldintzak hobetu egin dira"

**ENEKO AZKARATE** > ARRASATE

**Garapeneko kobernuz kanpoko erakundea da Mundukide Fundazioa. 1999an sortu zuten Mondragon taldeak eta Debagoieneko gobernuz kanpoko erakundeek (GKE). Hego Amerikan eta Afrikan bultzatzen dituzte proiektu kooperatiboak.**

**Zer da Mundukide?**

Fundazio bat da sortu zena 1999an, Mondragon taldeko kooperatiben eta ibarreko GKE herrikoien iniziatibaz. Mundukideren sorreran hiru ideia nagusi zeuden: Garapenerako GKE indartsu eta profesionalagoa sortzea, eragingkorragoak izatea eta jende gehiagorengana heltzea. Bere lana arlo produktibo eta ekonomikoan zentratuko zuen GGKE bat. Bi motibazio nagusi zeuden: munduko pobreenekin lan egitea eta kooperatiben esperientzia, baliabide eta eredua bultzatzea.

**Zuen webgunean irakur daiteke: "Garapen iraunkor eta endogenorako ekimen komunitario eta kooperatibo produktiboak". Azal ezazu zer esan nahi den.**

Garapena bultzatu nahi dugu ekimen produktiboetan, betiere ezaugarri konkretu batzuekin: izan behar dira proiektu kooperatiboak edo autogestioan oinarrituak; gainera, endogenoak izan behar dira. Hau da, proiektua garatuko den tokian tokiko pertsonek edo elkarteek bultzatuta izan behar dira; eta iraunkorrak izan behar dira, urte askotarako onuragarriak izan daitezen.

**Sorrerako helburuei heltzen diezue 10 urteren ostean?**

Bai, gure misioan argi geldi-tzen da Mundikideren sorrerako espiritu hori: lankidetzan jardutea, hegoaldeko herriekin, esperientzia, baliabide eta egiteko moduak konpartituz, lan mundu kooperatiboaren solidaritatea bultzatuz, bi aldeen garapen autogestionatu eta integrala sustatzeko eta, betiere, gure printzipio eta balioetan oinarrituz.

**Nortzuek osatzen duzue Mundukide?**

Batetik, ibarreko GKEk: Eskoriatzako Atxorrotx, Aretxabaletako Iruatx, Arrasateko Harreman, Oñatiko Banoiak, Antzuolako Anelkar eta Bergarako Fisc. Eta, bestetik, hainbat kooperatiba, gehienak Debagoienekoak baina baita kanpokoak ere: Orona, Irizar…



Mikel Gantxegi, Mundukideko zuzendaria, martitzenean Arrasaten, Goienako egoitzan. ENEKO AZKARATE

**Eta zelan finantzatzen da?**

Sorreran, kooperatibetako obra sozialetik etorri zen finantzazio nagusia eta horrela izan da orain dela gutxira arte; izan ere, azken hiruzpalau urtetik hona, erakunde publikoetako dirulaguntzak lortu ditugu eta gaur egun hortik datorkigu laguntza handiagoa kooperatibetatik baino. Edozelan ere, Mundukidek 10 urte egin baditu, izan da kooperatiben laguntzagatik.

**Ze ezberdintasun dago Mundukideren eta beste gobernuz kanpoko erakundeen artean?**

Mundukide bailarakoa da eta kooperatibek sortua, eta, ondorioz, lan estiloa ezberdina da, pertsonen izaera ere bai… Proiektu kooperatibo eta autogestionatuak bultzatzen ditugu. Izan ere, Mundukideren bidez esperientzia konkretu bat konpartitu nahi dugu, esperientzia kooperatiboa; horrek egiten gaitu desberdin.

HELBURUAK

**"Eraginkorragoak izan eta jende gehiagorengana heltzeko sortu zen Mundukide"**

10 URTE

**"Ibarreko GKEek eta Mondragon Taldeak sortu zuten Mundukide orain dela 10 urte"**

AFRIKAN ETA HEGO AMERIKETAN

**"Mozambiken, Ekuatore Ginean, Brasilen eta Kuban ditugu proiektuak"**

**Hamar urte hauetan, ze proiektu eta non bultzatu ditu Mundukidek?**

Une honetan bi lan ildo ditugu: batetik, Afrikako proiektuak, Mozambike eta Ekuatore Gineakoak. Garapena alde ekonomikotik eta produktibotik bultzatzen dugu. Hango errealitateak eskatzen digu lan handia egitea nekazaritzan, ortuak egiten lagundu, teknika berriak erakutsi, kreditu lineak zabaldu nekazariendako… Bestetik, azpiegitura-eraikinak egiten ditugu: ur depositauk, errepideak… Jarduera ekonomiko txikiak bultzatzen lagundu, oso oinarrizkoak: errotak… Bigarren lan ildo honetako proiektuak, batez ere, Hego Amerikan bultzatzen ditugu. Formazioari garrantzi handia ematen diogu, baina alde praktikoa ahaztu barik, enpresa kooperatiboen gestioa, e.a. Hauek, batez ere, Kuban eta Brasilen bultzatzen ditugu.

**Aurrera begira, ze proiektutan murgilduko zarete?**

Brasilen, Kuban, Ekuatore Ginean eta Mozambiken jarraituko dugu, dauzkagun proiektuekin eta berriak abiatuz. Gaur egun lauzpabost proiektu dauzkagu eta helburua da hurrengo urteetan beste horrenbeste martxan jartzea.

**Zelan aukeratzen dituzue proiektuak?**

Brasilen eta Kuban, kontuan izaten dugu ze talde, elkarte, komunitate edo herrik jaso dezakeen gure esperientzia kooperatiboa; hau da, zeinek aprobetxa dezakeen ondoen esperientzia hori, eta, bestalde, kontuan izaten dugu guri ere zeinek edo zerk egingo digun ekarpen handien. Afrikako herrialdeetan, beste motibazio batzuk bultzatzen gaituzte han egotera: gure laguntasuna eta baliabideak behartsuenei bideratzea.

**Zertan gauzatzen da laguntza hori?**

Batez ere, elkarlana da: proiektuak aukeratu, hangoekin elkartu, adostu ze lan mota egin nahi den eta horretan lagundu. Proiektu guztietan daukagu gure jendea, bakoitzean bat, bi edo hiru lagun. Bizpahiru urtez lankide boluntario moduan, baina soldata, aseguru eta guztiarekin. Hauek egiten dituzte formazio, koordinazio edo ikuskatzaile lanak eta, bestetik, zubi-lana ere bai, gure eta tokian tokiko proiektuetakoen artean.

**Mundukidek bete egin ditu sorrerako helburuak?**

Helburu guztiak ez dira bete; izan ere, munduan geroago eta txiro gehiago eta miseria handiagoa dago. Hala ere, proiektuak bultzatu ditugun lekuetan bizi baldintzak hobetu egin dira, lan egiteko era ezberdinak, autogestioan oinarrituak, bultzatu ditugu… Pozik gaude.

**Truke Programa da Mundukideren ekimenik ezagunenetakoa. Zer da?**

Beste herrialde batzuetatik hona etortzen dira dozena bat lagun hemengo esperientzia bertatik bertara ezagutu eta formazioa jasotzera, eta lau astez hemen egoten dira. Aurten, hiru hilabete-edo egongo dira eta formazioaren aldea indartu egingo dugu. Martxoan etorriko dira aurten. 20 bat eskari jasotzen ditugu eta hortik erdiak aukeratzen ditugu.



**zabalik**

Mikel Lezamiz

# Kooperatiben urtea

Nazio Batuek (ONU gazteleraz) 2012. urtea kooperatiben urtea izendatu dute. Ordua zen aitortzeko kooperatibek egiten duten ekarpena gizartea eta mundu hau hobetzeko. Deklarazio honen bitartez Nazio Batuek mundu guztiko gobernuei eskatu diete kooperatibei bultzada eman diezaieten, legeak egokituz, ikerketak eginez, zergak gutxituz eta kooperatiben arteko praktika onak abian jarriz.

Zer dela eta izendapen hau? Demostratuta dagoelako ikerketa ugarirekin kooperatibek hobeto jasaten eta gainditzen dituztela krisi ekonomikoak eta herri xumeen bizi baldintzak hobetzen dituztela mundu guztian. Neoliberalismoak ez dizkigu konpondu ko gure arazo laboralak eta gizarteko gabeziak, eta geuk, herritarrok konpondu beharko ditugu gure lana, osasuna, etorkizuneko pentsioak, ongizatea orokorrean.

**"Kooperatibek herri xumeen bizi baldintzak hobetzen dituzte"**

Eta gure inguruan zer? Ba al dakizu Euskadi dela, eta batez ere Gipuzkoa eta bere barnean Goiena, Europa guztitik aberastasuna hobeto hedatuta dagoen bailara, eskualdea eta herrialdea? Eta Eusko Jaurlaritzak aitortzen duenez, batez ere kooperatibei esker dela hori.

Nik ez dut esaten kooperatibak paradisu bat direnik eta dena ondo dagoenik, baina frogatzen ari gara ezagutzen dugun sistemarik onena dela gizartea garatzeko. Harro egon gintezke eta benetan integratuta bakoitzaren kooperatiban, mundu guztiarentzat mondragon kooperatiba taldea erreferente bat izaten ari delako lan munduan eta gizartearen onurarako.

Arazoak ez dira faltako eta konpondu egin behar ditugu, baina zerbait positiboa egiten ari garela ere onartu eta sinistu egin behar dugu eta guztiei adierazi.

Aporta dezagun bakoitzak gure iritziak, iradokizunak eta kritika eraikitzaileak kooperatiba, talde eta gizarte hobea egiteko.

**usteak uste**

Mirari Altube

# Baina zein da Sebastian hori?

Danbor hotsak entzun ditugu han eta hemen astean; baita gure herrietako ikastetxe gehienetan ere: *Sebastian bat bada zeruan…* Eta zein ote da, ba, Sebastian hori? Eta zergatik jo danborrak sukaldari jantzita? Auskalo! Baina zelako gustura ibili diren gure umeak danborrok astintzen… (Hori bai, eskolan! Etxean gogaikarri bihurtzen dira-eta). Bitartean gurasook argazkiak atera eta atera, eta bideokamerarekin grabatu eta grabatu. Baina Sebastian hori gure herrikoa ote da, ba? Auskalo! Gure umeak gustura dabiltzan bitartean…

**marrazkiz**

Alex Ugalde




**blog-top**

# Hogei urte barru %100 berriztagarriak... omen

Luis Aranberri 'Amatiño'
http://eibar.org/blogak/amatino

A plan to power 100 percent of the planet with renewables. Wind, water and solar technologies can provide 100 percent of the world's energy, eliminating all fossil fuels. Here's how". Holaxe dio amerikar irakasle biren proposamenak. Ez dator inondik ere Energiaren Nazioarteko Agentziaren iragarpenekin. Baina bost axola. Here's how. Hona hemen zelan.

*Scientific American Magazine* aldizkariak izenburu hau ekarri zuen, lerro handitan, 2009ko azaroko alearen azalean: *A plan for SUSTAINABLE FUTURE. How to get all energy from wind, water and solar power by 2030.* Besteak beste, Mark Z. Jacobson eta Mark A. Delucci irakasleek proposatutako plangintza.

(...)

Egitasmoak segurutzat jotzen du etorkizun iraunkorra lortzeko aukerabideak *haize, eguzki, geotermia, olatu eta urtegi energiak direla onenak, haizearen indarra, eguzki-argia, lurpeko beroa, itsas-uhinen indarra eta ur-jauziena guztiz erabilgarri direnez gero.* HUE (WWS) akronimoaz laburbiltzen dute, oinarrizko hiru elementuak: haizea, ura eta eguzkia.

Egileek diotenez *energia nuklearra, etanola eta karbonoa atzeman eta guztiko ikatza ez dirateke horren aukera onak, ezta petrolio eta gas naturala ere.* Eta ikerketak *aurkitu zuen bateria elektrikoez zein hidrogeno-pilez hornituko liratekeen ibilgailuek, HUE baliapideen laguntzaz, garraio-sektoreak sortarazi ohi duen kutsaduraren zati handia uxatuko luketela.*

Bi irakasleen proposamenak milioika haize-turbina, makina hidrauliko eta eguzki-instalazio indarrean jartzea eskatuko luke, eta inbertsio handiak egin beharra. Eta ez dator inondik ere bat Energiaren Nazioarteko Agentziak 2030erako iragarri duen energia-banaketarekin: %81 energia fosilak (%30 petrolioa, %29 ikatza eta %22 gasa), %14 berriztagarriak eta %5 nuklearra.

**koplak**

Andere Arriolabengoa

# Negu guztietako hitzordua

Aurreko asteko eguraldia
ez zen batere goxoa,
elurrak hartu zuen kolpetik
gure bailara osoa.

Goizez esnatu, kotxea hartu
abentura ederra zen,
ostirala zen ta zer arraio
berriro ohera zuzen.

Profen dabiltzan ikasle asko
daude gaur ahaztu barik,
2 ordu pasa karabanan ta
gero ez zegoen klaserik.

Batzuk jarri behar izan zuten
nahi ta ez mila enpeño,
Udalakoak plastikoekin
jeitsi ziren kaleraino.

Kitaniebesen lanak badauka
honetan hainbat garrantzi,
3 bat egun lehenago prest ta
gero ez ziren iritsi.

Alperrik gero egiten diren
mea kulpa, hausnarketa,
hurrengo baten ere berdina
pasatuko zaigu eta.

Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • E05 Basabe Poligonoa • 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak eta Goienka2a), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Oxel Arrieta, Imanol Soriano **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale • **Difusioa:** 19.724 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



## Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

**Eskaintza**
- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

**Berezitasunak**
- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

**Astelehenetan itxita**



## Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
943 53 32 72
*www.errekajatetxea.eu*

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

**Igande gauean eta astelehenetan itxita**



## Etxe-Aundi

Torre auzo 9 / OÑATI
943 78 19 56 *www.etxeaundi.com*

**Eskaintza**
- Ezkontzak
- Karta
- Asteburuetarako menu bereziak
- Eguneko menua
- Enpresentzako harrera gelak
- Aparkalekua

**Egunero zabalik**



## Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 33. / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55
*www.restaurantelasa.com*

**Eskaintza**
- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Eguneko menu bereziak asteartetik ostiralera.
- Kongresuetarako aretoa.
- Parking.

**Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria.**

# Jatetxe Gida





## Unzueta sagardotegia

Zabola z/g /ARAMAIO
945 44 50 95

**Eskaintza**
- Sagardoa txotxetik urte osoan
- Sagardotegiko menua
- Karta
- Eguneko menua
- Parking eta terraza
- 70 lagunendako tokia
- Bataio, jaunartzeak eta kintadak

**Egunero zabalik**



## Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

**Eguazten arratsaldeetan itxita**



## Zotz jatetxea

Zubillaga auzoa / OÑATI
943 78 35 45

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

**Berezitasunak**
- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

**Igandeetan itxita**

# Konpromiso unea, konpromiso urtea

**Amaia Agirre**
Arrasate

Hitz horiekin definitu genuen 2010. urtea, Bilboko kaleetan 44.000 lagun baino gehiago bildu gintuen manifestazioan. Euskal preso politikoen eskubideen defentsan norbanako zein eragile politiko eta sozialen konpromisoak definitu eta aktibatu behar diren urtea, atxikimenduetatik konpromisoetarainoko bidea eskuz esku eta elkarlanean burutu beharreko urtea. Espainiar zein frantziar estatuetako gobernuetako bulegoetan diseinatutako espetxe politikak bakoitzak bere inguruan salatzeko urtea.

Egoera oso larria da. Debagoienean dauden 35 preso politikoetatik bakarra dago Euskal Herrian. Beste guztiak dispertsaturik aurkitzen dira, etxetik ehunka kilometrotara. Ion Agirre, Iosu Uribetxeberria eta Jose Luis Elkoro gaixo larri daude. Jose Ignacio Gaztañaga, Luis Mari Azkargorta eta Ion Agirre bera zigorra beteta izan arren espetxean mantentzen dituzte, bahiturik. Hori gutxi ez eta orain senide eta lagunei miaketa umiliagarriak burutu nahi dizkiete aurrez aurreko bisitetara sartzeko, bisita eta komunikazio eskubidea larriki urratuz.

Neurri bereziak aplikatzen dizkieten kolektiboa da euskal preso politikoena, gatazka politikoaren izaera ukatu nahi duten arren, euskal errepresaliatuei eta beraien senideei aplikaturiko neurri bereziek agerian uzten dute hauen izaera politikoa.

Euskal Herriko eragile politiko bat izanik, urtarrilean borrokaldi bati hasiera eman zion kolektibo honek. Euskal Herrian zabaldu beharreko prozesu demokratikoari bultzada ematea eta espetxeetan dauden muturreko egoerak gainditzea dira aldarrikapen nagusiak. Gaixo larri dauden eta zigorra beteta duten presoen kaleratzea eta eskubide guztien jabe presoak Euskal Herriratzea, hain zuzen.

Borrokaldia urte guztian zehar luzatuko da eta era guztietako ekimenak burutuko dituzte; komunikazio grebak, enkarteladak, itxialdiak, barauladiak...

Kalean ere aspaldi gabiltza aldarrikapen hauen inguruan ekimenak antolatzen eta bide horretan lanean jarraitzeko asmoa dugu. Guk ere gure ekarpena egin nahi diogu presoen eskubideen zein beraien senideen eskubideen aldeko borrokari. Horrela, urtarrileko azken asteburuan baraualdi bat egingo dugu Arrasaten. Eta asteburua ekimen desberdinekin jantziko dugu.

Ekimen hauen artean deialdi berezia burutu nahi dugu urtarrilaren 31n arratsaldeko 6etan Arrasateko herriko plazatik hasiko den manifestaziorako. *Gaixo larriak eta zigorra beteta duten presoak etxera! Eskubide guztien jabe Euskal Presoak Euskal Herrira!* lelopean.

Eskualdeko eragile politiko, sindikal, sozial eta herritarrak sarri azaldu gara eskubide alde, eta bide horretan konpromisoak biderkatzeko deia luzatu nahi dugu. Presoen egoera larria gainditu behar delako, presoen senideen  eskubideak aldarrikatu nahi ditugulako, senideek jasaten dituzten eraso zein legez kanporatze hotsen aurrean babesa eskaini nahi diegulako, guk gure aletxoa jarriko dugu. Lerro hauen bidez eskualdeko herritarroi ere deia luzatu nahi dizuegu ekimen hauetan parte har dezazuen. Urtea konpromisoak hartuz has dezagun!

# AEDtik, bazkide eta euskaltzaleoi

**Eñaut Muxika Olasagasti**
(AEDko Zuzendaritza batzordearen izenean)
Arrasate

Urte  bukaera aurreko hamabi hilabeteetan egindakoari begiratu bat emateko garaia izaten da. AEDko Zuzendaritza batzordean ere horretan ibili gara eta elkarteko bazkide guztiekin konpartitu nahi dugu orain. Horra hor, bada: Euskararen kale erabileraren neurketa; Euskarazko film laburren emanaldia; Arrasate literatur lehiaketak; Irakurri, gozatu eta oparitu kanpaina; San Andreseko kantu tailerra; 25. urteurreneko diskoa; Herri Urrats eta Nafarroa Oinezerako autobusak; Denok elkarrekin jaialdia; bertso jaialdiak; Dragoi jana; jaietan euskaraz egiteko pegatina; skate festa; guraso erdaldunentzako hitzaldiak San Andresen; auzoko historiari buruzko hitzaldia San Andresen; Jokin Zaitegi itzulpen beka eta liburu aurkezpena; osasunari buruzko hitzaldi zikloa; urteurreneko diskoaren jaia Gaztetxean; San Andres eguneko jaia; Euskararen eguneko pegatinak eta piruletak; Debaguneko egutegia; *Geurean,* Fagor etxetresnetako hilabetekaria; Arrasaten euskararen erabilera baldintzatzen duten faktoreei buruzko ikerketa kualitatiboa; ATEA bazkideen berripapera; Seaskako materialaren salmenta eta banaketa; Zahar berri mintzapraktika egitasmoa; merkataritza euskalduntzeko lantaldea; Topaguneren ekintzen zabalkundea…

Partaide izan gara, gainera, Goienako organoetan, Topaguneren lantaldeetan, Korrika batzordean, Udalaren Integrazio plana egiteko prozesuan, Biteri plazari buruzko herri kontsultan eta Iraunkortasun planean.

Seguru gaude gehiago egin daitekeela. Zuen proposamenak jasotzeko zabalik gaituzue.

# 65. artikulu 'ahaltsuak' dioena aldatzeko eskaria

**Jesus Markaide**
Arrasate

Ondoren aipatzen denagatik, ondorioztatu dezakegu, Arrasateko erdigunean bizi garenok, orain dela gutxira arte, txerri koadrila bat ginela, bainugelan txerriak genituela eta sukaldean galdategi griseko diskobalaztak galdatzen genituela edo Ederlanerako nodulatu. Peri delakoaren 65. artikuluak bat-batean amaitu zuen osasunaren kalterako diren jarduera hauekin eta debekatu egin zituen nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak zein industriakoak. Baina legegilea urrunegi joan zen eta, behin horretan, garajeen erabilera ere debekatu egin zuen, nahiz eta inork ez duen ikusi inoiz Manolo hirugarrenekoa, bere *errezortziarekin* logelaraino igotzen. Horrela daude gauzak…

Kontua da bizilagun batek eskatu zuela garaje bat egitea sei autorendako, hutsik zegoen etxabe batean eta baimena eman zioten horretarako, baina proiektua aurkeztera joan zenean (kilo eta erdi ordainduta), Arrasateko Udaleko teknikoek irakurri zioten 65. artikulua eta esan zioten dena ondo zegoela (pasabideen araudia, segurtasunekoa, altuerena, aireztapenena e.a.), aipatu artikulu hori izan ezik, baina di-da batean aldatuko zutela eta kito!

Lau urte beteko dira laster. Arrasateko erdigunean aparkalekuen arazoa handitzen doa eta erabilera komertzialeko gero eta lokal gutxiago dago, hein batean, Peri-aren artikulu horrengatik. Baina Udalean ez dute astirik hartzen artikulu goren hori aldatzeko. Horregatik, proposatzen dut hurrengo aipatzen dudana onartzea otsaileko Osoko Bilkuran:

"Bertan behera geratzen da aparkaleku-garajeen erabilera debekatzen duen araua, Arrasateko Alde Zaharra eta Errebalak Birgaitzeko Plan Bereziaren arautegiko 65. artikuluan jasotzen dena. Eta, hala, lortuko dute kentzea 20 auto kaletik. Hogei gutxiago, aizue… Eta domina lepora! Begirunez.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33**
**20570 BERGARA**
**Telefonoa:** **943 25 05 05**
**Faxa:** **943 25 05 12**
**Posta elektronikoa:** **goienkaria@goiena.com**

Iñaki Etxezarraga 'Etxe'

**ILUNPEAN**
Martitzenean, urtarrilaren 26an, 22:15ean.
Eguaztenean, urtarrilaren 27an, 15:10ean.

**Jon Berezibarrek aurkeztuta**



Goitb Goiena Telebista
*Ikustekoa!*

# Herriak

**Arrasate** > 12-15 **Bergara** > 16-19 **Aretxabaleta** > 20-21 **Eskoriatza** > 22-23
**Oñati** > 24 **Antzuola** > 25 **Elgeta** > 26 **Aramaio** > 27 **Gatzaga** > 27



**> ARRASATE**
Markuleteko industrialdeko 23 pabiloi, salgai jartzeko gertu **> 12**



**> BERGARA**
Usondo parkeko zuhaitzei izendapen plaka ipiniko diete **> 17**



**> ARETXABALETA**
Aratusteetako herri bazkarirako txartelak, astelehenean **> 21**



**> ARAMAIO**
'Euskararen gida' aurkezten du Manex Agirre teknikariak **> 27**



Ume eta gurasoendako irteera batzuk antolatzen ditu urtero Gurel elkarteak; argazkian, Urkiolara egindako bat. GUREL

**LEINTZ GATZAGA** > HEZKUNTZA

# Zuzendaritza berrituta, hasi da Gurel aurtengo aisialdia antolatzen

**UMEEN AISIALDIA**
Gatzagako umeen aisialdi premiak asetzeko jaio zen Gurel guraso elkartea

**ASMOAK**
Aratusteetarako eta sanjuanetarako ekintzak antolatuko dituzte hurrengo

**LEIRE KORTABARRIA** > LEINTZ GATZAGA

Gatzagako gurasoen elkarteak, Gurelek, berritasunekin hasi du urtea; izan ere, joan den astelehenean egin zuen zuzendaritza berritzeko batzarra, eta urterako asmoak definitzen hasi ziren.

Hala, dagoeneko Aratuste jaiei begira ipini dira Gureleko kideak; joko batzuk antolatu gura dituzte, eta horiek zehazten hasteko berriz batuko dira datorren astelehenean. Bestalde, San Juan bezperarako ere zerbait antolatu gura dute aurten ere. Orain dela bi urte hasi ziren ekintza bereziak antolatzen: orduan, denok sorgin jantzi ziren. "Aurten ere horrelako zerbait egingo dugu", orain arte Gureleko idazkari izan den Aitziber Gorosabelen hitzetan.

Gorosabelek eta Nerea Maruri utzi egin diote zuzendaritzako kide izateari, eta Angel Gartzia eta Alberto Oñate sartu dira. Dorleta Elkorobarrutiak eta Bea Alvarezek jarraitu egiten dute.

**EKINTZA FINKOAK URTEAN ZEHAR**

Gurel elkarteak 20 bat familia batzen ditu. 14 urte arteko ume eta gaztetxoendako aisialdia antolatzeko jaio zen elkartea orain dela 14 urte: "Orduan, Udalak kudeatzen zuen ludoteka, baina beste zerbait egin gura genuen gurasook. Txatxilipurdi elkartearekin harremanetan ipini ginen eta eurek animatu gintuzten gu hastera aisialdia antolatzen", gogoratzen du Rosa Urreta Gureleko kide izandakoak. Esparrua zabaltzen joan da Gurel, eta ekintza asko antolatzen ditu: udazken eta neguko irteerak, udalekuak, Aratusteetako herri afaria, Gabonetako ekintzak… eta ludoteka erreferente bihurtu da umeendako. Udalekuak ere azpimarratzeko modukoak dira: "Luxuzko udalekuak dira; 20 umerekin bi begirale izaten dira, eta denek diote oso ondo antolatuta daudela", esaten du Rosa Urretak.

HISTORIA PIXKA BAT

## Gurasoak txandaka umeak eramateko

Hasierako hutsuneak borondatea baliatuz estaltzen zituzten Gurelekoek: "Gaur egun badaude autobus batzuk Gatzagan, baina lehen ez zegoen bat bera ere, eta irteerak egiteko gurasook txandakatzen ginen denok autoetan joateko", gogoratzen du sorrerako kideetako batek, Rosa Urretak. Orain autobusez ibiltzen dira, eta beste hamaika ekintza egiten dituzte. Horretarako finantzaketa lortzen dute bazkide kuotatik -"sinbolikoa", kideen esanetan-, ludoteka zerbitzuaren kuotatik, Udalaren dirulaguntzatik eta euren ekintza batzuetatik, hala nola Olentzero-batzea.

ESANAK

"Gurelen udalekuak luxuzkoak dira: 20 umerekin bi begirale daude, eta denek diote oso ondo antolatuta daudela"

**Rosa Urreta** > Gurasoa

**EKONOMIA** > INDUSTRIA

# Maizter berriak hartzeko gertu dago Markulete industrialdea

Markuleten egin dituzten azkeneko obrekin 25 pabiloi egokitu dituzte; orain, 23 merkaturatuko dituzte, gainerako biak okupatuta daude-eta



Ikutixo baserriaren pareko gunea da Markuleteko industrialdeak hartu duena; kolore zuria da nagusi pabiloietan. U.M.

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Lanik handienak bukatuta, erremateak eta burokrazia kontuak egiten dabiltza Markuleteko industrialdearen bigarren zati guztia amaitzeko.

12.500 metro koadro eraiki dituzte bigarren fase horretan, pabiloi eran. Orain, beraz, 25 halako daude: lehenagotik zeuden bi (Baikor eta Eikide enpresenak) eta orain egokitu dituzten beste 23 pabiloi.

**PABILOIEN EZAUGARRIAK**

Pabiloien ezaugarriei dagokienez, industrialdearen sarreran dagoen eraikina bulegoetarakoa da. Horrez gainera, jatetxe baterako lekua egokitu dute bertan, eta baita bestelako lokal bat ere: "Jatetxearen ondoan egonda, erabil daiteke erakusketetarako, hornikuntza industrialerako edo antzekoetarako", azaldu du Fernando Narcisok, industrialdearen gerenteak.

Hortik aurrerako pabiloiak bi zatitan daude banatuta: beheko solairuak egokiagoak dira industria pisutsuetarako edo makina pisutsuak erabiltzen dituzten jarduera industrialetarako; goiko solairukoak, berriz, lan arinagoetarako.

**"EZ DA ESPEKULATUKO"**

Banaketa horrek eragina dauka pabiloien prezioetan, beheko solairuetako pabiloiak goikoak baino garestiagoak dira-eta.

Edozelan ere, eta prezioei orokorrean begiratuta, Markuleteko industrialdearekin ez dutela espekulatuko azpimarratu du Fernando Narcisok: "Enpresariari kostaprezioa ziurtatzen zaio, ez dago espekulaziorik. Hori bai, kontuan hartu behar da inguruko orografiaren eraginez hemengo kostaprezioak Gasteizkoak baino handiagoak direla", dio Narcisok. Edozelan ere, "prezioak konpetitiboak eta egokiak dira; Debagoieneko Industrialdeak ez du ezer oparitzen, baina irabazi ere ez du ezer irabazten", gaineratu du.

Kopururik, baina, ez dute aurreratu, zaila da-eta hori egitea: "Legez pabiloiak garajeekin saldu behar ditugu, eta garaje kopuruaren arabera pabiloiaren prezioa aldatu egingo da", azaldu du gerenteak.

**EROSI EDO ERRENTAN HARTU**

Bestalde, diru kontuekin lotuta, Markuleteko industrialdeak duen ezaugarri garrantzitsuenetako bat da (batez ere krisi egoeran) pabiloiak erosi egin daitezkeela zuzenean, edo errentan hartu, erosteko eskubidearekin: "Bederatzi urterako kontratuak egin ahal izango dira, adibidez, hileko kuotekin; eta urte horien ostean, pabiloiaren jabe izango da errentan egon den enpresa. Gainera, egoera okertzen bazaio, kontratu hori eten egin daiteke eta amortizatutako kapitala (interesak ez) berreskuratu egingo luke", jakinarazi dute.

**PUBLIZITATE KANPAINA**

Hori bai, oraindik ez dira hasi pabiloiak saltzen. Obrak bukatuta, otsail-martxoan bultzatuko dute pabiloi horiek merkaturatzeko prozesua Debagoienean, eta asmoa da uda aurretik hartzea aurreneko bizilagunak. "Dagoeneko hiruzpalau eskaera ditugu, eta pentsatzen dugu bat edo bat gauzatu egingo dela. Orokorrean, gehienek ezagutzen dute industrialdea, baina badaude asko azkeneko baldintzen zain daudenak. Edozelan ere, publizitate kanpaina egin barik hiruzpalau eskaera baldin baditugu, espero dugu kanpainaren ostean eskaera kopurua igo egingo dela".

ENPRESA-GUNE GARRANTZITSUA

## Arrasateko hirilurraren erdia industriaguneek hartzen dute

Markuleteko industrialdearekin, Garagartzara arteko guneak erabateko izaera industriala edo enpresarioa hartuko du etorkizunean. "Kokagune ideala dauka Markuletek: Garaia Berrikuntza Gunearen parean dago, eta hori garrantzitsua da, inguru handia sortzen delako industri izaera duena. Gainera, Olandixoko tunela zabaltzen dutenean, automobilez joan eta etortzeko bide egokia ere izango du", azpimarratu gura izan du Fernando Narcisok.

Bestalde, Markuletez gainera, aipagarria da Arrasatek guztira duen industriagune kopurua, handia da-eta: Arrasateko hiri-lurraren erdia hartzen du. Guneka begiratuta, honako hauek dira kokalekuak: Garagartza, Markulete, Garaia, San Andres, San Josepe, Meatzerreka, Zigorrola eta Kataide. Gune horien barruan, jakina, hainbat esparru daude sartuta; hori bai, izaera publikoa duen industrialde bakarra Markulete bera da.

kukkur OKINDEGIA
Urte berriarekin
ORDUTEGI BERRIA
Astelehenetik ostiralera
• 07:15etik 14:30 arte
• 17:00etatik 19:45 arte
Zapatu eta domekan
• 08:00etatik 13:00etara
Urte zoriontsua opa dizuegu!
DELICATESSEN • URDAITEGIA • PASTELAK
EGUNEKO MASA FRESKOAREKIN PRESTATURIKO OGI GOXOA
Lapurdi kalea 7-9 • Tel.: 943 79 69 93
j.ayani@telefonica.net

Monte taberna
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

BASATI TABERNA
943 711768

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

**OBRAK** > ETXALUZE ERAIKINA

# Abaroa berria egitea 518.000 euro gehiago kostako zaio Udalari

## Eraikineko instalazioetan enpresa eraikitzaileak izandako aurreikuspen faltak eragin du igoera

## Proiektua egin duen Biark Estudiok dio oraindik eurek aurkezturiko aurrekontuaren azpitik daudela

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Abaroa berria eta San Andresko auzo alkatetza egongo diren Etxaluze eraikinaren obrak ez doaz aurreikusitako moduan. Udalak Amenabar enpresa eraikitzaileari esleitu zion erretiratuendako egoitza berria egitea, 3.419.000 euro pasatxoko aurrekontuarekin. Udalak 16 hilabete eman zizkon Amenabarri Biark Estudio arkitektura enpresaren proiektu berritzailea Etxaluze baserria zegoen orubean eraikitzeko. Amenabarrek 2010eko martxorako lanak amaitzeko moduan egongo zela adierazi zuen.

Azkenean, baina, gutxienez bi hilabeteko atzerapena –Udalak espero du uda aurretik eraikina funtzionamenduan izatea– eta aurrekontuaren %15eko igoera izan da proiektuan.

**ZULO NAGUSIA, INSTALAZIOETAN**

Abaroa berria izan zen asteleheneko osoko bilkura berezian hauts gehien harrotu zituen gaia. Udal talde bakoitzak iritzia eman zuen, baina izan zen ondorio komunik: adibidez, hutsetik hasten diren obrak esleitzeko orduan enpresa eraikitzailea eta aurkezten diren aurrekontuak sakonago aztertzea.

Etxaluze eraikinean gertatu den aurrekontuaren desbiderakatari dagokionez, Patxi Arburua Obra Saileko arduradunak adierazi du garestitzearen zati handiena eraikinaren instalazioetan izan dela, batez ere tenperatura erregulatzeko sistema berezian. Izan ere, klimatizazio geotermikoa izango du Etxaluzek: hozberoa zoruan oinarritzen duen sistema, hain zuzen.


Etxaluze eraikina, asteon egindako argazkian. J.B.

**ARKITEKTOEK, EZINEZKOTZAT JO**

Biark Estudio arkitektura enpresak jakinarazi du Udalari esan ziola Amenabarrek emandako aurrekontuarekin ezinezkoa zela eurek diseinatutako eraikina egitea; Biark-ek 4.300.000 eurotan zehaztu zuen aurrekontua. Prezio horri erreparatuz gero, 518.000 euroko igoera eta guzti, merkeagoa da.

> AISIALDIA

### Jai berezia gaur Okendon, zazpigarren urteurrena dela-eta

Txatxilipurdik gaurko ere egin du hitzordua. Oraingoan, Okendoko ludotekaren txanda da, eta badago ospakizunerako arrazoia. Izan ere, 7 urte bete ditu aurten ludotekak. Nagusienendako Mihiluze txapelketa prestatu dute eta txikienek eskulanak egingo dituzte. Gainera, ikuskizun bat, aurpegi margotzea eta merienda handia ere izango dute gaur Okendon. Festak hiru ordu iraungo du, 17:00etatik 20:00etara.

> KATUEN KOLONIAK

### Kaonbiko bazkideek 20 euro ordaindu beharko dituzte aurten

Arrasateko katuen kolonien kontrolaz eta babesaz arduratzen den Kaonbi elkarteak bazkideei jakinarazi gura die 2010eko kuota ordaindu behar dutela. Aurten 20 euro ordaindu beharko dira eta ordainketa honako kontu korrontean egin beharko da: 3035 0001 51 0010115424. Bestalde, kaleko katuen gaineko edozein abisu emateko telefonoa aldatu egin dute. Telefono berria 696 28 70 59 da.



JAIAK

# San Baleixo jaiak Meatzerreka auzoan

Datorren aste bukaeran ospatuko dituzte jaiak: hilaren 29an, 30ean eta 31n

A.E. > ARRASATE

Meatzerreka auzoan San Baleixo jaiak ospatuko dituzte datorren aste bukaeran. Hain zuzen, egubakoitzerako, zapaturako eta domekarako prestatu dute egitaraua.

Hilaren 29an, egubakoitza, 20:00etan hasiko dituzte jaiak, eta ondoren auzo-afaria egingo dute dantza saioarekin.

Zapatuan: 16:00etan, umeendako jolasak; ondoren, Gorritiren animaliak eta txokolate-jana; eta 22:30ean, Manu Iztueta eta Jose Gardokiren erromeria. Domekan: meza eta Lore Gazteak dantza taldearen emanaldia.

**MUS TXAPELKETA**

Zapatuan, 17:00etan, 29. mus txapelketa jokatuko dute. Meatzerrekako elkartean eman behar da izena, txapelketa hasi baino ordu erdi lehenago. Bikote bakoitzak izena ematerakoan 25 euro ordaindu beharko ditu. Esan behar da txapelketa zortzi erregetara jokatuko dela. Amaieran sari bikainak egongo dira.



Arizona Baby hirukoteko mutilak. GOIENKARIA

**MUSIKA** > KONTZERTUA

# Arizona Baby taldearen rock akustikoa Amaian

Amaia antzokiko 'hall'-ean izango da kontzertua gaur, egubakoitza, 20:00etan hasita

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Izenagatik bestelakoa dirudien arren, Arizona Babyko mutilek rock akustikoa egiten dute. Eta ez edonolakoa, gainera. Indar izugarria duen musika egiten du Valladolideko hirukoteak. Javier Vielva, Ruben Marron eta Marcos Ubedak osatzen dute Arizona Baby taldea. Gitarra akustikoa eta perkusioa bakarrik erabiltzen dute Valladolideko musikariek.

**BIGARREN DISKOA**

Hirukote gaztelarrak *Second to none* lana aurkeztuko du Amaian. Esan bezala, kontzertua 20:00etan hasiko da eta sarrera bost euro kostako da.

**ZAZPI URTE MUSIKAN**

Vielva, Marron eta Ubeda 2003an hasi ziren musikan. 2005ean aurkeztu zuten lehenengo diskoa: *Song to sing along*. Bigarren diskoa, ostera, gaur aurkeztuko dutena da. Hain zuzen ere, Paco Locoren zuzendaritzapean grabatu dute diskoa Puerto de Santa Marian.

> ZINEA

## Mira Nair zuzendariaren 'Amelia', Earhart pilotuaren gaineko filma

Hilaren 23an eta 25ean, zapatua eta astelehena, *Amelia* filma emango dute. Zapatuan 19:30ean eta astelehenean 20:30ean. Amelia Earhart pilotuaren bizitzan oinarritutako filma da.

Zapatuan, 17:00etan, *Dos canguros muy maduros* haurrendako komedia emango dute; eta eguenean Carlos Sorinen *La ventana*.

> MUSIKA

## Doinu elektronikoen jaialdia eta beste, 3 aretoko eskaintza

Bihar, zapatua, doinu elektronikoen jaialdia egingo dute 3 aretoan, 00:00etan hasita. Sei DJ ibiliko dira gaua girotzen, tartean Arrasatekoak eta Aretxabaletakoak. Sarrera 5 euro da.

Eta domekan, 21:00etan hasita, The Casualties eta BC Bombs taldeek joko dute. Sarrera: aurrez 10 euro eta leihatilan, 12 euro.

> MUSIKA

## El Desvan del Macho taldea Gure Leku tabernan zapatuan

El Desvan del Macho talde arrasatearrak Gure Leku tabernan emango du kontzertua hilaren 23an, zapatuan. 23:00etan hasiko da. Bi musikarik bakarrik osatzen dute El Desvan del Macho, baina, hala ere, indar izugarria daukan taldea da. Kontzertuaren ondoren, DJ Mansillarock musikariak girotuko du gaua.

bere ustez



Eneko Barberena

## Nor da atzerritarra?

Gose musika taldea entzuten dudan bitartean Inesen galdera airean hegaka doa: hauxe al da nire herria zena? Atzerritarrak al gara?

Atzerritar, gaur egun, jende asko izan daiteke. Gomutara datorkigun lehen definizioa kanpoko kontinenteren batean jaiotakoarena da. Kontinente diot bai, gaur egun mugak ez ei daudenetik europar guztiok omen goaz eta norabide berean.

Atzerritar dei litezke ere ez ditugunak gure artean onartzen, bazterturikoak, ilunpean daudenak... Gizartearen trenean txartelik ez dutenak, gaixo egon eta sendatzeko aukerarik ematen ez diegunak, kartzelak betetzen dituzten horiek...

**"Ez al dira atzerritar ere sentitzen euren herriarekin gustura ez daudenak?"**

Amaitzeko, ez al dira atzerritar ere sentitzen euren herriarekin gustura ez daudenak? Ez dutenek euren lekua aurkitzen, deseroso daudenek, jendarte honi ipar argirik ikusten ez diotenek... hemengoak balira lez ikusten dute euren burua? Bertako denak norberenaren kontrako norantzan badoaz ba ote dute lekurik gure herrian?

Ez dago dena galdua atzerritarrentzat. Ahal badute, euren enbaxada diren telefono kabina zaharkituetara hurbil daitezke itxaropen hari bat hobatzeko esperantzan...

elí senda
Elikadura • Naturopatia
Erreflexologia
Buruko masaje indiarra
Aurretiazko zita:
943 79 05 77
Iturriotz 33, behea 2
ARRASATE

KONTRATAK IRURDK S.L. ERAIKUNTZAK
Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

UGARAN Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

**ERRUGBIA** > KAPITAINAREKIN BERBETAN

# Ander Heriz: "Gaztedi beste maila batean dago, besteak ez"

Kanpanzar ART taldeak deskantsua izango du, eta Elorrion jokatuko dute datorren astean

Arrasateko kapitaina 'Harmailatik' saioan izan zen taldearen gainean berbetan

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Kanpanzar ART taldeak atsedenaldia izango du asteburuan, nahiz eta senior mailan jardunaldia normal jokatuko duten. Datorren asteburuan, berriz, etxekoek Elorrioren kontra jokatuko dute elurragatik atzeratu zuten norgehiagoka. Hala, Arrasateko taldeko kapitain Ander Heriz *Harmailatik* saioan izan zen astelehenean, baina ikusleok martitzenean ikusi ahal izan zuten saioa, astelehenean arazo teknikoak izan genituen-eta. Kapitainak Arrasateko taldearen gainean egin zuen berba, eta geroago eta hobeto dabiltzala gaineratu: "Liga ez genuen ondo hasi, jokalari gazteek neurria hartu behar zioten-eta kategoriari, eta gure artean ere elkar ezagutu behar genuelako. Partiduak hasi eta berehala egiten ziguten entsegua, eta horri buelta eman diogu.

Txapelketari dagokionez, Arrasate sailkapenaren erdialdean dago: "Gaztedi kategoriaz jaitsi zen iaz, eta bai, haiek beste maila batean daude; baina gainontzekoak ez, Gernikari ere ezuste ederra eman genion-eta".

Arrasatekoak hiru urte daramatza talde nagusian, eta txikitatik errugbian jokatzen. Eta asteburuan jakin genuen oraingoz taldea utzi egin beharko duela: "Bizkarrean lesioa dut, eta beste kirol batzuk eginaz bizkarra indartu nahi dut. Baina itzultzeko itxaropena dut; bestela, entrenatzaile hasiko naiz, errugbian jarraitu nahi dut-eta".



Ander Heriz, joan den asteko Kantabriaren kontrako partiduan –oraingoz Herizendako azkena–. JOSETXO ARANTZABAL

**ESKUBALOIA** > EUSKADIKO TXAPELKETA

## Ford Mugarrik Usurbilgo puntuak behar ditu hirugarren lekuari eusten jarraitzeko

Atzetik datorren Askartza puntu bakarrera dago eta Arrasatekoek bi puntura dute bigarren dagoen Egia

**X.U.** > ARRASATE

Euskadiko Ligan indartsu jarraitzen du Ford Mugarri Arrasatek, Barakaldoren eta Egiaren atzetik, hirugarren postua oparitzeko inongo asmo barik.

Eta postu horri eusteko asmoarekin egingo dute bihar Edu Orgazen mutilek Usurbilera bidaia (19:00). Usurbil zortzigarren postuan dago, 12 puntu batuta, eta joan den astean 30-30 egin zuten Urolaren aurrean –nahi baino etekin txikiagoa sailkapenean azken postuan dagoen taldearen kontra izateko–.



Joan den astean Basauriri 26-23 irabazi zion Arrasateko taldeak. J.A.

**BIGARREN TERRITORIALEAN**

Oraingo asteburuan bigarren territorial mailan ere lehia polita izango da, sailkapenean hirugarren eta laugarren dauden Amenabar eta Arrasate taldeak izango dira-eta zein baino zein gehiago domekan (13:00, Zarautz).

Zarauzko taldeak 15 puntu ditu, eta puntu bat gutxiago baino ez dute Arrasatekoek. Rotula Studio liderrak 22 puntu ditu.

**ZIKLISMOA**

## Iban Velasco aurrealdean dabil Australian

**X.U.** > ARRASATE

Tour Down Under lasterketara joan aurretik Iban Velascok bazekien ez zela beretako lasterketarik aproposena, mendate gutxiko itzulia da-eta Australiakoa: "Talde gaztea goaz, eta esperientzia moduan oso positiboa izango da", adierazi zuen orduan.

Arrasatekoa, baina, esprinterra izan gabe lasterketaren aurrealdean iritsi da eguenera arte korritutako hiru etapetan. Hala, hirugarren etapa korritu ondoren Velasco sailkapen orokorrean 17. postuan zegoen. Gaur, egubakoitza, Norwood-Goolwa etapa izan dute (149 kilometro), bihar beste 150 kilometro izango dituzte aurrean eta domekan Adelaidan amaituko da itzulia (90 km).

**zaldibar**

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Lasagabaster-AT Celaya | **3-2** |
| Cipris-Mc Awen Dauen | **4-4** |
| Ekaitz-Komando Alpargat | **6-3** |
| Fidel & Disc-Iluntz | **5-2** |
| Katenatxio-Iriztu | **0-10** |
| Steaua del grifo-Abokajarro | **3-18** |
| Betrayer-Dublin | **2-5** |
| Dribling-Aldapa | **10-3** |

**PARTIDUAK**

| Urtarrilak 23, zapatua | Epaileak |
|---|---|
| **10:30** Fidel & Disc.-Abokajarro | **Dublin** |
| **11:30** AT Celaya-Dublin | **Abokajarro** |
| **12:30** Dribling-MC Awen Dauen | **AT Celaya** |
| **16:00** Lasagabaster-Komando Alp. | **Cipris** |
| **17:00** Cipris-Iluntz | **Komando Alp.** |

| Urtarrilak 24, domeka | Epaileak |
|---|---|
| **11:30** Ekaitz-Iriztu | **Kateatxio** |
| **12:30** Katenatxio-Seaua del grifo | **Ekaitz** |
| **13:30** Betrayer-Aldapa | **Steaua del grifo** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | Dublin | 21 | 7 |
| **2.** | Dribling | 18 | 7 |
| **3.** | Iriztu | 16 | 7 |
| **4.** | Betrayer | 14 | 7 |
| **5.** | Abokajarro | 13 | 7 |
| **6.** | Cipris | 12 | 7 |
| **7.** | AT Celaya | 11 | 7 |
| **8.** | Lasagabaster | 11 | 7 |
| **9.** | McAwenDauen | 9 | 7 |
| **10.** | Fidel & Disc | 9 | 7 |
| **11.** | Ekaitz | 9 | 7 |
| **12.** | Komando Alpargat | 5 | 7 |
| **13.** | Iluntz | 4 | 7 |
| **14.** | Aldapa | 4 | 7 |
| **15.** | Katenatxio | 0 | 7 |
| **16.** | Steaua del Grifo | 0 | 7 |

### Ligako lehenengo puntuak batzeko gertu Katenatxio eta Steaua del Grifo taldeak

Orain arte garaipenen zenbatekoa hutsean dute bi talde horiek, baina oraingo asteburuan elkarren kontra jokatuko dute (domeka, 12:30). Aurrealdean dabiltzan taldeek elkarren kontra norgehiagokarik izango ez dutenez, ikusi egin beharko da sailkapenaren behealdean nork jarraituko duen azken postuan.

Bestalde, oraingo asteburuan AT Celayak jokatuko du bigarrenarekiko hiru puntuko aldea duen Dublinen kontra.

> FUTBOLA

### Salamancara Reala ikustera joateko bidaia gertatu dute

Realaren bolada ona etxean bakarrik ez, etxetik kanpora ere jarraitzeko asteburu-pasa antolatu dute Salamancara, martxo erdialderako.

Partidua ikustearekin batera, azken urteotan moduan, lurralde hartako gastronomiaz gozatzeko bidaia izango da. Informazioa, Monte tabernan.

**JENDARTEA** > ODOL EMAILEEN ELKARTEA

# Azken sei urteetan behera egin du odol emate kopuruak

Odol emaileen elkartetik dei egiten diete herritarrei, "odola ezinbestekoa" da-eta askorendako

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Urte berriarekin batera, odol ateratzeen egutegi berria kaleratu du odol emaileen elkarteak. Aurten 22 ateratze-egun egongo dira eta Fernando Idigoras Bergarako odol emaileen elkarteko presidenteak dei egiten die herritarrei ateratze-egunetan elkartearen egoitzara joan eta odola eman dezaten. Honelaxe dio Idigorasek: "Bi eskari egin nahi ditugu, azken urteetan egindako berberak: batetik, gazteei egin nahi diet dei, anima daitezen elkarteko kide egiten; bestetik, urtean emate bat egiten dutenak anima daitezela bigarren ematea egitera".

Hori guztiori eta gehiago da beharrezkoa, Idigoras elkarteko presidentearen esanetan, "odola ezinbestekoa" da-eta askorendako: anemia dutenendako, hemofilikoendako, minbizia dutenendako, istripuetan zaurituendako...


Herritarrak odola ematen elkarteak Seminarioan duen egoitzan. GOIENKARIA

**KOPURUAK BEHERA**

Odol beharra handia bada ere, emaile eta era berean emate kopuruak behera egin du azken urteetan: "Azkeneko sei urteetan beherako bidea nabarmena izan da", azaldu du Idigorasek, eta hau gehitu du: "2004an, 1.478 emate izan genituen; 2005ean, 1.410 emate; 2006an, 1.334; 2007an, 1.343; 2008an, 1.195; eta iaz, 830 emailek egindako 1.131 emate". Bukatzeko, Idigorasek gogora ekarri du hurrengo emate eguna dela hilaren 27an, Seminarioko egoitzan.

**Emateen egutegia**

| HILABETEAK | EGUNAK |
|---|---|
| Urtarrila | 13, 27 |
| Otsaila | 17 |
| Martxoa | 3, 17, 31 |
| Apirila | 14, 28 |
| Maiatza | 12 |
| Ekaina | 2, 16, 30 |
| Uztaila | 14, 28 |
| Abuztua | 11 |
| Iraila | 1, 29 |
| Urria | 13, 27 |
| Azaroa | 10, 24 |
| Abendua | 15 |

ITURRIA: ODOL EMAILEEN ELKARTEA

**HEZKUNTZA**

# Lanbide Heziketako ikasleentzat oharra

Praktikak gainditu ez dituztenendako ezohiko matrikula epea ireki dute

**M.B.** > BERGARA

Hezkuntzaren Lege Organikoaren ezarpenak hainbat aldaketa ekarriko dizkio Lanbide Heziketari. Hala, ikasleak ohartarazi eta jakinaren gainean laga nahi ditu Miguel Altuna institutuak. Azaldu dutenez, Lanbide Heziketako ziklo bateko modulu guztiak gaindituta dituzten ikasleendako eta lantokiko prestakuntza modulua (FCT/praktikak) gainditzea falta dutenendako ezohiko matrikulazio epea irekiko dute, modulu hori gainditu ahal izateko. Hain justu, izenematea da urtarrilaren 26a baino lehen. Bestalde, zikloa bukatzeko moduluren bat faltan duten ikasleei dagokienez, eskolatik gomendatzen diete bertara joateko, legeak nola eragingo dien jakiteko.

**JENDARTEA** > OSPAKIZUNA

# Aniztasun Eguna deitu dute biharko

Aniztasun Astearen barruko ekimena da eta, besteak beste, egongo dira bazkaria Artatsen eta kontzertua gaztetxean

**M.B.** > BERGARA

Aniztasun Asteari amaiera emateko, Aniztasun Eguna antolatu dute Udalak eta Anitzak taldeak elkarlanean. Bihar, zapatua, izango da eta egun osoko egitaraua antolatu dute. 12:00etan, perkusio eta txalaparta tailerra egongo da gaztetxean eta 14:30ean, herri bazkaria Artatse elkartean –3 euro da prezioa–. Bazkarian herrialde askotariko jakiak dastatu ahal izango dira.

16:30ean, kafe-tertulia egongo da Jon Maia idazle eta bertsolariarekin Pol-Pol tabernan. Maiak *Riomundo* liburua aurkeztuko du. 19:00etan, berriz, kalejira herrikoia abiatuko da San Martin plazatik, trikitiak eta Afrikako perkusioak lagunduta.

22:00etan kontzertua eta ikuskizuna egongo dira gaztetxean. Hain justu ere, Bumpa-da Sound-ek eta Euskal Herria Anitza kolektiboak *Anitzak hitzak* izeneko diskoa aurkeztuko dute.

Eta egunari amaiera emateko, 00:00etan Aniztasunaren Jaia egingo dute Pol-Pol tabernan, hainbat disko-jartzailek lagunduta.

**GAUR MAHAI-INGURUA**

Aniztasun Astearen barruan mahai-ingurua ere egongo da gaur, egubakoitza. 18:30ean izango da, kultura etxean, eta, *Horrelakoak gara* izenburupean, Bergararen zein Euskal Herriaren argazki sozial eta ekonomikoa egingo dute hiru hizlarik: Pedro Albite EHUko irakasle eta Anitzak ekimeneko kideak, Antxon Mendizabal EHUko nazioarteko ekonomia irakasleak eta Inclusion Bergara taldeko kide Gloria San Pedrok, hain zuzen ere.

**INGURUMENA** > BIRZIKLATZEA

# Bihar iritsiko da beira birziklatzeko informazio kanpaina San Martin plazara

Karpa jarriko dute 11:00-14:00 bitartean eta gogora ekarriko dute edukiontzi berdera zer bota daitekeen eta zer ez


Antzuolan abiatu zen kanpaina abenduan; irudian, han jarritako karpa. GOIENKARIA

**M.B.** > BERGARA

Debagoieneko Mankomunitatearen beira birziklatzeko kanpaina ibiltaria bihar, zapatua, iritsiko da herrira. Abenduan etortzekoa bazen ere, aldaketa batzuk direla-eta bihar 11:00-14:00 ordutegian egongo da kanpainaren barruko karpa San Martin plazan.

Kanpaina egin dute Ecovidriok emandako diruarekin eta jendearekin harreman zuzena izatea da asmoa. Horretarako, karpan egongo dira gaian adituak diren bi dinamizatzaile, eta hara joaten direnei beira birziklatzearen gaineko informazioa emango diete. Ikus-entzunezkoak ere izango dira, beira birziklatzeko prozesuaren gainekoak eta edukiontzi berdera bota ahal direnen gainekoak.

Kanpainaren bidez, beira birziklatzeko prozesua eta zein onura lortzen diren azaltzeaz gain, gogora ekarriko dute edukiontzi berdeetan hauek bakarrik sartu behar direla: beirazko botilak, poteak eta flaskoak. Eta azalduko dute ezingo direla bota portzelanak, zeramikak, tapak, tapoiak, txapak, bonbillak, fluoreszenteak, ispiluak, leihoetako kristalak, edalontziak eta kristalezko platerak. Izan ere, jarraitu beharreko prozesuan arazoak sor ditzakete.

**INGURUMENA** > PARKE PUBLIKOAK

# Usondo parkeko zuhaitzei izendapen plaka jarriko diete

Latinezko, euskarazko eta gaztelaniazko izenarekin batera, hostoaren irudia ere eroango du plakak

Ingurumen Sailaren helburuetako bat da herri barruko landarediari balioa ematea

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Usondo parkeko zuhaitzek izendapen plaka izango dute laster. Udalak erabaki du zuhaitzak izendatzeko plakak jartzea, "herri barruko landarediari balioa emateko eta herritarrak sentsibilizatzeko biodibertsitatearen garrantziaz", Ingurumen Saileko iturrien esanetan.

Horrekin guztiarekin, 0,2x0,21 metro izango duen plaka jarriko dute zuhaitzen ondoan eta plaka horretan agertuko da zuhaitzaren izena latinez, euskaraz eta gaztelaniaz eta zuhaitzaren hostoaren irudia. Izena eta hostoaren irudia grabatuta eta beltzez margotuta egongo dira eta Bergarako Udalari erreferentzia egingo dion zigilua ere eroango du.

Ingurumen Sailetik azaldu dutenez, 26 plaka jarriko dira, zuhaitz askoz gehiago dagoen arren, "espezie bakoitzeko banari jarriko" zaio-eta plaka. Martxorako jarrita egongo direla uste du Ingurumen Sailak.

Bestalde, plaka horiek egiteko lana esleitu dio Udalak Marmoleria Bergaresa SLri, 1.875 eurotan.

Herriko gainerako berdeguneetan ere plakok jartzea baztertzen ez den arren, oraingoz, Usoondon bakarrik jarriko dituzte.

**LIBURUAREKIN BATERA**

*Usondo parkeko zuhaitz eta zuhaixkak* delako liburua argitaratu zuen iaz Udalak eta argitalpenarekin batera adostu zuten esandako plakak jartzea.

Liburuari dagokionez, kultura etxean eta udaletxean dago eskuragarri, euro baten truke.



Usondo parkeko zuhaitzak. GOIENKARIA

**AISIALDIA**

## Hasi da Euskal Herriko mus txapelketa

Bergarako kanporaketa jokatuko da urtarrilaren 30ean

**M.B.** > BERGARA

Dagoeneko hasi da II. Euskal Herriko mus txapelketa eta Bergarako kanporaketa urtarrilaren 30ean jokatuko da. Artatse elkartean izango da, 16:30ean. Izenematea ordubete lehenago irekiko dute (15:45 arte) eta bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu. Sariak dira: lehena, bildotsa eta xanpaina; bigarrena, bi untxi eta txakolina; eta hirugarrena, bi txuleta eta ardoa. Bestalde, parte-hartzaile guztiek jasoko dute botila bat ardo.

Herrialdeko kanporaketak otsailean jokatuko dira eta final nagusia, berriz, martxoaren 20an, Seguran. Irabazleak jasoko ditu lau lagunendako bidaia nazioartera, txapela eta 3.000 euro.

Antolatzaileak dira Euskal Herriko Mus Federazioa eta Orreaga, Iparra-Hegoa eta Bai Euskal Herriari taldeak.

**AUZOAK** > JAIAK

# San Paulo jaiak ospatuko dituzte Uberan gaurtik astelehenera arte

Askotariko jolas eta txapelketak, dantza erakustaldia eta meza egongo dira, besteak beste

**M.B.** > BERGARA

Uberako auzotarrek San Paulo jaiak ospatuko dituzte datozen egunotan. Hain zuzen ere, gaur, egubakoitza, hasi eta astelehenera arte (San Paulo eguna) izango dira zaindariaren alde antolatutako ekitaldiak Ubera auzoan.

Gaur, egubakoitza, bakailaojana egingo dute auzotarrek, 21:00etan, soinu-jotzaileek lagunduta, Jaolatza elkartean.

**UME ETA NAGUSIENDAKO JOKOAK**

Bihar, zapatua, hainbat txapelketa egongo dira: 12:00etan, igel eta txapel jaurtiketak jokatuko dira, eta sariak egongo dira: irabazleek txapela jasoko dute.

16:00etan mus txapelketa egongo da Jaolatza elkartean, eta hor ere izango dira sariak irabazleendako: lehenengoak jasoko du garaikurra eta izenematean batutakoaren %50; bigarrenak, garaikurra eta izenematearen %35; eta hirugarrenak, sorpresa. Bestetik, umeendako jolasak egongo dira 16:00etan eta txokolate-jana 18:00etan.

**MEZA ETZI ETA ASTELEHENEAN**

Etzi, domeka, meza nagusia egongo da, 11:00etan, jai egitarauaren barruan. Mezaren ostean, 11:30 aldera, Moisez Azpiazu dantza taldeko kideek erakustaldia egingo dute. Bestalde, Alai Taldea ere egongo da han, eta emanaldia egingo dute. Horrekin guztiarekin batera, salda eta txorizoa banatuko dituzte, trikitilarien doinuek lagunduta.

Horrez gainera, astelehenean, urtarrilaren 25ean, San Paulo eguna da eta, hori kontuan izanda, meza nagusia egongo da Uberako elizan. 11:00etan izango da, eta meza bukatu eta gero, salda eta txorizoa banatuko dituzte Jaolatza elkartean.

**oharrak**

DANTZA

**> Capoeira gertutik ezagutzeko saio irekia egingo dute**

Senzala taldeak egingo du, bihar, zapatua. Agorrosinen izango da hastapen saio hori, eta doan. Edozelan ere, Mankomunitateko edo Bergarako kirol abonamendua eduki behar da sartzeko. Bestalde, adin mugarik ez dago. Saioa 17:00-18:00 bitartean izango da, bigarren aretoan.

GAZTEAK

**> Atzerrian ikasteko beken gaineko informazioa**

Gazte Informazio Bulegoan eta *www.bergara.net* helbidean.

BERGARA Margoak
Certificado ISO 9001 por BVQi
Kalitatea eta zerbitzua.
Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.:943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara@bergaramargoak.com

JOXAN
ARRAINDEGIA

Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

JAIAK > ARATUSTEAK

# Gertu dago Aratusteetako egitaraua

Otsailaren 1ean eta 2an jarriko dituzte salgai Pirritx, Porrotx eta Marimotots ikusteko sarrerak

Aratusteetako afaria azokan egingo dute aurten ere eta txartelak eguaztenetik egongo dira salgai

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA
Aratusteetako egitaraua prest du Udalak. Besteak beste, mozorro herri-afaria, dantzaldia, txaranga eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna egongo dira.

**SARRERAK, OTSAIL HASIERAN**

Aratusteetako domekan, otsailak 14, datoz Pirritx, Porrotx eta Marimotots. Bi emanaldi egingo dituzte, 16:00etan eta 18:30ean. Sarrerak otsailaren 1ean eta 2an jarriko dituzte salgai Udal Pilotalekuan, 18:00etatik 22:00etara, bost eurotan, eta herritar bakoitzak ezingo ditu sei baino gehiago erosi. Guztira, 2.000 sarrera jarriko dituzte salgai eta aurrez saltzen ez direnak ikuskizunaren egunean egongo dira leihatilan.

**MOZORRO AFARIA**

Aurten ere egingo da Aratusteetako mozorro herri-afaria. Otsailaren 13an, zapatua, izango da afari hori eta aurten ere azokan egingo dute; afarira joateko 350 txartel jarriko ditu Udalak salgai eguaztenean, iaz baino 100 gehiago. Txartelak salgai egongo dira Pol-Polen, Kortazarren, Ariznoan eta kultura etxean urtarrilaren 27tik otsailaren 7ra. Norbaitek menu berezia behar badu, otsailaren 7a baino lehen eman behar du horren berri kultura etxean.

Bestalde, Bedelkarrek 200 euroko saria emango dio mozorro onena duenari eta jai giroa jartzen duenari. Bere komertzioetan gastatzeko izango da dirua.



Porrotx eta Pirritx, *Piratak* ikuskizuneko une baten. AZO

## Ruben Monteroren lanak irabazi du kartel lehiaketa

Sei lan aurkeztu dituzte Aratusteetako kartel lehiaketara eta Ruben Monterorena izan da onena, epaimahaiaren iritziz. Monteroren lana izango da, beraz, otsaileko eta Aratusteetako egitarauaren azala. 6.000 ale banatuko dituzte etxez etxe datorren astean.




GOIENKARIA

> ANTZERKIA

### Ipuin kontaketa Pol-Pol tabernan datorren eguenean

Ipuin kontalari baten ikuskizuna egongo da datorren eguenean, urtarrilak 28, Pol-Pol tabernan.

Juan Arjona Sevillako ipuin kontalaria Bergarara etorriko da, Oihulari Klown antzerki taldeak gonbidatuta. *Memorias de mi suburbio* izeneko ipuin saioa eskainiko du andaluziarrak eguenean Pol-Polen, 22:30ean. Oihulari Klown taldeak ahozko narrazio zirkuitua antolatzen du urtero Euskal Herriko txoko batzuetan, eta hor sartzen da Bergarako hitzordua.

> EUSKARA

### Jarduneko jolasleku ibiltaria Osintxuko ludotekara joango da

Osintxuko ludotekara joango da Jarduneko jolasleku ibiltaria domekan, urtarrilak 24. 17:00etan hasita, jolasteko, marrazteko eta bestelako ekintzetan parte hartzeko aukera izango dute 3 eta 12 urte bitarteko umeek. Eskulanak eta kantu jolasak egingo dituzte, besteak beste.

Jolasleku ibiltaria herriko auzoetara eramateko proiektua abiarazi du Jardunek aurtengo ikasturtean, irailean, eta lehen aldiz egongo da Osintxun.

> MUSIKA

### Bandaren kontzertua eta zinema gaztetxean domekan

Bergarako Musika Bandak domekan, urtarrilak 24, emango du urtarrileko kontzertua. Neguko egitarauan ohikoa denez, herriko pilotalekuan izango da kontzertua. Ordua ere ohikoa, 12:30ean.

Bestalde, domeka arratsaldean *12 monos* pelikula emango dute gaztetxeko zineklubean, 18:00etan. Zabalotegi aretoan, berriz, Paz Encinaren *La hamaca paraguaya* filma emango dute datorren eguenean, 20:00etan.



*REM fasea* txotxongiloaren irudi bat. GOIENKARIA

ANTZERKIA > TXOTXONGILOAK

# REM fasera joateko gonbidapena

**O.E.** > BERGARA
Ametsetako REM fasera joateko gonbidapena ekarriko du domekan Kaos Teatro taldeak Zabalotegi aretora. Umeendako txotxongilo ikuskizuna da *REM fasea* eta ametsetan dena posible dela erakutsiko die herriko umeei Pellok.

Izan ere, Pello da ikuskizun horren protagonista eta pertsonaia horren ametsak bizi izango dituzte antzezlana ikustera doazen guztiek. Zabalotegi aretoan izango da txotxongilo ikuskizuna, domekan, 17:30ean. Sarrerak hiru euro balio du.

*REM fasea* Kaos Teatro taldearen ikuskizuna da, formatu txikiko antzezlana. 45 minutu irauten du eta ez dute berbarik egiten. Jose Alberto Maldonado da lanaren egilea.

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

UREDERRA ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Kayak Taberna
Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!
- Afariak
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak

Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

## labegaraieta

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Niu Tim-Errota-gain | 1-10 |
| Errota-gain-Monte taberna | 8-0 |
| Niu Tim-Alytis | 9-5 |
| Akabaoak-Diego Valor Ileap. | 8-3 |
| K. Piperrak-Los Latinos | 7-11 |
| Internacional-LSJ | 7-3 |
| Irish Pub-Zigalikatis | 5-5 |

**PARTIDUAK**

| Urtarrilak 24, domeka (bar.) | Epaileak |
|---|---|
| 09:30 Akabaoak-Los Latinos | LSJ |
| 10:30 CM Errota-gain-LSJ | Los Latinos |
| 16:30 Monte taberna-Alytis | Niu Tim |
| 17:30 Niu Tim-Zigalikatis | Diego Valor |
| 18:30 Diego Valor Ileap.-Irish | Zigalikatis |
| 19:30 Internacional-K.Piperr. | Irish Pub |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| 1. | CM Errota-gain | 39 | 13 |
| 2. | UD Akabaoak | 33 | 13 |
| 3. | Niu Tim | 30 | 13 |
| 4. | Los Latinos | 27 | 12 |
| 5. | Diego Valor Ileap. | 24 | 12 |
| 6. | Alytis FK. | 24 | 13 |
| 7. | Komando Piperrak | 13 | 13 |
| 8. | Zigalikatis | 10 | 13 |
| 9. | Internacional | 10 | 13 |
| 10. | Irish Pub | 7 | 13 |
| 11. | Monte Taberna | 6 | 13 |
| 12. | LSJ | 3 | 13 |

### Errota-gain taldea, lider sendoa; ez dute partidurik galdu

Azken jardunaldian hirugarren postuan dagoen Niu Tim taldeari aise irabazi ondoren (10-1), Errota-gain taldeak sendo jarraitzen du lider. Hamahiru jardunaldiren ostean, partidurik galdu ez duen talde bakarra da. Azken tokian dagoen LSJ taldearen aurka jokatuko dute domeka goizean.

Txapelketako antolatzaileek zera eman dute jakitera: urtarrilaren 31n amaituko dela nortasun agiri guztiak entregatzeko epea. Agiria aurkezten ez duten jokalariek ezingo dute jokatu aurrerantzean. Era berean, hurrengo aste bukaeran, fitxaketak egiteko epea amaitzen da. Hortik aurrera ezin izango da jokalari berririk apuntatu Labegaraietako txapelketan.



Martxoaren 23ra bitartean martitzenero partiduak izango dira Udal Pilotalekuan. GOIENKARIA

**PILOTA** > ELITE MAILAKO SORALUCE TXAPELKETA

# Lau t'erdiaren barruan partiduak martitzenean

## Hernandezek eta Jauregik aurrera egin zuten martitzenean jokatutako kanporaketetan

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Elite mailako lau t'erdiko Soraluce txapelketak aurrera segitzen du eta martitzenean beste bi partidu jokatu ziren Udal Pilotalekuan: lehenbizikoan, Hernandezek 22-19 irabazi zion Atxotegiri eta jarraian, Jauregi 22-16 nagusitu zitzaion Elezkanori.

**HIRU PARTIDU MARTITZENEAN**

Martitzenean, hilaren 26an, beste hiru kanporaketa jokatuko dira Udal Pilotalekuan, 19:00etan hasita. Jaunarenaren eta Iruretaren artekoa izango da lehen partidua, ondoren Andreu eta Eskurdia izango dira aurrez aurre eta, azkenik, Beitiak eta Galartzak neurtuko dituzte indarrak.

Herriko pilotazaleei jaialdi ona eskaintzea da Bergara KEko pilota saileko arduradunen asmoa. Elgetan jokatzen den lau t'erdiko pilota txapelketan adin muga 24 urtekoa denez, hortik gorako pilotariei ere lehiatzeko aukera eskaintzeko ideiarekin abian jarri dute txapelketa. Abenduaren 26an izan ziren lehenbiziko partiduak eta finala martxoaren 23an jokatuko da. Bien bitartean, martitzenero izango dira partiduak Udal Pilotalekuan. Sarrera doan da, zale gehien batzeko asmoarekin. Udaberrian, Bergara Hiria txapelketak erreleboa hartuko dio lau t'erdikoari.

**MUGURUTZA, BERGARAR BAKARRA**

Bergarako pilotariei dagokienez, Ander Mugurutza da txapelketan geratzen den bakarra eta zuzenean final-hamaseirenetan hasiko da lehian. Beñat Iñarra, Gorka Irizar, Ander Larreategi, Eneko Mugurutza, Jon Perez eta Beñat eta Haritz Rezusta kanporatu egin dituzte dagoeneko.

Bestalde, final-zortzirenetan zain diren jokalariak honako hauek dira: Idoate, Larrañaga, Mendizabal, Ollo, Onsalo, Renobales, Rico eta Yoldi.

**PARTIDUAK GAUR ETA BIHAR**

Udaberri txapelketako bi partidu izango dira gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan, 19:15ean. Kadete mailan, Jokin Etxabek eta Lander Osak Goierriko bikotearen aurka jokatuko dute eta seniorretako 2. mailan, Ander Larreategik eta Gorka Irizarrek Usurbilgo bikotea izango dute aurrez aurre. Hirugarren partiduan, Euskal Ligaren barne, senior mailan, Eneko Mugurutzak Igorreko ordezkariaren aurka jokatuko du.

Eta bihar, zapatua, gaztetxoen txanda izango da: alebin mailako hiru partidu jokatuko dira Udal Pilotalekuan, 16:00etan.

> SASKIBALOIA

### Bergarak liderraren bisita izango du bihar Labegaraietan

Senior mailako Soraluce Bergara saskibaloi taldeak Zarautz liderra hartuko du zapatuan. Partidu zaila da sailkapeneko azken tokian dagoen Bergarako taldearentzat. Azken jardunaldian, hala ere, Goierriren kantxan irabazi egin zuten mahoneroek, 44-55. Ligan lortzen duten bigarren garaipena. Zarautzek, aldiz, partidu bakarra galdu du orain arte. Biharko partidua 16:00etan jokatuko da Labegaraietan.

> ESKUBALOIA

### Bergara-Irungo Gaztiak partidua domeka eguerdian

Joan den zapatuan Donibaneri 28-29 irabazi ondoren, senior mailako Soraluce Bergarak Irungo Gaztiak taldearen aurka jokatuko du domekan, Labegaraietan, 12:15ean.

Josetxo Muniategiren taldea hirugarren tokian dago, Elgoibarrekin berdinduta, eta Egia liderrarengandik puntu bakar batera. Irungo Gaztiak sailkapeneko azken aurreko tokian dago: 11. postuan, hain zuzen ere.

> FUTBOLA

### Bergarak Ordizia hartuko du zapatuan Agorrosinen

Ohorezko erregional mailako Bergara futbol taldeak Ordiziaren aurka jokatuko du bihar, zapatua, Agorrosinen, 16:00etan. Mahoneroek aukera ederra galdu zuten azken jardunaldian Hernanin irabazteko. 0-2 aurreratu ondoren, Hernanik berdinketa lortu zuen. Manu Diazen taldea sailkapeneko 10. tokian dago, 22 punturekin. Bihar bisitari izango duten Ordizia taldea 6. postuan dago, lau puntu gehiagorekin.

> ESKIA

### Baqueirara irteerak urtarrilean eta otsailean Pol-Polarekin

Pol-Pol Mendizale Taldeak eta Aloña Mendik Baqueiran eskiatzeko bi irteera antolatu dituzte elkarrekin. Urtarrilaren 29tik 31ra eta otsailaren 26tik 28ra izango dira irteerak.

Era berean, Pol-Polek jakitera eman duenez, Aste Santuko eski irteera Cervinia-Zermatera egingo dute aurten. Apirilaren 2an atera eta 9n itzuliko dira. Argibideak eta informazioa Pol-Polen, *www.pol-pol.net* webgunean.

BERGARA MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

SANTOS
TIEN 21
Etxetresna elektrikoak eta argiztapena
Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

Ion Murgizu Pinturak
Margoketa orokorrean
• Enpapelatuak
• Iztukoak
• Fatxadak
• Eskilarak eta patioak
• Pintura industriala
• Eskaiola eta pladurra
Zabalotegi 9, 2. esk • Bergara
Esozia 24- 2º behea • Soraluze
Tel.: 943 75 13 24
Mug.: 652 77 70 30




Eli Astiasaran, Aztikerko teknikaria; Edurne Egaña, Lehendakaritza eta Foru Administrazioko diputatua; eta Inaxio Garro, alkatea. M.A.

**PARTE-HARTZEA** > KUDEATUZ EGITASMOA

# Markole auzoko berdegunea eztabaidagai

## Aztiker kabinete soziologikoak bideratuko ditu herritarren saioak eta bi hilabetean hiru egingo dituzte, lehenengoa urtarrilaren 30ean

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Markole auzoan, kirol etxearen aurrean dagoen berdegunearen erabileraren gaineko parte-hartze prozesua aurkeztu zuten eguaztenean udaletxean. Aldundiak abian jarritako Kudeatuz egitasmo barruan dago berdegunearen proiektua eta aurkezpen ekitaldian izan zen Lehendakaritza eta Foru Administrazioko diputatu Edurne Egaña, Inaxio Garro alkatearekin batera.

**PROPOSAMENAK JASOTZEKO**

Alkateak jakinarazi zuen inolako zalantza barik onartu zutela Kudeatuz egitasmoan sartzea orain dela sei hilabete: "Herria eraikitzeko ardura herriari dagokiolako; hau da, Udala eta herritarrak elkarrekin". Eta parte-hartze prozesu hori aurrera eroateko kirol etxe aurreko berdegunea hautatu du Udalak: "Gaiaren inguruan zerbait esateko duen edonork parte hartu ahal izango du. Herritarren iritziak, proposamenak eta iradokizunak jaso gura ditugu; anitzak eta, zergatik ez, kontrajarriak", zioen alkateak. Eta saio horietan herritar eta elkarte guztiek dute tokia: kirol taldeek, kanpoko igerileku eske ibilitakoek, berdegunea dagoenetan uztea gura dutenek… Horiek guztiek proposamenak egingo dituzte, baloratu gero eta azkenean adostasunera iritsi. Adostutakoa udal ordezkariei bideratuko diete eta haiek azken erabakia izango dute: "Adostutakoa kontuan hartuko da zalantza barik. Beste kontu bat izango da erabakitakoa noiz egin ahal izango den, kostuak baldintzatuko duelako", esan zuen Garrok.

ESANAK

**"Herritarren iritziak, proposamenak eta iradokizunak gura ditugu; anitzak eta, zergatik ez, kontrajarriak"**

**Inaxio Garro** > Alkatea

**LEHEN SAIOA, HILAREN 30EAN**

Aztiker kabinete soziologikoak bideratuko ditu herritarren parte-hartze saioak; hiru izango dira, bakoitza bi ordukoa. Lehena hilaren 30ean egingo dute, zapatua, Arkupen (10:00).

Gainera, Udalaren webgunean atal bat egokituko dute prozesuaren gaineko argibide guztiak jasotzeko. Eta parte-hartze saioetan ez dabiltzanek ere iritzia emateko aukera izango dute bertan.

> ELKARTASUNA

### Odol ateratzeak egingo dituzte Arabako Odol Bankuko ordezkariek datozen bi astelehenetan

Arabako Odol Bankuko ordezkariak izan ziren atzo gurean odola jasotzen. Beste bi egunetan ere etorriko dira: datorren astelehenean, hilak 25, eta otsailaren 1ean. Odola eman gura dutenek osasun etxean dute hitzordua (16:15-20:00).

Hiru hilabetean behin etortzen dira Arabako Odol Bankuko kideak gurera odola jasotzera. Azken bilketa urrian egin zuten eta orduan 111 herritarrek eman zuten odola.

> DANTZA

### Flamenko ikastaroa egingo du Jaiki elkarteak 'La Pulga' dantzariarekin otsailaren 26an hasita

Flamenkoa zelan dantzatzen den ikasteko saioak antolatu ditu Jaiki elkarteak. Otsailaren 26an hasi eta lau egubakoitzetan –otsailak 26, martxoak 5, 12 eta 26– dira (18:00-20:00), kuartel zaharrean. Irakaslea Askoa Etxebarrieta *La Pulga* flamenko dantzari aditua izango da. Izena aurrez eman behar da telefonoz deituta –653 70 50 68– edo helbide elektronikora idatzita –*jaikielkartea@yahoo.es*–. Prezioa 25 euro da eta langabe eta ikasleendako, 20 euro.



ANDER MONEDERO

### Iñigo Arregiren eskultura, gertu

Deba ibaiaren beste aldeko Iturrizar plazan jarriko duten giza eskubideen aldeko eskultura bukatuta dago. Iñigo Arregi arrasatearrak asteon osatu du ia hiru metro eta bi tona dituen lana Epele galdaragintza lantegian. Eskultura gertu egon arren, otsail bukaera baino lehen ez dute jarriko plazan, zenbait lan bukatu barik dituzte-eta bertan.

Zenbaki
TÜV EMPRESA CERTIFICADA ISO 9001:2000
Aholkulariak
• Juridikoa:
- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ....
- Penala: Hutsegite epaiketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administratiboa: Zigortzaile txostenak, Errekurtsoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, ...
•Laborala: Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioak, ...
•Fiskala: Etxebizitzen salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak,...
•Kontalibilitatea: Pertsona fisiko eta juridikoak, ...
Basabe poligonoa F-O-10, 1. ARETXABALETA. Tel.: 943 71 21 12 • www.zenbaki.es

IRIARTE
Umeen denda • Helduen lentzeria
Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA

Iber
Loteria
Paper denda
Liburuak
Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

**KULTURA** > ARATUSTEAK

# Bazkarirako txartelak astelehenetik aurrera salgai

Aurten bi menu zehaztu dituzte: umeendako 12 eurotan eta helduendako 19 eurotan

Kultura teknikarien bulegoan izango dituzte txartelak eta koadrilaka har daitezke


Iaz Iturrigorri pilotalekuan egindako herri bazkaria. GOIENKARIA

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
Aratuste-domeka, otsailaren 14a, egun handia da aretxabaletarrendako eta dagoeneko hasita daude gertaketa lanetan. Herriko koadrilak, iaz legez, saihesbidera bidean dagoen industria pabiloi batean dabiltza mozorroak prestatzen, baina isilean egiten duten lana da hori. Zurrumurruek diotenez, Chuck Norris eta Ameriketako Estatu Batuetako presidente ohi George Bush izango dira aurten gurean.

Baina Aratusteak baino lehen Txapel Txin eguna izango dugu koadrilen eskutik, otsailaren 6an, hain zuzen. Kalejira, iaz abian jarritako torrada lehiaketa eta Aratusteak iragartzeko pregoia izango dira, beste ekitaldi batzuen artean; hori guztia, Txapel Txinek berak gidatuta.

**HERRI BAZKARIA ITURRIGORRIN**
Koadrilak ez ezik, Kultura Saila ere prestaketa lanetan buru-belarri dabil. Hala, Aratusteak iragartzeko kartel lehiaketa deituta dauka eta datorren martitzenean bukatuko da aurkezteko epea. Irabazlearen berri, ostera, hurrengo egubakoitzean, hilak 29, emango du.

Bien bitartean, Aratuste-domekako herri bazkaria antolatu guran dabil. Txartelak astelehenean jarriko dituzte salgai Kultura teknikarien bulegoan –Arkupe kultura etxeko bigarren solairuan–; hona ordutegia: 09:00-13:00 eta 14:00-17:00 –egubakoitzetan, goizez bakarrik–. Aurten bi menu eskainiko dituzte Iturrigorri pilotalekuan egingo duten bazkarian. Umeendakoa (10 urte arte), 12 eurotan: makarroiak, oilaskoa eta izozkia. Eta helduendakoa, 19 eurotan: patatak errioxar erara, oilaskoa, tarta izozkiarekin eta bazkalosteko kafea eta edariak. Txartelak, aurreko urteotan legez, koadrilaka har daitezke astelehenetik aurrera.

**OSPAKIZUNA** > X. URTEURRENA

# San Kanutoren eguna bihar

**M.A.** > ARETXABALETA
San Kanuto ospatuko dute bihar *marihuanaren lagunek*. Betiko legez, umore ona eta musika izango dituzte lagun, baina aurten hamargarren urteurrena betetzen da eta inoiz baino ospakizun handiagoa egin gura dute. Hori horrela, kontzertu mordoa izango dira herriko tabernetan.

Eguna hasteko, bolatokian bolo txapelketa egingo dute (11:00) eta eguerdian bazkaltzera joango dira Mitarte plazan gertatuko duten jantoki erraldoira (14:00). Bertan, lehen kontzertua izango dute Packo Dossis taldearen eskutik. Eta arratsaldean (19:00) hainbat talde izango dira herriko tabernetan: Haizean, Quadrothenicos eta Crackers; Expresen, Inalectrik eta Julen Cobos; Urbaltzen, The Convicts eta Etorten Die Hoten; eta Izotzen, Flamming Gaupasing eta Brothers. Ilunkaran (21:00) salda eskainiko dute Txikibar tabernan eta ondoren (22:00) kalejira egingo dute San Kanutorekin, Orkestra Taldea lagun dutela.


San Kanuto. M.A.

**oharrak**

ZINEMA
**> 'El secreto de sus ojos' helduendako eta 'Donde viven los monstruos' umeendako**
Gaur eta bihar (22:00), domekan (19:30) eta astelehenean (16:00) *El secreto de sus ojos* filma dute helduek eta domekan (17:00) *Donde viven los monstruos* umeek.

IPUIN KONTAKETA
**> 'Kandelen argipean: ipuinez hegan eta hegan' bihar liburutegian**
Begoña Gomez eta Pedro Ruiz narratzaileek ipuin kontaketa saioa eskainiko diete 3 eta 6 urte arteko umeei bihar, liburutegian (11:30).

> KIROLAK
## Gros talde indartsua hartuko du bihar Arlutz xake taldeak

Denboraldiko bigarren partida jokatuko dute aretxabaletarrek bihar –elurraren ondorioz bertan behera geratu zen bat–, eta Gros talde indartsua hartuko dute etxean. Ohorezko mailan, Euskal Herriko talde onenekin jokatzen du Arlutzek eta aurreko astean galdu egin zuen Irungo Batallaren aurka (3-1). Oraingoan partida ona jokatu gura dute, nahiz eta badakiten oso zaila izango dela puntuak eskuratzea. Izan ere, Gros taldea nazioarteko lau maisurekin etorriko da; tartean, Alejandro Franco eta Iñigo Argandoña.

> ESKIA
## Luz Saint Sauveur aldera joango da Murrukixo eskiatzera

Irteera antolatu du Murrukixo Mendizale Elkarteak Luz Saint Sauveur aldera (Frantzia). Otsailaren 20an joan (05:00etan irtenda) eta 21ean itzuliko dira; hortaz, afaldu, lo eta gosaldu egingo dute bertan. Autobusa eta segurudun forfaita sartzen dira prezioan: bazkideendako 100 euro, bazkide ez direnendako 105 euro (ikasleek 5 euro gutxiago).

Izena aurrez eman behar da Murrukixoren egoitzan martitzenetan (19:00-20:00) edo posta elektroniko bidez –*murrukixo@euskalerria.org*–. 18 urte artekoek gurasoen baimenarekin batera ardura dun bat eroan behar dute.

Jon Díaz
Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Garbittu
Errekabarren 3, behea ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21
garbittu@euskalnet.net
Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
•
Obra bukaerako garbiketak
•
Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
•
Kristalen garbiketak
•
Arropa garbiketak

BENGOA URDAITEGIA
Bertako okelak eta mortzilak
Durana 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79

Mobiliario ARENAZA
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

**MUSIKA** > IKASTAROA

# Daddy Jeff eta Aritz Sound System bihar gaztelekuan

Raparen hastapenak eta scratch teknikak ikasteaz gain, erakustaldi praktikoa izango dute gazteek

Tailerra debalde izangoda eta bi ordu inguru iraungo du, 17:00etatik 19:00etara bitartean


Daddy Jeff (abeslaria) eta Aritz Sound System (platereten), musika emanaldia egiten. ARITZ SOUND SYSTEM

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Ikastaro berezia egingo dute bihar, zapatua, gaztelekuan. Rap eta scratch ikastaroa izango dute gazteek, euskaraz, 17:00etatik 19:00etara, eta Euskal Herrian punta-puntakoak diren lagun bi izango dituzte irakasle: Daddy Jeff eta Aritz Sound System, hain justu ere. Debalde izango da 12-17 urte bitarteko eskoriatzarrendako tailerra.

Aritz Sound Systemek horretan landuko dutena azaldu digu: "Bi zatitan egongo da banatuta: lehenengoan, alde teorikoa landuko dugu. Rap eta scratch estiloaren ibilbidea errepasatuko dugu eta musika jartzeko dauden teknikak jakinaraziko dizkiegu gazteei. Ordu erdi iraungo du, gehienez. Bigarren zatian, platerekin ibiltzeko aukera izango dute; esaterako, kantuaren zati bat behin eta berriro errepikatu, diskoaren abiadura aldatu sonoritate bat edo bestea lortzeko, eta abestiren bat zuzenean sortu ahal izango dute".

**BIAK, SELEKTAH KOLETIBOAN**

Musikan ibilbide luzea dute biek. Daddy Jeff Selektah Kolektibo taldeko abeslaria izateaz gain, Euskal Herrian dagoen hip-hop abeslari, disko jartzaile eta produktore euskalduna ere bada.

Aritz Sound System (Aritz Usandizaga) ere musikazale "amorratua" da. Urtetan Ixah musikaren sustatzailea izan da; Euskal Herrian "ezezagunak" diren musikak ezagutarazi eta zabaltzeko helburua duen elkartea da Ixah. Musika elektronikoa eta beltza (reggae, rap, soul, funk edo afro-brasildar doinuak) bultzatzeko helburuarekin eskura dituen baliabide guztiak erabiltzen ditu: Selektah Kolektiboko sortzaile eta partaidea, irrati esataria, musika aldizkarietan kolaboratzailea eta jaialdien antolatzailea da. Horretaz gain, Bob Marley mitikoaren gaineko *Maitasuna, begirunea eta askatasuna* liburuaren egilea ere bada.

**ESKI IRTEERAN, 24RA ARTE**

Biharkoaz gain, bestelako ekimenak ere antolatuko dituzte datozen asteotan gaztelekuan. Urtarrilaren 30ean, esaterako, gazteak Errioxan dagoen Valdezcaray estaziora joango dira eskiatzera. Txatxilipurditik gogorarazi dute 12-17 urte bitarteko gaztetxoek etzira arte izango dutela izena emateko aukera (domeka), gaztelekuan edo gazte bulegoan. Plaza kopuru mugatua dago, autobusaren araberakoa.

## Arizmendikoak Atxorrotz mendira igo ziren domekan

Arizmendi ikastolako Lehen Hezkuntzako ikasleek eta gurasoek ikasturteko bigarren irteera egin zuten joan den domekan, eta 100 lagun baino gehiago elkartu ziren Kulturguneak antolatutako ekimenean. Ibilbide labur baina aldapatsua aukeratu zuten, 738 metroko garaiera daukan Atxorrotz mendira igo ziren-eta. Tontorrean dagoen baseliza bisitatu ostean eta etxerako itzulera hasi aurretik, talde argazkia atera zuten guztiek batera. Arizmenditik azaldu digutenez, oso gustura ibili ziren hantxe. Horrekin batera, gogorarazi dute ikasturtea amaitu bitartean beste hiru mendi irteera egingo dituztela.


ARIZMENDI IKASTOLA

**UMEAK**

## Puzgarriak daude etzi igerilekuan

**M.B.** > ESKORIATZA

Urtarrilean ere puzgarriak jarriko dituzte herriko igerilekuan 12 urte arteko neskamutikoendako. Etzi izango da hori, arratsaldean. Aurrekoetan bezala, ordutegia umeen adinaren araberakoa izango da. 6 urtetik beherakoendako, 16:00etatik 17:00etara egongo da zabalik; 7 eta 9 artekoendako, 17:00etatik 18:30era; eta 18:30etik 20:00etara gainontzekoendako. Gazteria Zerbitzutik azaldu dute 6 urtetik beherakoek gurasoekin joan beharko dutela.

**2 EDO 3 EURO**

Ekimen horren prezioaren berri ere eman dute: bazkideek 2 euro ordainduko dituzte eta gainerakoek, 3 euro.

Domeka arratsaldean Euskal Herriko II. mus txapelketako kanporaketak jokatuko dira Inkernun

Martxoaren 13rako mendi irteera eta sagardotegian bazkaria gertatzen ari da Aitzorrotz

**MUSIKA** >KONTZERTUA

# Anger 'sedukzioaz' iritsiko da bihar gauean Inkernura

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Aitzorrotz kultura elkarteak antolatuta, Anger talde arrasatearrak kontzertua eskainiko du bihar, zapatua, Inkernu tabernan. Kaleratu berri duen *Sedukzioaz* izeneko lana zuzenean aurkeztuko du, 23:00etan. Hamar kantuz osatutako diskoa da hori; euren iragan *metaleroa* baztertu barik, soinu eta estilo berrietara zabaldu da lan berri horretan laukotea. Hala, metalaz gain, rocka, rapa, stonerra, hardcorea, pop-rocka eta, zenbaitetan, sanba doinuak entzun ahal izango dira bihar gauean Inkernun.

Baina, horietaz gain, aurretik kaleratutako beste hiru lanetako kantuak ere joko dituzte; hain justu ere, *Zuhaitz lehorra ereiten* (2000), *Jarraitzen digun itzala* (2002) eta *Biluztu* (2005) diskoetako kantuak. Bestalde, Aitzorrotzetik azaldu digute kontzertu bukaeran ikusleen artean txapela pasatuko dela.

**20 EURO BIKOTEKO**

Domeka arratsaldean kartek hartuko dute kontzertuaren lekukoa: Euskal Herriko II. mus txapelketako kanporaketa jokatuko dute, 16:00etan. Horretarako izenemateak 20 euro balio du bikoteko. Txapelketako arauetan zortzi hamarrekotara izango diren hiru partida jokatzea aurreikusten bada ere, herrietako saioetan tokiko ohituren arabera jokatzeko aukera ere izango dela jakinarazi dute.

Euskal Herriko mus txapelketa herriz herri egiten ari da. Herrietatik herrialde mailako kanporaketara joango dira bikoteak eta onenak finalean lehiatuko dira, martxoaren 20an, Seguran egingo den saioan. Txapelketa horretako irabazleak 3.000 euro, lau lagunendako bidaia, garaikurra eta txapela jasoko ditu. Eskoriatzan Aitzorrotz arduratu da herriko kanporaketa gertatzeaz.

**MARTXOAREN 13AN, TXOTXA**

Bestalde, Aitzorrotzetik azaldu digute martxoaren 13rako mendi irteera eta sagardotegian bazkaria gertatzen ari dela. Interesatuek Inkernu tabernan eman behar dute izena. Kultura elkarteko bazkideek 30 euro ordainduko dituzte eta gainerakoek, 40.



MIRIAN BITERI

## Sarriegiren doinuak Luis Ezeizaraino iritsi ziren eguaztenean

Eguaztenean San Sebastian eguna ospatu zuten Eskoriatzako Luis Ezeiza ikastetxean. Urtero legez, hainbat astez entseatu ostean danborra hartu eta, Sarriegi maisuaren piezak kontuan hartuta, emanaldi bikaina egin zuten 200 neska-mutiko inguruk. Hasiera baten, herri eskolako jolastokian egitekoak ziren, baina 15:30erako minutu gutxi batzuk falta zirela euria hasi zuen, eta, horren ondorioz, Udal Pilotalekuan egitea erabakia zuten. Guraso asko joan ziren hara seme-alaben ikuskizuna ikustera. Emanaldia amaitzean, txokolate-jana izan zuten umeek.

Aurten, lehenengo aldiz, Lehen Hezkuntzako ikasleak izan dira danborradan. Horretan parte hartu gura zuten galdetu zietenean ez zuten zalantzarik izan. Esan beharra dago, horren harira, orain arte Haur Hezkuntzakoek baino ez dutela parte hartu.

**KIROLA** > PILOTA

## Udaberriko txapelketako partiduak izango dira gaur

**M.B.** > ESKORIATZA

Eskoriatzako Udal Pilotalekuak udaberriko txapelketako kanporaketak hartuko ditu gaur, egubakoitza, arratsaldean. Eskuz binakako hiru norgehiagoka jokatuko dira han: kadeteetako 3. mailan, Eskoriatza eta Usurbil lehiatuko dira; jarraian, kategoria bereko bigarren mailakoen norgehiagoka iritsiko da: eskoriatzarrek Aurrera-Saiaz 2 taldearen kontra jokatuko dute; eta amaitzeko, nagusien bigarren mailako partidua ikusteko aukera izango dute pilotazaleek: Lagunak eta Eskoriatzakoen artekoa, hain justu ere. Udaberri txapelketako kanporaketak 19:00etan hasiko dira.

### oharrak

TOPAKETA

**> Sexismoa berbagai bihar goizean Ibarraundi museoan**

Elkarhezitzenek antolatuta, bihar, zapatua, sexismoaz jardungo dute Ibarraundi museoan, 09:30etik 14:00etara, *Emakume eta gizonak: Izatez gara ezberdinak edo ezberdin egiten gaitutze?* lelopean. Giz elkarteko Xabier Odriozola eta Mikel Otxotorena izango dira topaketan. Horren harira, gogoraraziko dute pertsonen arteko berdintasunaren aldeko lanean gizonen parte-hartzearen beharra dagoela, herrialde txirotuetan zein herrialde aberastuetan.

KIROLA

**> Bihar, 09:30etik 10:30era, eskola kirola dute umeek igerilekuan**

Igerilekua itxita egongo da bihar, 09:30etik 10:30era, eskoriatzarrendako, Eskoriatzako Luis Ezeiza eta Arizmendi eta Aretxabaletako Kurtzebarriko Lehen Hezkuntzakoek kirol jolasak dituzte-eta.

KIROLA

**> Asteburuko hitzorduak**

Saskibaloi eta areto-futbolean hainbat hitzordu daude aste bukaeran: bihar, zapatua, junior mailako saskibaloi partidua dago Eskoriatza eta Bera Bera Kursaal taldeen artean, 16:00etan; senior mailan, berriz, etxeko neskek Añorgakoak hartuko dituzte, 18:00etan. Domekan, Ohorezko Ligako areto-futbola izango da, 11:00etan, Eskoriatza eta Gingangolo artean.

> EMANALDIA

## Bihar, txotxongilo ikuskizuna Elkar Hezi ikastetxearen eskutik

Elkar Hezi Ikastetxeko Gurasoen Elkarteak antolatuta, *Irudimendeko hiria* delako txotxongilo emanaldia egingo dute bihar Santa Ana antzokian 18:00etan. 5 urtetik gorako haurrendako ikuskizuna da. Sarrera doanekoa da, baina gonbidapena beharrezkoa da.

Abadiñoko Gorakada taldearen ikuskizunean hainbat herrialdetako ipuin tradizionalak dira nagusi. Gizakioi gertatzen zaizkigun gauzak kontatzen dituzte, istorio moderno eta mestizoa eraikiz.

> ELIZA

## Familia-meza egingo dute domekan parrokian 12:00etan

Oñatiko Katekesiak antolatuta familia-meza egingo dute domekan 12:00etan parrokian. Elizak Haur Misiolariaren Eguna ospatzen du domekan, eta elizkizun berezia egingo dute umeekin eta euren gurasoekin.

Elizkizunean parte hartu gura duten neska-mutikoak katekistekin sartuko dira elizkizunera. Aurretik, baina, Haur Misiolariaren Eguna zer den, zertarako egiten den eta elizkizunean zer ospatuko dute azalduko diete.

> KIROLA

## Lehenengo eski irteera datorren aste bukaeran egingo dute

Aloña Mendi Elkarteko eski sailekoek lehen irteera egingo dute urtarrileko azken aste bukaeran, Baqueira-Beretera. Izena eman gura dutenek Aloña Mendi tabernara joan beharko dute astelehenean 18:30etik 20:00etara.

Denboraldiko hurrengo irteerak, otsailaren 26tik 28ra eta apirilaren 2tik 10era egingo dituzte. Aste bukaerakoa Baqueirara, eta Pazko Astekoa, Cerviniara.

**LANAK** > APARKALEKUA

# Osasun etxeko parkinga berrantolatuko dute

Aparkalekuak zabalagoak izango dira, eta hiru medikuendako eta erizainendako gordeko dituzte

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Osasun Zentroaren atzealdean dagoen aparkalekua berrantolatzea erabaki du Udalak. "Herritarrak kexu dira aparkalekuaren gainean. Autoak uzteko tokiak estuegiak direla diote, eta arrazoi dute. Osasun Zentroko arduradunek ere euren desadostasuna helarazi digute behin baino gehiagotan, eta berrantolatu egingo dugu", dio Hirigintzako zinegotzi Angel Biainek.

Udal langileek marradun aparkalekuak berriro margotuko dituzte, eta toki zabalagoak utziko dituzte. Hain zuzen ere, 2,50 metroko zabalera izango dute –orain arte, 2,10ekoak ziren–.

Ondorioz, aparkaleku gutxiago egongo dira aurrerantzean. "Ez dugu toki asko galduko, lau bat-edo. Egun 64 autorendako tokia dago, eta neurri berriekin 60 bat aparkatu ahalko dituzte", dio Biainek.

**HIRU TOKI ERRESERBATUTA**

Bestalde, Osasun Zentroko arduradunek egindako eskaera aintzat hartuta, 60 aparkaleku horietatik hiru larrialdietarako gordeko dituzte. "Ondo adieraziko dugu zeintzuk diren libre utzi beharreko hiru tokiak. Larrialdietan lanean dabiltzan medikuendako eta erizainendako bakarrik izango dira", dio Biainek.

**LANAK, ZATIKA**

Lanak datozen egunotan hasiko dituzte udal langileek, eguraldiak laguntzen badie. Lehen-lehenik marra zuriak beltzez margotuko dituzte, ondoren toki berriak zehazteko.

Lanok erabiltzaileengan ahalik eta eragozpen gutxien sor dezaten, aparkalekua berrantolatzeko lanak zatika egingo dituztela esan digute. Oraindik ez dituzte egunak zehaztu.



MUSIKA ESKOLA

## Musika eskolako 10 ikasle Andoainen

Jose de Azpiazu musika eskolako 10 ikaslek parte hartuko dute otsailaren 6an eta 7an Andoaingo Piano Jaialdian. Maila ezberdinetan parte hartuko dute: A mailan Aritz Gerrikagotia, Enitz Ibabe, Marta Igarzabal eta Lide Mantxola lehiatuko dira; B mailan Jone Etxeberria, Eneko Ibabe eta Iñaki Zumalde; C mailan Sara Ezkati; eta C mailan, baina lau eskutara, Miren Fernandez eta Sara Zubia. Guztiek prestaketa lan gogorra egin dute, eta euren helburua urrezkoa dominaren bat lortzea da.

**beteranuak**

**EMAITZAK**

**A TALDEA**

| | |
|---|---|
| GIbel Boys-Lozorromo | 1-1 |
| Dollygans-Bundeswehr | 4-1 |
| Zorro Bero-Albok | 7-1 |
| Sasquatch-Indar 85 | 0-2 |

**B TALDEA**

| | |
|---|---|
| JOxely-Etxaixat | 3-3 |
| Xaguxar-Jai Ari | 6-0 |

**PARTIDUAK**

**B TALDEA, URTARRILAK 23**

**13:00** Etxaixat-Jai Ari/ **Lazkano**
**14:30** Joxely-Nandrolona/ **Mattin**
**18:30** Xaguxar-Ankarteko/ **Marku**

**B TALDEA, URTARRILAK 24**

**13:30** Txuskos-Txarrixak/ **Arrilla**

> **Atsedena:** Kalañatasaray
> **Arduraduna:** Gaur Bai

**SAILKAPENA**

| A TALDEA | P | J |
|---|---|---|
| 1. Zorro Bero | 15 | 5 |
| 2. Doolygans | 12 | 5 |
| 3. The Gibel Boys | 8 | 4 |
| 4. Indar 85 | 7 | 5 |
| 5. Gaur Bai | 6 | 4 |
| 6. Sasquatch | 4 | 4 |
| 7. Lozorromo | 2 | 4 |
| 8. Bundeswehr | 1 | 4 |
| 9. Albok | 1 | 4 |

| B TALDEA | P | J |
|---|---|---|
| 1. Txarrixak | 9 | 4 |
| 2. Joxely | 8 | 5 |
| 3. Xaguxar | 8 | 5 |
| 4. Txuskos | 8 | 4 |
| 5, Kalañatasaray | 6 | 4 |
| 6. Ankarteko | 4 | 3 |
| 7. Nandrolona | 4 | 3 |
| 8. Etxaixat | 2 | 4 |
| 9. Jai Ari | 0 | 4 |

## Atzeratutako partidurik ez

Aste bukaeran honetan eta hurrengoan ez dituzte atzeratutako partidurik jokatuko, Aloña Mendikoen eta eskolarteko partiduek ez dutelako aukerarik ematen.

Aste bukaeran B taldeko sailkapeneko azken bi taldeek elkarren kontra jokatuko dute. Etxaixatek eta Jai Arik denboraldiko lehen garaipena lortzeko aukera izango dute. Bestalde, Jai Ari taldeari 40 euroko isuna jarri diote partidu hasierara berandu iristeagatik.

ZELAIA OÑATI
www.zelaia.net
40 urte elkarrekin
1970-2010

2010eko EROSKETA DOAN!

**2010ean GURE DENDETAN EGINDAKO EROSKETAK DOAN IZAN DAITEZKE ZURETZAT!**
Erosketa egiterakoan emango dizugun txartelaren zenbakiak Loteria Nazionalaren azkeneko hiru zenbakiekin bat egiten badu, egindako erosketaren zenbateko osoa bueltatuko dizugu.

**Anima zaitez eta ospatu urteurrena gurekin!**

JAIAK > SANTA AGEDA

# Aiherrara joateko izena 29a baino lehen eman behar da

Otsailaren 6an Santa Ageda eskea ospatuko dute Aiherran; Antzuolako abesbatzak abestu egingo du eta gazteek kontzertuak izango dituzte



Aiherrako gaztetxeko kideek atera duten kartela. ANTZUOLA

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA

Otsailaren 6an, Santa Ageda hurrengo egunean, Aiherrara joateko autobusa jarriko du Udalak. Hala, Antzuolako eta Aiherrako lagunek Santa eskea elkarrekin egiteko aukera izango dute. Gurean oso ezaguna den arren, orain dela urte gutxi hasi ziren Aiherran Santa eskea egiten.

Aiherrara joan gura duenak hilaren 29a (egubakoitza) baino lehen eman behar du izena udaletxean edo gaztetxean. Oraindik ordua zehaztu barik dute, baina iazko antzerako ordutegia izango dela uste dute –joateko autobusa 10:00etan eta itzulerakoa 20:30ean.

**ABESBATZA ETA KONTZERTUAK**

Antzuolako abesbatza joango da Aiherrara Santa eskean egitera; hango lagunekin batera ibiliko dira abesbatzako kideak etxerik etxe Santa Agedaren omenez abesten. Gero, bazkaria egingo dute Aiherrako eta Antzuolako lagunek.

Bestalde, Aiherrako gazteek antolatuta kontzertuak egingo dituzte gaztetxean. 22:00etan hasita, Xutik eta Entzun taldeek egingo dute emanaldia. Idoia Ramirez de Okariz Antzuolako gaztetxeko kideak esan digu oraindik ez dutela erabaki nola antolatu Aiherrarako bidaia: "Izena ematen dutenen arabera erabakiko dugu nola egin bidaia. Beharbada, arratsaldeko lehenengo orduan jarriko dugu hara joateko autobusa eta itzulerakoa kontzertuak amaitu ondoren". Esan digu beste aukera bat autoz joatea izango dela.

**25. URTEURRENA**

Antzuolaren eta Aiherraren arteko senidetzearen 25. urteurrena ospatzen dabiltza bi herriak; eta ekitaldiok horren harira antolatutakoak dira. Ramirez de Okarizek esan digu Independentzia Egunean Aiherrako gazteak gonbidatu zituztela Antzuolara; bada, bi herrietako gazteen hartu-emana ordutik hona dator.

Zapatuko kontzertua emango duen Xutik taldea osatzen dute Zpeiz Mukaki taldeko musikariek. Gitarra, eskusoinua, tronpeta, saxoa... erabiltzen dituzte musika egiteko.

FUTBOLA > 17. JARDUNALDIA

# Azpeitiarren bisita izango dute bihar

Partidua bihar izango da, 16:00etan, Eztala futbol zelaian; Igor Larrea entrenatzailearen esanetan, lehia gogorra izango da

A.E. > ANTZUOLA

Azpeitiarrak San Sebastian jaiaren biharamunarekin etortzea gurako dute antzuolarrek; izan ere, lehia gogorra izango da bihar Eztala futbol zelaian Antzuolak eta Lagun Onak izango dutena.

Partidua 16:00etan hasiko da, eta nor baino nor gehiago lehiatuko dira sailkapenean seigarren tokian dagoen Lagun Onak (24 puntu) eta sailkapenean bederatzigarren den Antzuola (19 puntu). Bestalde, elurragatik atzeratutako partidua jokatzea geratzen zaio Antzuolari lehenengo itzulia amaitzeko; eta, dirudienez, otsailaren 13an izango da Anaitasunaren aurkako lehia hori.

**ELGOIBARREN PUNTU BAT**

Joan den astean Elgoibarren aurka puntu baliotsua eskuratu zuten antzuolarrek. Hala ere, Igor Larrea entrenatzaileak esan digu "ezer gutxirako" balioko duela zapatuan, etxean, irabazi ezean. Elgoibarren egindako lanarekin gustura geratu da Antzuolako entrenatzailea.

> OSASUNA

## Eguenean egingo dute aurtengo lehenengo odol-ematea, beti bezala Olaran etxean

Datorren asteko eguenean, hilak 28, izango da odol-ematea Olaran etxean, 17:30ean. Aurtengo lehenengoa izango da datorren astekoa, eta odol-emaileen elkartekoek herritarrak animatu gura dituzte. Urtean hiru bider egiten da odol-ematea Antzuolan: urtarrilean, maiatzean eta irailean.

> MUSA

## Gaur Mox tabernan egingo duten kanporaketarekin hasiko dute herriko txapelketa

Antzuolako mus txapelketako lehenengo kanporaketa gaur jokatuko da, Mox tabernan, 22:15ean. Kanporaketa jokatu behar den tokian eman behar da izena, 20 euro ordainduta. Kanporaketa egiteko, gutxienez, lau bikotek egon behar dute. Bihar Arinen, etzi Eperran eta hilaren 29an Gailurren izango dira kanporaketak.

> KULTURA

## 'Una vueltecita por Nicaragua' argazki erakusketa izango da bihar eta etzi Olaran etxeko aretoan

Iñaki Agirianoren *Una vueltecita por Nicaragua* argazki erakusketa izango da bihar eta etzi ikusgai Olaran etxean. Kainabera GKEko kide da Agiriano. Hala, azkeneko urteetan han egindako lanak laburbiltzen duen argazki sorta jarriko du ikusgai Olaranen. Ordutegia: 12:30etik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

DEKORAZIOA
ABAD
PINTURAK
ANTZUOLA
PAPER PINTATUAK
Jose Gomez Abad
Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19
INDUSTRI MANTENIMENDUA

Arin Jatetxea
Karta • Plater konbinatuak
Ogitartekoak • Pintxoak
ETXEKO BEREZITASUNAK:
Buztana eta txuleta
(zaharrarena).
Enkarguak ere hartzen ditugu.
Astelehenetan eta martitzenetan itxita
Kalebarren 7 • 943 78 62 45
ANTZUOLA

PATXI
CASTRO


Era guztietako aulkien konponketa
Tapizatu lanak
Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta
Besaulki, mahai, saskiak e.a
943 78 71 65
639 01 69 69

**HISTORIA** > 36KO GERRAREN BEKA

# Liburua, DVDa eta komikia egingo dituzte gerran bizitakoarekin

Intxorta 1937 taldeari eman dio Udalak 36ko gerrari buruzko beka: 12.000 euro

Martxo-apiril arteko epea du taldeak egin nahi duen lanaren oinarriak Udalari aurkezteko

**OIHANA ELORTZA** > ELGETA
Intxorta 1937 taldeari adjudikatu dio Elgetako Udalak 1936ko gerraren beka. Aurkezpen ona egin dutelako, "lehendik ere lan asko egin dutelako, dokumentazio asko bilduta dutelako eta, bestetik, metodologia aldetik Euskal Herriko eta Espainiako artxibo ezberdinetako materiala ateratzeko asmoa dutelako" erabaki du Udalak beka talde horri ematea, Turismo zinegotzi Edurne Alberdik azaldu duen moduan.

**EUSKARRI EZBERDINAK**
Alberdiren esanetan, lan txukuna aurkeztu du Intxorta 1937 taldeak, eta bekaren laguntzarekin egin nahi dutena ere garrantzitsua da: "Liburu bat argitaratzeko asmoa dute, nobela grafiko itxura duen liburu bat. Bestalde, 1936ko gerra bizi izan zuten elgetar batzuen testigantzak jasota dituzte dagoeneko, baina gelditzen direnen bizipenak entzuteko eta grabatzeko asmoa ere badute. Ahozko bilduma horrekin DVDa ateratzea pentsatu dute, gainera. Horrez gain, komiki bat egitea ere aztertu dute".

**APIRILERA ARTE**
Aurkeztutako lana egiteko epea apirilean bukatuko zaio Intxorta 1937 taldeari. "Martxo-apiril bitarterako egin behar dute lana. Denbora laburra da, baina oinarrizko lanak, minimoak, behintzat, data horren barruan aurkeztu beharko dituzte. Lan osoa egiteko denbora luzeagoa beharko dute; aurrerantzean ere lan egin beharko dute aurkeztutakoa egiteko, baina hasierako epea horixe da, apirilera bitartekoa", dio Turismo zinegotziak.

**AHALIK ETA GEHIEN JAKIN**
12.000 euroko beka jaso du Intxorta 1937 taldeak 1936ko gerran gertatutakoak jasotzeko. Horietatik 8.000 euro Jaurlaritzak jarri ditu eta gainerako 4.000 euroak Elgetako Udalak. "Udalaren asmoa da ahalik eta gehien ezagutzea eta jasotzea gerran gertatu zenari buruz, harrezkero jaiotako belaunaldiek ere jakin dezaten zer gertatu zen", adierazi du Edurne Alberdi zinegotziak.

**KIROLA** > FRONTENISA

## Frontenisko bost partidu jokatuko dituzte zapatuan

**O.E.** > ELGETA
Herriko frontenis txapelketako bost partidu jokatuko dituzte bihar, zapatua.

Gizonezkoetan hamar bikotek eman dute aurten izena. Deialdiak arrakasta txikiagoa izan du emakumezkoen artean; izan ere, bikote gutxik eman dute izena, hiru bikotek baino ez. Horiek bi buelta jokatuko dituzte elkarren kontra.

Txapelketako finalak Aste Santua baino astebete lehenago izango dira. Finalaurrekoak martxoaren 20an jokatuko dituzte eta finalak, berriz, astebete geroago, martxoaren 27an.

### Partiduak

**Zapatuan, hilak 23, 16:30ean**

1. Adrian Gorostiza - Asier Osoro / Eñaut Arantzeta - Haritz Gallastegi
2. Iban Retolaza - Xabier Ubera / Mikel Mandaluniz - Julen Barrutia
3. Sergio Bouzas - Mikel Arkarazo / Oskar Sarasua - Santi Dosuna
4. Asier Unzebarrenetxea - Asier Morales / Eneko Magureki - Andoni Elortza
5. Izaskun Ojanguren - Nagore Ojanguren / Nagore Morales - Beatriz Zabala

**Joan den asteburuko emaitzak, hilak 16 eta 17**

1. Asier Osoro - Adrian Gorostiza 25 / Mikel Mandaluniz - Julen Barrutia 7
2. Mikel Mandaluniz - Julen Barrutia 21 / Eneko Maguregi - Eneko Elortza 25
3. Sergio Bouzas - Mikel Arkarazo 15 / Eneko Maguregi - Andoni Elorza 25
4. Oskar Sarasua - Santi Dosuna 13 / Odei Zenitagoia - Mikel Beretxinaga 25
5. Asier Untzetab. - Asier Morales 25 / Josu Arantzabal - Eneko Ojanguren 20
6. Eñaut Arantzeta - Haritz Gallastegi 25 / Iban Retolaza - Xabier Ubera 12



ANA GILLEGI

## San Sebastian eguna ospatu dute aurten ere

Aurten ere San Sebastian eguna ospatu dute herriko haurrek zein helduek. Eskolako umeek San Sebastian martxa jo dute danborrekin eta San Sebastian kofradiako kideek, berriz, nobleen egunari eutsi diote beste behin. Aurten, gainera, umeek Sarriegiren doinuarekin eta danbor hotsekin lagundu diete kofradiako kideei elizaraino. Behin hara iritsita, urteroko meza egin dute kofradeek; 26 aurten. Meza ostean, nobleen ereserkia abestu dute eta urteko batzarra egin dute. Bazkaria urtero herriko taberna ezberdin baten egitea erabaki zuten duela bi urte, eta aurten Ostatua jatetxean egin dute.

> INGURUGIROA

### Beira nola birziklatu erakusteko karpa jarriko dute plazan

Beira birziklatzea sustatzeko karpa jarriko du Debagoieneko Mankomunitateak gaur, egubakoitza, herriko plazan. Pantaila baten, beiraren birziklapen prozesua nolakoa den ikusi ahal izango dute herritarrek; eta bestetik, lau jolas ere egongo dira, nahi duenak jolas egiteko. Parte hartzen duten guztiek oparia jasoko dute.

Abenduaren 18an jarri behar zuen karpa hori Mankomunitateak, baina elurteagatik urtarrilera arte atzeratu zuten.

> OSASUNA

### Podologoak hilaren 28an izango du kontsulta

Podologoak datorren eguenean, hilak 28, pasako du urtarrileko kontsulta, arratsaldeko hiruretan.

Podologoarengana joan gura duen herritarrak, ordea, txanda hartu beharko du, bezero kopuru jakin bat baino ezin baitu hartu kontsulta bakoitzean. Gehienez, 22 lagun hartuko ditu eta interesa duenak aurrez izena eman behar du. Horretarako, Nati Arrietari esan edo deitu behar dio. 943 76 80 77 da telefono zenbakia.

> KINTADA

### Bazkaria egingo dute 1979ko kintoek hilaren 30ean

1979. urtean jaio ziren elgetarrek bazkaria egingo dute urtarrilaren 30ean, hileko azken zapatuan. Joan gura duenak izena eman behar du Espaloia kafe antzokian. 1979an jaiotako 15 lagun daude erroldan izena emanda eta guztiak daude bazkarira gonbidatuta.

Bazkaria Eibarko Artola jatetxean egingo dute eta hara joateko hitzordua eguerdian da Espaloian, 12:30ean.

Aperribay, s.l.
Marmoldegi eta granitoak
Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

**Manex Agirre** > Zuiako Koadrilako Euskara teknikaria

# "Euskarazko baliabideen kopuruak gora egin du, baina propaganda egin behar zaie"

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

**Zuiako Koadrilak *Euskararen gida* kaleratu du eta, besteak beste, euskaraz bizi ahal izateko baliabideen berri ematen da bertan. Manex Agirre aramaioarra Zuiako Koadrilako Euskara teknikaria da eta gidaren gaineko xehetasunak azaldu dizkigu.**

**Zergatik *Euskararen gida*?**

Zuiako Koadrilan euskal hiztunen kopuruak gora egin du, eta euskarazko baliabideen kopuruak ere bai. Baina uste dugu baliabide horiek askotan ez direla topatzeko errazak, edo propaganda apur bat egin behar zaiela.

**Euskal hiztunen kopuruak gora egin duela diozu. Daturik ematerik bai?**

Dauzkagun datu ofizialak Eustatek 2006an kaleratutako datuak dira. Zuiako Koadrila osorik hartuta, euskaraz dakitenak %40 dira eta euskalduntze prozesuan daudenak, %20. Hori, ezagutzari dagokiona. Erabilera, noski, txikiagoa da: Araban biztanleriaren %4 inguru eta Zuiako Koadrilan ere antzera, Aramaion eta Legution izan ezik; horietan erabilera handiagoa da.

**Euskararen erabilera sustatzea izango da gida horrekin lortu nahi den beste helburuetako bat, ezta?**

Bai. Gida horretan baliabideen zerrenda egiten da eta tartean badaude euskalduntzeko bideak: euskaltegien helbideak, udalek euskara ikasteko eskaintzen dituzten dirulaguntzak, erabilerarako aholku batzuk, abizenak euskalduntzeko aholkuak… Oso gauza txikiak dira, baina guztiak ere, helburu bera lortzeko asmoarekin: euskaraz bizi ahal izatea, hain zuzen ere.



Manex Agirre, zuiako kuadrilako euskara teknikaria. ZUIAKO KOADRILA

**Euskarazko hedabideen zerrenda ere badago…**

Bai. Horri, gainera, garrantzi handia eman nahi izan zaio. Argi dago komunikabideen presentzia gero eta handiagoa dela. Araban euskara hutsean lan egiten duten hedabideak gutxiengoa dira, baina euren lekua daukate, eta gero eta handiagoa, gainera. Informazioa euskaraz jaso nahi duenak badu aukera hori, eta gida horretan aukera horien berri ematen da.

**Gurasoek seme-alabei euskaraz hitz egitearen garrantziaz ere ohartarazten duzue.**

Argi daukagu euskararen normalizazioa epe luzerako lana dela eta belaunaldi askok pasatu beharko dutela benetako normalizazio horretara iristeko. Garrantzitsua da datozen belaunaldiekin lan egitea. Guretako oso garrantzitsua da hizkuntzaren transmisioa, eta hori errazteko aholku batzuk ere sartu ditugu gurasoendako.

**Non eskura daiteke gida?**

Gidaren ale bana banatu dugu Zuiako Koadrilako etxebizitza guztietara. Bestalde, Zuiako Koadrilako webgunean gidaren *pdf*-a jarriko dugu, edozeinek deskargatzeko moduan; udal webguneetan ere badago eta Zuiako Koadrilan ere eska daiteke gida.

**ARAMAIO** > HIRIGINTZA

# Madrilgo arkitektoen proiektuen aurkezpena

Martitzenean, 19:00etan, Sastiñan aurkeztuko dituzte ikasleen lanak

A.B. > ARAMAIO

Madrilgo San Pablo CEU unibertsitateko Arkitekturako ikasleak Aramaion izan ziren urrian. Orduan jasotako informazioarekin, etorkizuneko Aramaio irudikatzeko proiektuak garatu dituzte; ideia politak landu dituzte. Proiektu batek, esaterako, Aramaion unibertsitate-campus bat kokatzea proposatzen du eta beste batek astronomia behatoki bat. 40 proiektu inguru egin dituzte eta horietatik hamar ekarriko dituzte Aramaiora. Martitzenean, hilak 16, aurkeztuko dituzte proiektuok. Arabarrik bultzatutako ekimena izanda, Arabarriko ordezkariak etorriko dira Aramaiora, baita San Pablo CEU unibertsitateko irakasleak ere. Goizean udal ordezkariekin bilera egingo dute eta arratsaldean jendaurrean azalduko dituzte proiektuak Sastiñan egingo den ekitaldian. Otsailaren 12ra arte Sastiñan ikusgai egongo dira Madrilgo ikasleen lanak.

**LEINTZ GATZAGA** > ZERBITZUAK

# Zaborra, etxeko olioa eta traste zaharrak iaz legez jasoko dituzte

Baserrietan sortutako plastikoa jasotzera etorri gura izanez gero aurrez jakinarazi behar dute gatzagarrek Landa Garapen Elkartean

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Urte berriarekin lehengo zerbitzuak abian. Hala, bada, zaborra, traste zaharrak eta etxean erabilitako olioa jasotzera lehen legez etorriko dira Gatzagara. Eta zerbitzu horiek ez dute izango igoerarik 2010ean –iaz %24 artekoa izan zuen zaborrak–.

**PUNTU BERDE MUGIKORRA**

Zaborra martitzen, eguen eta domeka gauetan jasotzen dute eta arduradunek gogorarazi dute zabor poltsak 20:00ak eta 22:00ak bitartean bota behar direla herriko edukiontzietara. Traste zaharrak jasotzera eguenetan etorriko dira, baina horretarako aurrez jakinarazi behar da telefonoz deituta (943 71 19 38). Gainera, gogorarazi dute trasteok ez jartzeko edukiontzien babesean, egun berean pasatzen da-eta zaborra jaso behar duen kamioia.

Puntu Berde Mugikorra, ostera, hilabetean bi aldiz izango da herriko plazan; astelehenetan, hain zuzen (13:30-14:30). Eta bertan dagoela jakinarazteko megafonia bidez deituko diete herritarrei. Puntu Berde Mugikorrak edozein tokitan bota ezin daitezkeen hainbat gai jasotzen ditu: etxean erabilitako olioa, fluoreszenteak eta likidoak diren hondakin arriskutsuak –pinturak, disolbatzaileak, pestizidak…–. Horiek guztiak ontzi egokian sartuta utzi behar dira. Beste erabateko hondakinak izanez gero –etxetresna elektrikoak, egurrezko altzari eta materialak, bizikletak…–, garbiguneetara bideratu behar dira –Arrasaten, Bergaran eta Oñatin daude guneok.

**PLASTIKO BILKETA**

Bestalde, baserri inguruan sortutako plastikoa –siloko plastiko beltza, berotegi eta ortuetako plastikoak…– jasotzeko zerbitzua eskaintzen du Debagoieneko Landa Garapen Elkarteak. Urtarrilaren 26an hasi eta hilean behin pasatuko dira –apirilean, ekainean, abuztuan eta urrian izan ezik–. Gatzagara, baina, ez dira etorriko hilero. Norbaitek interesa izanez gero, eskaera egin beharko du Landa Garapen Elkarteko bulegora deituta: 943 76 25 47. Eta halakoetan erabilitako plastikoa Dorletako bidegurutzean utzi beharko dute.



M.A.

## Danborrak astindu eta astindu

Gatzagako neska-mutikoek ere gogoan izan zuten Sebastian santua eta danbor hotsekin ospatu zuten eguna eguazten arratsaldean. Txikienek Gatzagan bertan egin zuten danborrada iaz, baina aurten Eskoriatzako Luis Ezeiza ikastetxekoekin bat egitea erabaki dute eta pilotalekuan elkartu ziren guztiak.

Sukaldarien kapela dotoreak buruan, amantalak aldean eta danborrak gerrian zituztela, bikain astindu zituzten atabalak txikienek ere guraso eta senideen aurrean.



Mikel Gonzalezek hilabeteak daramatza Donostian bizi izaten: "Baina jaiegun bat daukadan bakoitzean Arrasatera joaten naiz, herrira". XABIER URTZELAI

**Mikel Gonzalez** > Realeko jokalaria

# "Bide erdia egin dugu, baina ez gehiago; beste erdia geratzen da, 22 partidu"

XABIER URTZELAI > DONOSTIA

**Irailean, ikasturteko lehenengo GOIENKARIAn batu genituen *Gaztelu* eta Mikel Gonzalez, Realeko lehena eta oraina. Lehenengo partidua berdindu egin zuten, eta kopatik kanporatu berri zegoen taldea. Lau hilabete geroago bestelakoa da egoera, Reala liderra da-eta. Donostian, Kontxako badian erantzun ditu Arrasatekoak galderok, danbor hots artean. Dagoeneko egin dugu hurrengo elkarrizketarako hitzordua, ekainean, lehenengo mailan daudenean...**

**Ikasturte hasieran esan zenuen Realaren 100. urteurrena ospatzeko modurik onena kategoriaz igotzea izango zela. Bidean zaudete.**

Bai, bidean gaude, baina jokalariak behin eta berriro ari gara esaten oraindik asko geratzen dela. Eta bai, gogoan dut esandakoa, baina orduan ere esan nuen Realak 99 urte izanda ere urte ederra izango litzatekeela igotzeko.

**Kontxako badian gaudela, lehenengo maila ikusten duzu horizontean?**

Bai, ikusten dut, bai, eta itsasoko hotsa entzun ere bai [Barre]. Bai, hor aurrean dugu, hori da urteko helburu nagusia, eta, poliki-poliki geroago eta gertuago ikusten badut ere, oraindik urrun dago.

**Maratoiko kilometro gogorrenak geratzen dira oraindik.**

Bai, inoiz ez dugu-eta jakiten zenbat puntu beharko diren kategoriaz igotzeko. Iaz Herculesek 78 puntu batu zituen eta ez zen mailaz igo, baina uste dut aurten puntu kopuru hori nahikoa izango dela. Guk dagoeneko 42 puntu ditugu, egin dugu lan erdia, baina, beste erdia egiten ez badugu, orain artekoak ez du ezertarako balioko.

**Liga hasieran zalantza handiak zeuden: entrenatzaile berria, jokalari berriak, etxekoak asko gazteak...**

Kopatik kanporatu gintuztenean azaleratu ziren berriro ere azken urteotako zalantzak, ea kategoriaz igotzeko taldea ba ote genuen... Gero, emaitza onak etorri ziren, puntuak batzen hasi ginen, etxean indartsu jokatzen, eta orain une gozoan gaude.

**Eta zalantzan zegoen, baita ere, Castillo eta Diaz de Zerio joan eta gero, kontratua berritu behar zenutenok zer egin behar zenuten.**

Jendeak zalantza horiek izatea ere normala zen. Baina nik uste dut kontratua berritu dugunok izan dela proiektu serioa ikusi dugulako, proiektu horretan parte hartu nahi dugulako.

**Horrenbestez, ez zara hartutako erabakiaz damu.**

> **"Kontratua berritu dugunok izan da Realean proiektu serioa ikusi dugulako"**

> **"Ondo zaindu behar da laugarren sailkatua non dagoen, oraingoz hamar puntura"**

Ez, ez. Jokalari guztion ametsa da maila gorenean jokatzea, bistakoa da hori, baina Realearekin bada, hobeto.

**Inor ez da gogoratzen Castillo eta Diaz de Zerioz. Seinale ona hori.**

Xabik eta Iñigok oso lan ona egin zuten Realean, eta, hain zuzen, horregatik izan zuten lehen mailako taldeen eskaintza. Baina bai, taldeak ez du euren hutsunerik igartzen, eta futbolari dagokionez, seinale ona da.

**Ligan, Hercules bakarrik da gauza zuen erritmoari eusteko.**

Oraingoz bai, eta ondo zaindu behar dena da laugarrenarekiko ze distantzia dugun –egun, 10 puntuko aldea du Realak–; izan ere, hiru taldek lortuko dute kategoriaz igotzea. Bagenekien Hercules hor egongo zela, iaz oso urte ona egin zuen-eta, baina sorpresa izan zen lortu zuten puntu kopuruarekin ez igotzea.

Baina indartsuetako batzuk orain hasi dira azaleratzen eta urte amaieran ez da ezustekorik egongo. Gutxi gorabehera, badakigu zeintzuk egongo diren gurekin batera aurrean: Numantzia, Betis, Rayo, Hercules... Akaso, Cartagenak emango du sorpresa.

**Zuk esan duzu bigarrena zaindu beharrean garrantzitsuagoa dela laugarrena non dagoen zaintzea.**

Hala da, eta Numantziarekiko alde polita dugu. Hilabete oso ona egin beharko lukete eurek, eta guk oso txarra, berriro parean egoteko.

Baina oraindik 22 partidu geratzen dira, bigarren itzuli osoa, eta kontrario zuzenak izango ditugu aurrean. Baina bai, hamar puntu *koltxoi* polita da; ea nahikoa den...

**Domekan, Elxen kontra jarrai dezala San Sebastian jaiak.**

Bueno, jarrai dezala Realak martxa ona; izan ere, donostiarrendako jai oso garrantzitsua da, baina arrasatearrok jai hau ez dugu oso modu berezian jarraitzen, ala? Neuk ez, behintzat. Dena dela, polita da Donostian egoten den giroa.

> FUTBOLA

## Aretxabaletak liderraren zelaian du hitzordua

Aretxabaletak Amorebietan jokatuko du zapatu arratsaldean, liderraren zelaian. Lehenengo itzulian talde horrek ezustekoa hartu zuen Ibarran, eta orain ere gauza bera egiteko asmoarekin abiatuko dira Bizkai aldera Gordobilen mutilak.

Lehen nazional mailan dabilen gazte mailako taldeak, berriz, etxean jokatuko du Antiguokoren kontra (zapatua, 17:45). Zazpigarren dago UDA.

> FUTBOLA

## Bergarak eta Aloña Mendik jokatuko dute etxean

Ligako 19. jardunaldian etxean jokatuko dute joan den astean puntu bana batu zuten Bergarak eta Aloña Mendik. Mahoneroek seigarren postuan dagoen Ordiziaren bisita izango dute bihar arratsaldean Agorrosinen (16:00) eta Aloña Mendik liderra izango du Azkoagainen, Zarautz (domeka, 16:30).

Mondrak, azkenik, hirugarren postuan dagoen Pasajesen zelaian jokatuko du.

**ESKUBALOIA** > LAGUNARTEKO PARTIDUA

# Asobal ligako Arrate eta San Antonio bihar Oñatin

### Lagunarteko partidua 18:30ean hasiko dute eta sarrera 5 euro izango da

**XABIER URTZELAI** > OÑATI

Azken urteotako hitzorduari kale egin barik, eta selekzioak Austrian jokatzen dabiltzan Europako txapelketari esker –eta Aloña Mendiren lanari esker–, Asobal ligako bi talde izango dira zein baino zein gehiago bihar Oñatin (Zubikoa, 18:30). Arratek eta Reyno de Navarra San Antoniok jokatuko dute lagunarteko partidua, ligan duten atsedenaldian jokalariek gorputzaldia eta jokointentsitatea gal ez dezaten.

Eibarko taldea behin baino gehiagotan izan da gurean, eta oraingoan errebantxa hartu nahiko dute, iaz Zubikoan Ademar Leon taldea izan zutelako aurrean, eta Leongoek ondo erakutsi zutelako zergatik izan ziren, besteak beste, kopako irabazleak. Arratek ezin izan zuen Leongo kontrarioaren aurrean ezer egin (27-35).



Arrate eta Ademar Leonen artekoa, iazko urtarrilean Oñatin. ARTXIBOA

## asteburuko hitzorduak

### FUTBOLA

**Bigarren maila**
Reala-Elx
Domeka. 17:00. Anoeta.

**Hirugarren maila**
Amorebieta-Aretxabaleta
Zapatua. 17:00. Urrixe.

**Gazteen liga nazionala**
Aretxabaleta-Antiguoko
Zapatua. 17:45. Ibarra.

**Gazteen euskal liga**
Zarautz-Bergara
Zapatua. 15:45. Asti.

**Ohorezko erregiona maila**
Aloña Mendi-Zarautz
Domeka. 16:30. Azkoagain.
Bergara-Ordizia
Zapatua. 16:00. Agorrosin.
Pasajes-Mondra
Zapatua. 16:30. Errenteria.

**Erregional preferentea**
Antzuola-Lagun Onak
Zapatua. 16:00. Estala.
Urola-Aretxabaleta
Zapatua. 16:00. Argixao.

**Lehen erregionala, igoera fasea**
Amaroz-Bergara
Zapatua. 15:30. Tolosa.
Mondra-Intxurre
Zapatua. 16:00. Mojategi.

**Lehen erregionala, kopa**
UDA Arizmendi-Danena
Domeka. 16:30. Ibarra.

**Gazteen ohorezko maila**
Ilintxa - Aloña Mendi
Zapatua. 18:00. Bikuña.
Mondra-Sporting Herrera
Domeka. 16:30. Mojategi.

**Gazteen lehen maila, igoera fasea**
Aretxabaleta Ariz.B - Urnieta
Zapatua. 15:30. Irun.

**Gazteak, kopa**
Begara-Arizmendi
Zapatua. 18:00. Ipintza.

**Emakumezkoen igoera fa.**
Zumaiako-Mondra
Zapatua. 18:30. Zumaiai.
Lagun Onak-Arizmendi
Zapatua. 16:30. Garmendipe.

### SASKIBALOIA

**Lehenengo maila**
Cafes Aitona-MU
Zapatua. 18:00. Donostia.

**Senior autonomikoa**
Suelbat-Aloña Mendi
Zapatua. 18:20. Bilbo.

**Gipuzkoako seniorrak**
Soraluce BKE-Leihoak Zarau.
Zapatua. 16:00. Labegaraiet.
Biok Zerbitz.-Soraluce BKE
Gaur. 20:00. Ordizia.
Gabi jatetx.-Aloña Mendi
Domeka. 12:00. Elgoibar.
Ruibal - MU
Zapatua. 16:30. Eibar.
Katu Kale - Soraluce BKE
Zapatua. 16:30. Eibar.

**Senior emakumezkoak**
Eskoriatza-Añorga
Zapatua. 18:00. Intxaurt.

**Gazte gizonezkoak.**
Soraluce BKE-Zast Zarautz
Zapatua. 12:15. Labegaraiet.
MU-B - Andraitz
Domeka. 11:45. Musakola.

**Gazte emakumezkoak.**
Eskoriatza-BeraBera
Zapatua. 16:00. Eskoriatz

**Kadete gizonezk.**
MU A-Krafft Atco.
Zapatua. 12:00. Zarautz.
MU B-Colchones Atsed.
Domeka. 09:45. Musakola.
Aloña Mendi-EPI Crist.
Zapatua. 11:45. Zubikoa.
Colch. Atsed.-Aloña Mendi
Osti. 18:00. Ordizia.

**Kadete emakumezkoak**
Hierros Mavi-Eskoriatza
Gaur. 17:30. Urretxu.
Andraitz-Aloña Mendi
Zapatua. 11:00. Bikuña.
Soraluce BKE-Ariz-Eskori.
Domeka. 12:15. Bergara.
Colch. Atseden-Arizmendi
Gaur. 18:00. Ordizia.

### ESKUBALOIA

**Asobal mailako taldeen lagunarteko partidua**
Arrate-Reyno de Navarra
Zapatua. 18:30. Zubikoa.

**Euskadiko seniorrak, giz.**
Usurbil-Ford Mugarri
Zapatua. 19:00. Usurbil.

**Euskadiko senior, emak.**
Eibar-Verkol Aloña
Zapatua. 14:00. Elgoibar.

**Euskadiko kadeteak, ema.**
IMH Elgoibar-Verkol Aloña
Zapatua. 12:30. Olaizaga.

**Lehen territorial maila**
Izarrai. Aloña-Decotena
Zapatua. 16:00. Zubikoa.
Izarraitz Aloña-Donibane
Domeka. 12:00. Zubikoa.
Soraluce BKE-Irungo gazt.
Domeka. 12:15. Labegarai.

**Bigarren territoriala**
Amenabar-Arrasate
Domeka. 13:00. Zarautz


MATRIKULAZIORAKO INFORMAZIO BILERAK

2-12 urte bitartekoentzat
Urtarrilaren 27an, euskeraz 18:00etan
eta gaztelaniaz 19:00etan.

KURTZEBARRI

12-16 urte bitartekoentzat
Otsailaren 2an 18:00etan.



- Ikasten ikasteko,
- Egiten ikasteko,
- Elkarrekin bizitzen ikasteko,
- Norbera izaten ikasteko,



Telefonoa: 943 79 00 49 / Faxa: 943 79 38 06
e-maila: *kurtzebarrieskola@euskalnet.net*

*Egutegi eta ordutegi zabala ( uztaila...)*
*Goizeko eta arratsaldeko zaintzak.*

goieskola
debagoieneko euskal eskola publikoa

*Zatoz Gurera!*

... Euskara eta Euskal kulturaren jabekuntza eta bizipena bide, Mundura begira.

Telefonoa / Faxa: 943 79 57 40
e-maila: *012945aa@hezkuntza.net*

baikara
Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa

# Debagoieneko **GREMIOAK**



## AROZTEGIAK

**AZKARATE AROZTEGIA**
Bergara
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
• K-21
Telleria 19 B02-B03
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
www.goiena.net/blogak/azkarate

## ELEKTRIZITATEA

**AITZORROTZ ELEKTRONIKA**
Aretxabaleta
• Telebista, audio eta bideoa Salmenta eta konponketa
• Instalazio elektrikoak
• Atezain automatikoak
• Antena kolektiboak
Otalora 14
T: 943 79 16 10
F: 943 79 16 10

**ARANZABAL KOOP. E.**
Arrasate
• Instalazio elektrikoak
• Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
F: 943 79 68 21

## ERAIKUNTZAK

**ARRASATE ERAIKUNTZAK SL**
Arrasate
Meatzerreka auzoa
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
e.arrasate@euskalnet.net

**FRIXI ERAIKUNTZAK**
Eskoriatza
• Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
• Kontratak
• Enpresen mantentze-lanak
Intxartxueta 5
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
F: 943 71 55 15

## ITURGINTZA

**EGIA ITURGINTZA**
Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
T: 943 77 01 85

**IMANOL ITURGINTZA**
Arrasate
• Iturgintza
• Berogailua eta gasa
• Bainugelak
Kale Txiki 9 behea
Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

**OYANGUREN ITURGINTZA**
Eskoriatza
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
T: 943 71 47 14 / 606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

**TXORROTA**
Arrasate
• Berogailua eta gasa
• Galdarak aldatzea
• Obra integralak
• Zaharberritzeak
Bolibar doktorea 5, behea C
Tel: 943 77 17 13 / 607 26 04 17
F: 943 77 17 13

**URKO MANTENIMIENTO SL**
Aretxabaleta
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
T: 943 77 19 88
F: 943 79 59 97

**VALES ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Hargintza lanak
• Bainugelako altzariak
• Berogailuak
• Erretenak ipini eta garbitzea
Santa Kurtz 7, 3. ezk.
Tel.: 620 178 046

## LEIHOAK

**ARGI-PLASTIK**
Arrasate
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko leihoak
• Poliuretanozko leihoak
Zigarrola 1- 8 pab.
Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18
F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

**ION LEIHOAK**
Arrasate
• Metal aroztegia, PVC eta aroztegia
Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia
T: 943 79 11 35
F: 943 77 31 20

**YOSU THERMIK**
Arrasate
• Lehio eta ate isolatzaileak
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko lehioak
• Aroztegi mistoa (aluminio-egurra)
Kataide poligonoa 4 Pab.
Tel: 943 77 01 57
F: 943 77 03 21

**IZBAR**
BERGARA
• Leiho eta ate isolatzaileak
• Aluminio termikoak, PVC mota ezberdinak
• Kontraleiho errustikoak eta mallorkinak
• Horma apaingarriak barrualderako eta imitazioak harri eta marmolean.
San Lorentzo industrialdea,
Urarte kalea 20
Tel: 943 79 69 91

## LOREZAINTZA

**MAKAI KOOP. ELKARTEA**
Aretxabaleta
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

## MARGOAK

**APAIN MARGO ETA APAINKETA**
Arrasate
• Pintura orokorrean
• Pareztatzeak
• Errotulazioa
Maitena 3-1.
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.



> ANTZEZLANA
Galiana eta Ozores, 'Desnudos en Central Park'-ekin Espaloian > 32



> ERAKUSKETA
Jesus Mari Lazkanok Bilbon erakutsiko du urrian > 32

> LEZURI ORMAZABAL
Arte Ederrak ikasten dihardu 23 urteko oñatiar horrek, eta birritan irabazi du Obra Multiple UPV/EHU saria > 35



# Aretxabaleta abesbatzak DVDan bilduko du 30 urteko ibilbidea

**MATERIALA**
Argazki zaharrak eta taldeko kideen hitzak batuko dituzte

**DISKOA**
Nemesio Otaño jesuitaren kantuekin diskoa grabatuko dute



Aretxabaleta abesbatzako kideak martitzeneko entseguan; buru-belarri dihardute diskorako kantuak prestatzen. GOIENKARIA

MIREIA BIKUÑA > ARETXABALETA

Aretxabaleta abesbatzak 1979an egin zuen lehen emanaldia San Jose eguneko meza nagusian. Gizonezkoek osatzen zuten taldea. Ordutik hona 30 urte pasa dira, eta horrekin batera, mila istorio. Horiek guztiak batuko dituzte 30. urteurreneko DVDan.

Uztailean egin zuten dirulaguntza eskaera Foru Aldundian, eta orain jaso dute baieztapena. Lanean hasi dira dagoeneko: abesbatzaren argazki zaharrak batu dituzte. Era berean, protagonisten hitzak jasoko dituzte. Ekainerako aurkeztu gura dute. "Lan gogorra dugu aurretik, baina merezi du. Epeak betetzen baditugu, ekainean aurkeztuko dugu DVDa Aretxabaletan egingo dugun kontzertuan", esan digu taldeko zuzendari Angel Barandiaranek.

**DISKOA AZKOITIAN**

Baina uda aurretik beste lan batekin ibiliko dira buru-belarri. Ez dauka 30. urteurrenarekin zerikusirik, baina diskoa grabatuko dute. "Jesuitek egindako eskaerari erantzunez, Nemesio Otaño konpositore azkoitiarraren kantuak grabatuko ditugu. Kasualitatez, abesbatzaren 30. urteurrenarekin aldi berean gertatu da", dio Barandiaranek.

Diskoa maiatzean grabatzen hasiko dira Azkoitiko parrokian, eta, Otañoren kantuez gain, Felix Zabala eta Jose Ignacio Prieto jesuiten piezak ere grabatuko dituzte. Massana italiarraren kantu bat ere abestuko dute. Era berean, Jose Luis Frantzesena organo-jotzaileak parte hartuko du diskoaren grabazioan.



Joan Paulo II.a aita santuak harrera egin zien 1986an. ARETXABALETA ABESBATZA

**VATIKANOAN, LEHENAK**

Aretxabaleta abesbatzak txapelketa askotan parte hartu zuen hasierako urteetan. Tolosako nazioarteko txapelketan bost aldiz lehiatu zen, eta guztietan jaso zituen sariak: besteak beste, 1985ean eta 1987an urrezko domina jaso zuten gregoriano estiloan. Bestalde, 1988an lehenengo saria irabazi zuten San Vicente de la Barquerako (Kantabria) txapelketan.

AEBetan, Frantzian eta Italian birak egin zituzten. 1986an Vatikanoan abestu zuten, eta Joan Paulo II.a aita santuak harrera egin zien. "Damaso Zuazua aretxabaletarraren bitartez joan ginen. Cassimiriren meza abestu genuen bost ahots mistorekin. Elizkizunaren bukaeran txalo zaparrada jaso genuen. Gu izan ginen Vatikanoan abestu duen lehen euskal abesbatza. Oso harro gaude", dio Barandiaranek.

Angel Barandiaran > Zuzendaria

## "Herritarren eratzuna ona izan da beti; 150 bat lagun pasa dira taldetik"

M.B. > ARETXABALETA

**Angel Barandiaran (Aretxabaleta, 1944) Aretxabaleta abesbatzako zuzendaria da 1981a ezkero. Denbora luzea eman dio taldeari, baina trukean jaso duena "askoz gehiago" izan dela esan digu.**



MIRARI ALTUBE

**29 urte beteko dituzu zuzendari. Ze oroitzapen dituzu?**

Asko, eta oso onak. Herritar asko pasa dira abesbatzatik. Kide batzuk hasieratik daude gurekin. Egun, 35 kide gara taldean, baina 30 urtean 150 bat lagun pasa dira. Herritarrek ondo erantzun dute beti.

**Erraza da gazteengana heltzea?**

Ez. Gazte batzuk animatu egin dira eta gurekin jarraitzen dute, baina gazte gehienek bestelako musika dute buruan.

**Uda aurretik lanpetuta ibiliko zarete.**

Lan handia dugu, baina, betiko moduan, umore onez eta gogoarekin egingo dugu. Familia bat gara eta oso gustura gabiltza.




Jose Ramon Soroiz, Joseba Apaolatza eta Jabier Mugurutza dira *Aitarekin bidaian* antzezlaneko protagonistak (ezkerrean). *Desnudos en Central Park* antzezlana (eskuman) Elgetan ikusteko aukera dago gaur. GOIENKARIA

**ANTZERKIA** > DEBAGOIENA

'Desnudos en Central Park' antzezlaneko bi saio izango dira gaur, egubakoitza, Elgetan

Domekan, Hika taldearen 'Aitarekin bidaian' Arrasateko Amaia antzokian eta 'Arrastoa' Oñatin, Santa Anan

# Hitzordu hirukoitza asteburuan antzerkia gustuko dutenendako

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Aukera zabala izango dute ibarreko antzerkizaleek oraingo aste bukaeran: gaur, egubakoitza, *Desnudos en Central Park* antzezlanaren bi emanaldi (20:00etan eta 22:30ean) izango dira Elgetan. Emma Ozores eta Manuel Galiana ezagunak dira errepartoaren buruan. Mark Rowell da egilea eta Gerry idazlearen (Manuel Galiana) istorioa kontatzen zaigu. Bere garaian oso idazle famatua eta entzutetsua bazen ere, gaur egun inor ez da akordatzen harekin eta, horrela, zalaparta ateratzeari ekingo dio, lehen planora itzultzeko. Prentsa arrosa deiturikoari kritika egiten dio gaur Elgetan ikusgai izango den antzezlanak. Espaloiak abian jarritako promozioari esker, bi sarrera baten prezioan (15 euro eta 12 leihatilan) eskuratu ahal izango dira.

**INTRIGAZKO LANA OÑATIN**

Domekan, hitzordu bikoitza izango da. Txalo taldeak joan den egubakoitzean Donostian estreinatutako *Arrastoa* antzezlana ekarriko du Oñatiko Santa Ana antzokira, 19:30ean. Anthony Shaffer idazlearen *Sleuth* lan ezagunaren euskarazko bertsioa da *Arrastoa*. Jende askok Joseph L. Mankiewicz zuzendari handiak filmatu zuen azken lana izango du gogoan, *La huella* (1972), non Laurence Olivier eta Michael Caine aktoreak ziren protagonista nagusiak. Komedia kutsua duen intrigazko lana da eta Txaloren produkzioan Ramon Agirre eta Asier Hormaza dira eszenatokian. Trikimailuz betetako borroka dialektikoa mantenduko dute ordu eta erdiz. Sarrerak 10 eurotan salgai daude Oñatiko kultura etxean.

**'AITAREKIN BIDAIAN' ARRASATEN**

Arrasaten, berriz, Hika taldearen *Aitarekin bidaian* antzezlana ikusteko aukera izango da domekan Amaia antzokian, 19:30ean. Arantxa Iturbek eta Agurtzane Intxaurragak idatzitakoa da eta urriaren 15ean izan zen estreinaldia, Durangon. Agurtzane Intxaurragaren hitzetan, "Arantxarekin egoterakoan, askotan gure nagusiei buruz jarduten genuela ohartu ginen eta horrela sortu zen ideia. Ezagutzen dituzun egoeren gainean idazten duzu normalean eta nire kasuan aita 13 urtez gaixo izan nuen... Zahartzaroaren eta inkomunikazioaren gaineko lana da, ikusleen barrenak astintzen dituen horietakoa". Jose Ramon Soroiz eta Joseba Apaolaza *aitasemeekin* batera, Jabier Mugurutza musikari eta antzezle lanetan dugu. Sarrerak, 10 eurotan.




**MARGOAK** > ERAKUSKETA

## Lazkanoren erakusketa Bilbon urte amaieran

**E.M.** > BERGARA

Jesus Mari Lazkano margolariak (Bergara, 1960) *Arkitekturatik naturara* izenburuko erakusketa jarriko du urte amaieran Bilboko Arte Eder Museoan. Gaur egun Leioako Fakultatean irakaslea da Lazkano, eta 1980ko hamarkadaren hasieran ekin zion ibilbide artistikoari. Urriaren 10ean zabalduko duten erakusketak Lazkanoren ibilbideari gainbegiratua egingo dio, eta, horretarako, neurri ertain eta handiko 70 koadro inguru eta marrazkien aukeraketa bat izango dira ikusgai, 2011ko urtarrilaren 16ra arte.



Jesus Mari Lazkano. GOIENKARIA

> ELGETA

## 'Herrixa dantzan' dantzaldi irekiak hilero Espaloian

Hurrengo domekan, urtarrilaren 31n hasita, *Herrixa dantzan* dantzaldi irekia egingo dute Elgetako Espaloia kafe antzokian. Patxi Montero dantza gidariaren eskutik, Euskal Herriko eta Europako dantza tradizional ludikoak ikasteko aukera izango da.

Saio gehienak grabatutako musikarekin izango badira ere, martxoaa Jainaga eta Narbaiza erromeria bikoteak alaituko du. Hileroko azken domekan izango dira saiook, Espaloia kafe antzokian, 19:00etatik 20:30era, eta ez dago aurrez izena eman beharrik.

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada giro!

Arlutz taberna
TABERNA ARLUTZ
Gustuko musika
Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

Anduaga Jatetxea

Eguneko menua | Bokatak
Plater konbinatuak | Errazioak
Araba Ibilbidea 31, behea | Aretxabaleta | 943 79 96 54



DORLETA TABERNA
Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15 ARETXABALETA

OTZETA JATETXEA

Aranburuzabala 9 ESKORIATZA Tel.: 943 71 31 67

BASABE


Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 77 31 19

HIRUSTA JATETXEA

Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57


Matikua jatetxea
Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68



Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64

IOSU
taberna
harategia
Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak
Mitarte 1
Tel.: 943 77 03 08


# IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

*sailkatuak@goiena.com* edo *www.goiena.net/sailkatuak*

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
**ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU/ALOKATU.**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 20 € (BEZ BARNE).**
Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola** Sagasti auzoan 90 metro koadroko etxea salgai edo errentan: 3 logela, 2 bainugela, 2 balkoi, sukaldea, egongela eta despentsa. Igogailua eta garaje itxiarekin. Jantzita. 687 11 07 21 edo 617 00 37 30.

**Aramaio.** 70 metro koadroko etxebizitza saldu edo errentan ematen da. Etxe berria da. Bi logela, ganbara eta garajearekin. Dena jantzita. Eguzkitsua. 679 45 57 62 edo 664 74 90 23.

**Aretxabaleta.** 100 metro koadroko etxebizitza salgai Markolen. Lau logela, bi komun, sukaldea eta egongela, ganbara, garajea eta bi terraza handi (150 $m^2$). Jantzita utziko genuke. 650 34 89 85.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Jose Luis Iñarran. Lau logela, bi komun, egongela, sukaldea, trastelekua eta garajea. 630 03 41 65 edo 669 05 80 33

**Bergara.** Apartamentua salgai San Antonion. Sukaldea, egongela, logela bat, komuna, balkoia eta trastelekua. 46 $m^2$. Guztiz berriztatua eta jantzia. 635 70 49 74.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Bolun. Egongela, hiru logela, sukaldea, bi komun, trastelekua eta garajea. Aukera ona. 688 67 10 31

**Oñati.** Bidebarrieta kalean apartamentua salgai. Sukaldea, egongela, komuna eta logela bat. Oso eguzkitsua. 607 58 00 99 edo 625 70 54 44.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Iturriotz kalean. 685 72 78 12.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, sukalde-jangela, egongela, komuna eta trastelekua. 2009an berriztatua, prezio onean. 676 19 91 54.

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan Barrenkalen. Guztiz berritua, bi logela eta altzariekin. 629 38 29 96.

**Oñati.** Etxea saldu edo errentan ematen da. Hiru logela, komun bat, sukaldea eta egongela. Garajea aukeran. Guztiz berriztatua. 665 72 87 89 edo 657 72 25 70.

**Oñati.** Hiru logelako etxebizitza. Bi komun, sukaldea eta egongela. Guztiz jantzita. Deitu 645 71 98 84 zenbakira.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. 4 pertsonarentzat. 618 14 71 34.

**Bergara edo Arrasate.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 639 94 48 65 edo 615 57 81 54.

**Bergara.** Etxebizitza alokatuko nuke. 609 38 86 47.

**Bergara.** Etxebizitza alokatuko nuke. 671 33 75 54.

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 657 08 96 69.

**Oñati.** Bikoteak etxea hartuko luke errentan, hiru gela eta igogailuarekin. 665 75 59 13.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Etxea osatzeko gela bat dugu alokagai. Deitu 630 71 35 83 telefonora.

**Bergara**. Bi logelako apartamentu berrituan logela bat errentan ematen da. 250 euro. 626 86 67 36.

**Donostian** etxe bila errentan hartzeko, denbora luzerako. 661 33 85 87.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aretxabaleta.** Garaje itxia salgai Santakurtz 25-27an. Prezio negoziagarria. Deitu 630 46 36 71 telefonora.

**Aretxabaleta.** Garaje itxia Lezaman (Santakurtz 24). 16.000 euro negoziagarriak. Aukera aparta. 647 08 00 16

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garaje irekia ematen da errentan Aldaigainen. 14:00etatik aurrera deitu. Deitu 680 84 09 45 zenbakira.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Oñati.** Garajea hartuko nuke errentan San Lorentzon. Deitu 665 73 51 59 telefonora.

**MAPFRE-ESKORIATZA**

**Mapfrek Eskoriatzako bulegorako gestore komertziala behar du. Curriculumak urtarrilak 28rako bulegoan bertan aurkeztu. Intxaurtxueta 2.**

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Pertsona bat behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 656 77 46 60.

**Bergara.** Neska bergararra behar da bi ume zaintzeko. Hilabetean bi astean, arratsaldez, bi ordu. 675 70 50 43.

**Bergara.** Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko emakumea behar dugu. 943 76 53 55.

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta, Arrasate edo Eskoriatza.** 45 urteko emakume euskalduna gertu nagusi edo umeak zaintzeko, goizez, 13:00ak arte. Autoa daukat. 943 79 54 21 edo 619 42 75 21.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu 15:00etatik aurrera garbitasun zein plantxa lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko. 699 54 17 27.

**Arrasate.** Emakume serio eta arduratsua gertu orduka garbiketak egiteko edo jatetxeetan plantxan zein sukalde laguntzaile jarduteko. 647 16 40 49.

**Bergara edo Arrasate.** Bertako neska gertu nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. 637 18 07 23.

**Bergara.** Bergarako emakume arduratsua gertu garbiketa lanak egiteko. 690 05 79 07.

**Bergara.** Neska gertu etxeko lanak egiteko. 660 57 33 92.

**Debagoiena.** Esperientziadun emakume arduratsua gertu nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako. Etxean bertan bizi izaten, orduka, gauez edo bestela. Legezko paperak dauzkat. 638 89 98 60.

**Debagoiena.** Geriatria laguntzailea gertu ospitalean gauez gaixoak zaintzeko. 676 07 23 72.

**Debagoiena.** Kamioi gidari aritzeko gertu. Hainbat baimen ditut: makinak, garabiak, kamioiak, eta abar. Urte askotako esperientzia. Antonio. 630 65 30 22.

**Debagoiena.** Emakume arduratsua gertu gerontologia sektorean lan egiteko, esperientziaduna eta erreferentziaduna. Arratsaldez egingo luke lan. 943 79 04 69.

**Debagoiena.** Emakumea edozein lanetarako gertu. Ana Luisa de los Santos. Deitu 671 27 78 36 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edo ostalaritzan sukaldari aritzeko. Esperientzia daukat. Deitu 637 12 15 18 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea gertu ospitalean dauden gaixo zein nagusi edo umeak zaintzeko. Deitu gauetan, mesedez 943 71 46 24 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edota zerbitzari lanak egiteko. Zerbitzari titulazioa daukat. Esperientziarekin eta informe onekin. 671 35 22 60.

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumeak lan egingo luke sukaldean, nagusiak zaintzen edo garbitasun lanak egiten: bulegoak, etxeak eta abar. Enpresa zein partikularrekin. 661 48 86 74.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 502. EMAN

**Arrasate.** Goi mailako ingeniari industrialak eskola partikularrak ematen ditu. Maila guztiak. Matematika, fisika, marrazketa, teknologia, kimika, elektrizitatea... Arreta pertsonalizatua. 630 71 35 83.

**Bergara.** Ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut. Elkarrizketa lantzeko ere bai. Deitu 654 94 87 26 telefonora.

**Bergara.** Ingeleseko irakaslea errefortzurako eta azterketak gainditzeko eskolak emateko prest. Oso merke. Arantzazu. Deitu 616 12 56 29 zenbakira.

**Bergara.** Kimikan lizentziaduna naiz eta matematika, fisika, kimika, geologia eta natur zientzietako eskola partikularrak ematen ditut. Maila guztiak. Irakaskuntzan esperientzia. Deitu 648 06 79 85 telefonora.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Zaldi hispaniar-arabiarra** salgai. Monturakoa. 7 urte. Zuria. Deitu 616 00 34 29 zenbakira.

### 703. EMAN

**Txakurkumeak** ematen dira opari. Bi hilabetekoak. Arrasaten. Deitu 608 74 43 52 telefono zenbakira.

### 704. BESTELAKOAK

**Bi setter** eme daude jasoak, aurreko astelehenetik, urtarrilak 11. Zuri-beltzak dira. Deitu 625 70 86 49 telefonora.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Erremailadora** industriala salgai. Egoera onean. Prezioa adosteko. Antzuolan. Deitu 685 77 08 46 telefonora.

**Eskiak.** Dynastar Vitesse etxekoak, Look fijazioekin, 1,85 m neurrikoak: 60 euro. Eta Rossignol etxekoak, Rossignol fijazioekin, 1,78 m neurrikoak: 60 euro. Eskiatzen hasteko oso aproposak. 690 83 98 53.

**Eskiatzeko buzoa** salgai. 10 neurrikoa. 15 euro. Gore-Tex eskularruak opari. Deitu 656 78 64 64 zenbakira.

**Eskiatzeko ekipo** berria salgai. Eskiak: Salomon Space Framer 33. Salomon fijazioak. 1,66 m neurrikoak. Botak: Atomic. 40-41 neurrikoak. Berriak. 300 euro. Makilak eta zorroa opari. 690 83 98 53.

**Karabana** salgai. Lau plazakoa. Egoera onean. Deitu 658 75 58 23 telefonora.

**Snow taula** salgai, Kay Wright markakoa. 1,55 metroko altuera. 130 euro. 630 29 16 01.

**Snow taula** salgai. 1,51 metroko altuera. 175 euro. Deitu 630 29 16 01 zenbakira.

**Soinua salgai.** Bigarren eskukoa. Polverini markakoa, beltza. Motxila eta guzti. 800. Aproposa ikasleentzat. Deitu 686 23 92 87 edo 943 76 44 69 telefono zenbakietara.

**Tabike-armairua** salgai. Debagoienean. Deitu 670 08 12 16 telefono zenbakira.

### 806. GALDU

**Autoko giltza** galdu nuen abenduaren 15ean, asteartean, San Andres auzotik Arimazubi (San Viator Txiki) ikastolara bidean. Deitu 618 49 28 56 edo 943 79 58 98 telefono zenbakietara.

**Eskiak.** Martitzenean, hilaren 12an, K2 Fujative trabesiarako eskiak ahaztu nituen Arantzazun. Norbaitek topatu baditu, dei diezadala. Eskerrik asko. Deitu 652 75 66 97 edo 669 78 17 81 telefono zenbakietara.

**Lepoko zapia** galdu nuen abendu bukaeran. Grisa eta beltza da. Arrasaten edo Oñatin. Deiut 637 90 57 15 zenbakira

**Omega erlojua** galdu nuen Bergaran, igandean, urtarrilaren 10ean. Atzek¡aldean 'PG' inizialak dauzka eta ondorengo datak: 1932-1982. Zubietatik Oxirondo merkatura artean galdu nuen. Guretzat balio handikoa da. Aurkitu baduzu, deitu, mesedez: 669 73 84 02

**Sakelako telefonoa** galdu nuen Bergaran, autobus geltoki inguruan, urtarrilaren 18an (astelehena). Nokia beltza da. Saritu ko da SIM txartela, behintzat, bueltatzea. 676 66 02 66

### 807. AURKITU

**Betaurreko gorriak** aurkitu ditut Arrasaten, Eroski inguruan, Musakolan, abendu hasieran. Graduatuak dira eta kaxa batean zeuden. Zurea bada, deitu zenbaki honetara:. 943 79 48 02.

**Giltzak aurkitu** ditut Ugarrixan (Bergara). Bi giltzatako dira: batek 3 giltza ditu eta besteak 12. 689 70 44 17.

### 808. BESTELAKOAK

**Bergaratik-Donostiara** egunero lanera (Errotaburura) joateko jende bila nabil. Lan ordutegia: 08:00-15:00. 679 86 51 36

**Gasteiztik Arrasatera**. Urtarrilean Gasteiz erdialdetik Arrasatera 22:00etan joateko auto bila nabil. 695 70 51 4

**LAN ESKAINTZA**

## LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILEA

Bergarako Udala, aldi baterako, liburutegiko laguntzailea kontratatzera eta lan-poltsa osatzera doa.

**Lehiakideen baldintzak:**
Oinarrietan jasotakoak eta, besteak beste, ondorengoak
a) 16 urte beteta izatea.
b) Goi-mailako Batxilergoko titulua, Bigarren mailako Lanbide-Heziketako titulua edo indarrean dagoen legediak parekotzat hartzen duen beste edozein titulu izan beharko da.
c) 3.H.E-a derrigorrezkoa.

**Instantziak aurkezteko epearen amaiera:**
2010eko otsailaren 10a.

Oinarriak Idazkaritzako bulegoetan, eta udalaren webguenan (*www.bergara.net*) eskuratu ahal izango dira urtarrilaren 26tik aurrera.

*Bergara, 2010eko urtarrilaren 20*
*ALKATEAK*

Bergarako Udala

KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Aranerreka 85 $m^2$. Berritua.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Alkabieta 88 $m^2$. Eguzkitsua.
- Zubiaurre 67 $m^2$. Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60$m^2$. Oso ondo
- Barrenkale 82 $m^2$. Berritua.
- Masterreka. 46 $m^2$. Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 $m^2$. Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 $m^2$. Oso ondo.
- Azkarruntz 69 $m^2$. Prezio ona.
- San Pedro 65 $m^2$. Ganbararekin.
- Osintxu 64 $m^2$. Berritua. 114.192 €.
- Aranerreka 80 $m^2$. Terrazarekin.
- Zubiaurre 58 $m^2$. Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 $m^2$. Oso ondo.
- Osintxu 62 $m^2$. Prezio ona.
- San Lorentzo 68 $m^2$. Berritua.
- Zubiaurre 52 $m^2$. Berritua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, 196.200€.**
- Artekale. Logela bat. Berritua.
- **AUKERA.** Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua. **PREZIO EZIN HOBEAK: 249.210 €tik hasita**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 $m^2$. Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 $m^2$. Berritua.
- San Roke 80 $m^2$. 80 $m^2$-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 $m^2$. Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Arrizuri, 97 $m^2$, garajearekin.
- Aranerreka, 80 $m^2$, oso ondo.
- Matxiategi, 88 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 $m^2$, ondo, hortuarekin.
- Ibargarai, apartamentua, 40 $m^2$, berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragirre, apartamentua, 40 $m^2$, berria, garajea eta trastelekua.
- Martoko, 87 $m^2$, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 $m^2$, ondo.
- Ibargarai, 80 $m^2$ oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 $m^2$ oso ondo.
- Urdangarin pasealekua, 132 $m^2$, berritzeko.
- Zabalotegi 80 $m^2$, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 $m^2$, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 $m^2$, berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 $m^2$, terrazarekin.
- Zurradero, 81 $m^2$, oso ondo.
- Zubieta, 125 $m^2$, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 $m^2$, berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 $m^2$.
- San Antonio, 65 $m^2$, eguzkitsua.
- Masterreka, 46 $m^2$, eraikuntza berria.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**
- Jatetxea erdialdean bezeroekin. Salgai edo errentan ematen da.
- Basarte. 69 $m^2$. Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 $m^2$. Apartamentua. Oso ondo.

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 $m^2$, berria.
- Sagarerreka, 58 $m^2$, aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

**ELGETA**
- San Roke, 75 $m^2$, ia berria.

**ULMA**



Oñatin kokatutako **ULMA Packaging**-ek, ontziratze sistema eta makinen eskaintzaren bitartez merkatuari konponbide berritzaileak hornitzen liderra, **Legazpi**ko lantegian lanean hasteko behar du:

## INGENIARI ELEKTRONIKOA
(erref.:05/10)

- Industria automatizazio ezagutzak.
- 2-3 urteko esperientzia.
- PLC eta PC sistemak programatzen jakitea (C eta Visual Basic hizkuntzak).
- Ekipamendu-ondasun sektoreari eta bereziki Packaging-aren sektoreari buruzko ezagutza baloratuko da.
- Pertsona arteko harremanetarako trebetasuna eta taldean lan egiteko gaitasuna duena, hala nola, sormenezko pentsaeraduna eta ikasteko gaitasuna duena.
- Ingelesez jakitea; beste hizkuntza batzuen ezagutza ere baloratuko da.

Eskaintzen dugu: garapen profesionalerako aukerak dituen enpresa talde sendoan lanean berehala hastea. Ordainsaria esperientzia eta erakutsitako balioaren arabera adostea.
CVa ULMA Packaging, Giza Baliabideetako Saila. 145 P.Ku., 20560 Oñati
Aurrehautatutako hautagaiei erantzungo zaie soilik.

Eskatutako informazioa Norberaren Datuen Babeserako abenduaren 31ko 5/1999 legean jasotakoari jarraituz baliatuko da.

**Lezuri Ormazabal** > Arte Ederretako ikaslea

# "Gauza txikiak gustatzen zaizkit, hor daudela ahazten dugun horiek, alegia"

Arteagatik eta arterako bizi nahiko luke Lezuri Ormazabal oñatiarrak. Arte Ederrak ikasten dihardu Bilbon. Gainera, birritan Obra Multiple UPV/EHU saria irabazi du. Diseinua maite du, eta, horregatik, diseinu grafikoaren eta multimediaren gaineko kurtsoa egiten dihardu. Horrez gainera, oraindik martxan ez dagoen estudioa muntatu berri du.

NAROA ODRIOZOLA > OÑATI

***Paristik natorren artista bat naiz ni,*** **dio abestiak. Lezuri Ormazabal Bilbotik datorren artista oñatiarra dugu. Trebetasuna du eskuekin, eta haren marrazkiak horren adierazle dira. 23 urteko oñatiarrak estudioko ateak zabaldu dizkigu, apur bat ezagutu dezagun gaztea.**



**Artista baten aurrean gaude.**

Beno, ni ez naiz artista kontsideratzen, sortzailetzat daukat nire burua. *Artista* hitza artelanekin lotuta ikusten dut, eta nik oraindik ez dut horrelakorik egin.

**Bilbon ari zara Arte Ederrak ikasten. Zergatik erabaki zenuen ikasketa horiek egitea?**

Hasieran, zalantzan egon nintzen Arte Ederren eta Arkitekturaren artean. Baina azkenean, Arte Ederrak aukeratu nituen. Txikitatik gustatu zait mundu hau. Betidanik marraztu dut eta eskulanak denbora-pasa gisa egin izan ditut.

**Arte Ederrak ikasten dituen jendea berezia dela diote. Berezia zarela uste duzu?**

Ez dut uste jende berezia garenik. Mundua ikusteko beste era bat dela esango nuke, eta horrek gauzekiko beste ikuspegi bat ematen digu.

**Imajinazioz beteriko mundua da artearena. Imajinazio handiko pertsona zara?**

Hori diote nire ingurukoek. Hala ere, ez dut uste *imajinazioa* denik hitza. Ikuspegi pertsonalaz espresatzen dakidala esango nuke nik.

**Zerk inspiratzen zaitu?**

Gauza txikiak ditut gustuko, egunerokotasunean aurki ditzakegunak eta aldi berean hor daudela ere ahazten dugunak. Marrazteko orduan hutsunea atsegin dut, baina hutsuneari detaile asko sartzen dizkiot, indarra ematen diote-eta lanari.

**Arte Ederren zein alderdi duzu gustukoen?**

Orokorrean, dena gustatzen zait; gero, trebetasuna izatea beste gauza bat da. Marraztea maite dut, baita teknika desberdinak konbinatzea ere.

**Teknika grafikoen espezialitatea egin duzu. Nolatan?**

Grabatua, xilografia, litografia eta serigrafia batzen dituen espezialitatea da. Hauek irudia lantzeko modu desberdinak dira eta elkarren arteko desberdintasuna euskarria da. Teknika hauekiko nuen ezjakintasunak bultzatua, horietan espezializatzea erabaki nuen.

**Aurreko ikasturtean Italian egon zinen sei hilabetez Erasmus bekarekin. Nolako esperientzia izan zen?**

Esperientzia guztiz positiboa izan zen. Florentzian egon nintzen. Akademiaren instalazioak oso onak ez ziren arren, beste modu batera lan egiten ikasi nuen, jende berria ezagutu, hizkuntza berri batekin egunerokotasunari aurre egin... Oso oroitzapen onak dakarzkit.

**Italiako egonaldi hartan, bi erakusketa egin zenituen.**

Bai; irakasgai bakoitzean eginiko lanak urte amaieran erakusketa kolektibo gisa ipintzen genituen ikasgelan. Horrez gain, Star Point ekimena egon zen. Ekimen horrekin hiriko toki desberdinetan erakusketak antolatzen ziren. Irakasleak bi grabatu aukeratu zituen nire lanetik eta Florentziako liburu denda batean ipini zituzten ikusgai.

**Obra Multiple UPV/EHU saria irabazi duzu birritan. Espero zenuen?**

Ez duzu sekula espero, baina aurkezten zaren momentutik irabazle izateko aukera minimo batzuk dituzu. Irabazle izateak aurrera jarraitzeko animoak ematen dizkizu.

**Unibertsitateko ikasketetatik aparte, diseinu grafikoaren eta multimediaren gaineko kurtso bat egiten diharduzu. Zer moduz doa?**

Diseinuaren alorra maite dut eta mundu horretan jarduteko eguneratuta egotea ezinbestekoa da. Asko ikusi behar da, tendentziez jabetu eta lan tresnen funtzionamendu zuzena izan. Oso gustura nabil aurretik ezezagunak zitzaizkidan ordenagailu programak ikasten eta proiektu txikiak bideratzen.

**Horrez gain, oraindik martxan ez dagoen estudio bat muntatu berri duzu Oñatin. Zer eskainiko duzu?**

Nahi barik etorri zaidan gauza bat izan da. Etxean proposatu nuen, eta, aurrera jarraitzeko behar nuen laguntza izan dudanez, badut nire gauzatxoak egiteko toki bat.








NAROA ODRIOZOLA

PERTSONALA

**Herria:** Oñati. **Adina:** 23 urte. **Ikasketak:** Arte Ederrak ikasten dihardut Bilbon, Euskal Herriko Unibertsitatean, eta Diseinu Grafikoa eta Multimedia INEDIn. **Zaletasunak:** Marraztea, jostea, lagunekin egotea, argazkigintza... **Irakurritako azken liburua:** *Una luz diminuta surgio de la nada*, Einar Turkonskirena. **Ilustratzaile bat:** Elena Odriozola. **Amets bat:** Ikasi dudanetik bizi ahal izatea. **Bizi izateko leku bat:** Bilbo. **Bizitzako leloa:** *Caminante, no hay camino, se hace camino al andar*, Antonio Machado.



GOIENKARIA

## "Magazinea"-ko elkarrizketen errepikapena

*Goiena magazinea* saioan egindako elkarrizketak berriz, eta jarraian ikusteko aukera izango da oraingo aste bukaeran hasita. Elkarrizketok batzen dituen saioa estreinatuko du GOITBk bihar, zapatua.

**GOITB, 'Magazinea'**
> Zapatua, 12:00, 23:15
> Domeka, 14:15, 21:00



GOIENKARIA

## Beltranen "Ttakun ttan ttakun"

*Ttakun ttan ttakun* ikuskizunaren gaineko erreportajea emango du GOITBk. Txalaparta beste diziplina batzuekin uztartzen du. Juan Mari Beltranek sortu zuen ikuskizuna, Mireia Gabilondo, Jon Maia eta hiru txalapartarirekin.

**GOITB, 'Gipuzkoakultura'**
> Eguena, 22:15

## astea GOITBn

### Egubakoitza, 22

**13:15** Marrazki bizidunak .
**13:45** Kantari.
**14:15** On ein.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ur eta Lur.
**15:45** Itsasoari begira.
**16:15** Ikusten.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Ilunpean.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Sakonduz.
**22:45** Udazken loreak.
**23:15** Kale kantoi.
**23:45** Magazinea
**00:45** Emisio amaiera.

### Zapatua, 23

**08:00** Marrazki bizidunak.
**10:30** Barrebusa.
**11:30** Kantari.
**12:00** Goiena Magazinea.
**13:00** Erreportajea
**14:00** On Ein.
**14:30** Barrebusa.
**15:30** Marrazki bizidunak.
**18:30** Gipuzkoa Kultura.
**19:00** Kale kantoi.
**19:30** Itsasoari begira.
**20:30** 28 Klip.
**21:00** Ilunpean.
**21:45** On ein.
**22:15** Ikusten.
**22:45** Ikusmira.
**23:15** Goiena Magazinea.
**00:30** 28 klip.
**01:00** Emisio amaiera.

### Domeka, 24

**08:00** Barrebusa.
**09:00** Marrazki bizidunak.
**11:30** 28 klip.
**12:00** Itsasoari begira.
**12:30** Erloklip
**13:00** Erreportajea.
**13:45** Ur eta Lur.
**14:15** Goiena Magazinea.
**14:45** Kale kantoi.
**15:15** Gipuzkoa Kultura.
**15:45** Marrazki bizidunak.
**18:15** Barrebusa.
**19:15** Kantari.
**21:00** Goiena Magazinea.
**22:00** Erreportajea.
**22:45** GipuzkoaKultura.
**23:15** Ilunpean.
**00:00** Itsasora begira.
**00:30** Emisio amaiera.

### Astelehena, 25

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Onein.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Kalekantoi.
**15:45** Ikusmira.
**16:15** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Kalekantoi.
**18:15** Sakonduz.
**18:45** Ilunpean.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kiroleroak.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Harmailatik.
**23:00** Gipuzkoakultura.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Martitzena, 26

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Ur eta lur.
**14:15** On Ein.
**14:45** Berriak.
**15:10** Harmailatik.
**15:50** Ikusten.
**16:20** Itsasoari begira.
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Kurtulzulo-Eskuokin.
**18:15** Gipuzkoakultura.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Harmailatik.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Ilunpean.
**23:00** 28 Klip.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 27

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Ikusmira.
**14:15** Erreportajea.
**14:45** Berriak.
**15:10** Ilunpean.
**15:50** Sakonduz.
**16:20** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:35** Harmailatik.
**18:15** Ur eta lur.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Ilunpean.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Erreportajea.
**23:00** Kalekantoi
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Eguena, 28

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Ikusten.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Gipuzkoa kultura.
**16:15** Ikusmira.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Sakonduz.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Euskaldunak hizketan.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Gipuzkoakultura.
**22:45** Kulturzulo->Eskuokin.
**23:20** Itsasoari begira
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

### Zapatua

**10:00** Asteko gainbegiratua.
Amaia Doyague arraunlaria; Igor Elordui AEKko Komunikazio arduraduna; Ibili munduan geltokian, Iñaki Araiz; Manu Romano Golden Apple Quartet taldeko kidea; lorategiaren geltokian kaktusen gainen egingo dute berba...

### Domeka

**10:00** Asteko gainbegiratua.

### Astelehenetik egubakoitzera

**10:00-12:00** Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ibili Munduan geltokia
Elkarrizketak
Lorategiaren gelltokia
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
**12:05** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**12:20** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**17:15** Zorion agurren tartea (errep.)

## guardiako farmaziak

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 23 | Etxeberria | Zarugalde 42 | 943 77 16 30 |
| Domeka, 24 | Azkoaga | Ferrerias 1 | 943 79 15 15 |
| Astelehena, 25 | Azkoaga | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| Martitzena, 26 | Fernandez | Maisu Aranbarri 1 | 943 79 22 26 |
| Eguaztena, 27 | Irizar | Erguin 11 | 943 79 12 39 |
| Eguena, 28 | Amezua | Santa Marina 32 | 943 79 09 74 |
| Egubakoitza, 29 | Morales | Araba 14 | 943 79 18 65 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 23 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |
| Domeka, 24 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |
| Astelehena, 25 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| Martitzena, 26 | Alvarez-Mozos | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| Eguaztena, 27 | Urritikoetxea | Oxirondo 4 | 943 76 11 74 |
| Eguena, 28 | Zabala | Barrenkale 25 | 943 76 16 87 |
| Egubakoitza, 29 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 23 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Domeka, 24 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Astelehena, 25 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Martitzena, 26 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Eguaztena, 27 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Eguena, 28 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Egubakoitza, 29 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |

**ARETXABALETA-ESKORIATZA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 23 | Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Domeka, 24 | Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Astelehena, 25 | Agirre | Gorosarri Plaza (Esko.) | 943 71 48 28 |
| Martitzena, 26 | Agirre | Gorosarri Plaza (Esko.) | 943 71 48 28 |
| Eguaztena, 27 | Agirre | Gorosarri Plaza (Esko.) | 943 71 48 28 |
| Eguena, 28 | Agirre | Gorosarri Plaza (Esko.) | 943 71 48 28 |
| Egubakoitza, 29 | Agirre | Gorosarri Plaza (Esko.) | 943 71 48 28 |

**Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2010eko egutegia.**
Bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehienezko kostua 1,39 € + WAP deskarga kostua, operadorearen arabera, Altiria TICek kudeatuta (www.altiria.es).

## herritarrak galdezka

### GARRAIO PUBLIKOA

**Oñatiko irakurle batek honako galdera egin digu: "Lurraldebus txartela edukita, Donostiara joaten naizenerako, jakin gurako nuke ea hango herri autobusa ordain dezakedan txartelarekin, eta gauza bera trenarekin".**

Lurraldebuseko informazio zerbitzuan esan digute baietz, Debagoieneko erabiltzaile batek ordain dezakeela hango urbanoa Lurraldebus txartelarekin; trena, oraingoz, behintzat, ez dago txartel horretan, baina.

### BEHERAPENETAKO ARAUAK

**Arrasatear batek honakoa jakin gura du: "Beherapenetan erosi dudan arropa bueltatu egin dezaket dendara, dirua buelta diezadaten, ala beherapen sasoian dendek ez dute hori egin beharrik?".**

Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak esaten duenez, "komertzio batzuetan, arau berezi batzuk ipintzen dituzte beherapen sasoirako: txartelarekin ordaintzeko aukeraren gainean, dirua bueltatzearen gainean… Horrela egiten dutenean, espresuki adierazi behar dute. Zalantzarik badago, dendako arduradunari galdetu behar zaio".

Egiguzu galdera eta geuk egingo diogu dagiokionari.
• Telefonoz: 943 25 05 05 • Faxez: 943 25 05 12
• Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
• Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN



**Zapatua, 23**
Goizean goiz hasiko da euria egiten, eta eguerditik aurrera ugariago eta sarriago egingo du, hego-haizea nagusi izango den arren.



**Domeka, 24**
Tenperaturek beheranzko joera izango dute, iparraldeko haizeak ere horretan lagunduta. Maximoak 11 graduren bueltan egongo dira. Euria egun osoan.

### TENPERATURAK

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

**MINIMOA** Eguena, 14 — 4º C

**MAXIMOA** Zapatua, 16 — 15º C

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — 41,3 L

| | Max. ºC | Min. ºC | Euria l/m² |
|---|---|---|---|
| Eguaztena, 13 | 11 | 6 | 1,6 |
| Eguena, 14 | 9 | 4 | 32 |
| Egubakoitza, 15 | 14 | 7 | 0,4 |
| Zapatua, 16 | 15 | 9 | 2,1 |
| Domeka, 17 | 12 | 6 | 0 |
| Astelehena, 18 | 14 | 7 | 0 |
| Martitzena, 19 | 15 | 7 | 5,2 |

URTEURRENA

## Joxe
## Zubia Kortabarria



Lehen urteurreneko meza zapatuan, urtarrilaren 23an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian ospatuko da.

Elizkizunera joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Felipe
## Escarza Garrido



Lehen urteurreneko meza zapatuan, urtarrilaren 23an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian ospatuko da.

Elizkizunera joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

## Mikaela
## Iarza Erostarbe

Oñatin hil zen 2010eko urtarrilaren 11n, 103 urte zituela.



Hileta-elizkizunera joandakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.
—
Ondrak zapatuan, urtarrilaren 23an, 19:30ean, Agustinotan ospatuko dira.

Oñatin, 2010eko urtarrilaren 22an.

# ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:
**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera:

**Arrasate**
Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

**Bergara**
Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05.

**Oñati**
Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

**Aretxabaleta**
Goiena: Durana 11. 943 79 86 21. / Zerbitzu orokorrak: Basabe poligonoa EO5. 943 25 05 05.

**Aramaio**
Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

**Elgeta**
Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98

**Antzuola:**
Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

**Eskelaren prezioa: 120 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **160** euro.

**Goiena klubeko bazkideek: 110 euro**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **150** euro.

**GOIENKARIA: astero, 41.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.**



## hildakoak

- **Arantza Arrizabalaga Arrieta.** Oñatin, urtarrilaren 8an. 64 urte.
- **Roberto Etxezarreta.** Bergaran, urtarrilaren 8an. 55 urte.
- **Juan Bazkez Gomez.** Arrasaten, urtarrilaren 9an. 91 urte.
- **Teodoro Balgañon Otsoa.** Arrasaten, urtarrilaren 9an. 80 urte.
- **Candido Fernandez Galan.** Arrasaten, urtarrilaren 10ean. 44 urte.
- **Dionisia Zeziaga Olalde.** Arrasaten, urtarrilaren 11n. 91 urte.
- **Mikaela Iarza Erostarbe.** Oñatin, urtarrilaren 11n, 103 urte.
- **Maria Orueta Urtzelai.** Oñatin, urtarrilaren 11n. 93 urte.
- **Maria Luisa Aranburu.** Oñatin, urtarrilaren 11n. 91 urte.
- **Matilde Azkarraga Arejola.** Arrasaten, urtarrilaren 11n. 86 urte.
- **Elisabeth Arrizabalaga Maiztegi.** Elgetan, urtarrilaren 11n. 49 urte.
- **Juan Joxe Agirre.** Antzuolan, urtarrilaren 11n. 57 urte.
- **Juan Bentura Larrañaga Gartzia.** Bergaran, urtarrilaren 11n. 97 urte.
- **Mikaela Iarza Erostarbe.** Oñatin, urtarrilaren 11n, 103 urte.
- **Maite Arantzabal Ugarte.** Urtarrilaren 13an.
- **Imanol Zeziaga Arizaga.** Arrasaten, urtarrilaren 14an. 89 urte.
- **Teresa Elkoroiribe Lazpiur.** Bergaran, urtarrilaren 14an. 88 urte.
- **Robustiano Rodriguez Galvan.** Aretxabaletan, urtarrilaren 15ean. 54 urte.
- **Gregorio Beiztegi Umerez.** Bergaran, urtarrilaren 17an. 97 urte.
- **Prima Criado Polo.** Aretxabaletan, urtarrilaren 17an. 73 urte.
- **Antonio Aizkorrialde Agirreolea.** Bergaran, urtarrilaren 18an. 83 urte.
- **Maria Unzueta Aranguren.** Aramaion, urtarrilaren 19an. 83 urte.
- **Joaquin Mata Serrano.** Eskoriatzan, urtarrilaren 20an. 79 urte.

## ezkontzak



Aretxabaletako Larrino auzoko **Timoteo Idigoras** eta Eskoriatzako Bolibar auzoko **Sebastiana Idigoras** Bolibar auzoan ezkondu ziren orain dela 50 urte, urtarrilaren 23an. Urrezko ezteiak dituztela-eta, familiakoen partetik, zorionak eta eskerrik asko, guztiagatik!





Eskoriatzako **Agustin Garcia** eta **Fani Cornejo** 1960ko urtarrilaren 23an ezkondu ziren, eta urrezko ezteiak ospatzeko, bazkaria egingo dute bihar, zapatua, Gatzagan. Bioi, zorionak, Julen, Eneko, Izaro eta Unairen partetik!

# Urtarrilak 22-29

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com**
Tel.: **943 25 05 05** • Faxa: **943 25 05 13**

## Antzerkia




ELGETA
**> 'Desnudos en Central Park' antzezlaneko bi emanaldi gaur Elgetan**
Manuel Galiana eta Emma Ozores aktore ezagunak daude protagonisten artean. Bi emanaldi egingo dituzte gaur, 20:00etan eta 22:30ean. Espaloiak abian jarritako promozioari esker, bi sarrera baten prezioan (15 euro eta 12 leihatilan).

## Antzerkia



BERGARA
**> 'REM fasea' haurrendako txotxongilo emanaldia domekan Zabalotegin**
Jose Alberto Maldonadok zuzenduta, Granadako Kaos Teatro taldeak Pelloren ametsak ekarriko dizkigu. Baina lo edo esna dago Pello? Domekan, Zabalotegin, 17:30ean. 3 eurotan. Bihar, zapatua, kale antzerkia egingo dute Muniben, 18:30ean.

## Antzerkia



OÑATI
**> Txaloren 'Arrastoa' antzezlana domekan, Ramon Agirre eta Asier Hormazarekin**
Anthony Shaffer da egilea eta Begoña Bilbaok zuzendu du. Wyke intrigazko nobelagile ospetsuak hauxe proposatuko dio lagun bati: biak irabazle aterako diren joko arriskutsua... Domekan, Santa Anan, 19:30ean. 10 euro.

# Antzerkia

ARRASATE
**> 'Aitarekin bidaian' domeka arratsaldean Amaian**
Zahartzaroari buruzko kronika krudel bezain hunkigarria, Hika Teatro taldearen eskutik.
Domekan, Amaia antzokian, 19:30ean.

ARETXABALETA
**> 'Ipuinez hegan eta hegan' zapatuan Arkupen**
Begoña Gomez eta Pedro Ruiz narratzaileekin. Bereziki 3-6 urte bitarteko neskamutikoei zuzenduta.
Bihar, zapatua, Arkupeko liburutegian, 11:30ean.

OÑATI
**> 'Irudimendeko hiria' txotxongilo ikuskizuna**
Abadiñoko Gorakada taldearen eskutik. Elkar Hezi ikastetxeko gurasoen elkarteak antolatuta.
Bihar, zapatua, Santa Ana antzokian, 18:00etan. Sarrerak doan gonbidapenen bitartez Elkar Hezi ikastetxeko Haur eta Lehen Hezkuntzako eraikineko idazkaritzan eta kultura etxean.

BERGARA
**> Juan Arjona ipuin kontalaria eguenean Pol-Polen**
Juan Arjona Sevillako ipuin kontalariak *Memorias de mi suburbio* ipuin saioa eskainiko du.
Eguenean, hilaren 28an, Pol-Pol tabernan, 22:30ean.

# Musika

ESKORIATZA
**> Anger taldea zapatuan Inkernu tabernan**
*Sedukzioaz* izenburuko diskoa aurkeztuko dute.
Bihar, zapatua, Inkernun, 23:00etan.

ARRASATE
**> El Desvan del Macho eta DJ Mansilla bihar Gure Lekun**
Arrasateko El Desvan del Macho taldeak pop-rock emanaldia egingo du.
Bihar, zapatua, Gure Leku tabernan, 23:00etan.

ARRASATE
**> Doinu elektronikoen jaialdia domekan 3 aretoan**
The Casualties eta BC Bombs taldeekin.
Domekan, 3 aretoan, 20:00etan.

BERGARA
**> Ken Zazpi eta Josu Bergara hurrengo zapatuan Jamen**
*Zazpi urte zuzenean* da Ken Zazpiren azken diskoa.
Hurrengo zapatuan, hilaren 30ean, 20:45ean. Sarrerak, aurrez 12 eurotan eta kontzertu egunean, leihatilan, 15 eurotan.

# Erakusketak

ARETXABALETA
**> 'Beste xomorro batzuk' argazki erakusketa Arkupen**
Antonio Valenciaren argazkiak dira.
Arkupen, urtarrilaren 31ra arte.

BERGARA
**> Aratusteetako kartelak**
Kartel lehiaketara aurkeztutako lanak daude ikusgai.
Kultura etxean otsailaren 19ra arte, astelehenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:00etara.

BERGARA
**> Txakurren argazkiak Nahikarin**
Manuel Montiel elgetarrak Gipuzkoako txakurren 87 argazki jarri ditu ikusgai.
Nahikari tabernan, hilaren 31ra arte.

# Ikastaroak

BERGARA
**> Oinarrizko joskintza eta defentsa pertsonala otsailean**
Oinarrizko joskintza ikastaroa otsailaren 1etik 12ra, astelehenetik egubakoitzera, 10:00etatik 12:00etara; defentsa pertsonalarena, berriz, otsailaren 22tik martxoaren 31ra, astelehen eta eguaztenetan 17:30etik 19:00etara.
Bizikasik antolatuta, bi ikastarook doan dira. Argibideak: 943 76 93 94 (Miren) edo *info@bizikasi.com* helbidean.

ARRASATE/BERGARA
**> Biodantza ikastaroa**
Arrasaten, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara, Erguin kaleko Slimming gimnasioan. Bergaran, martitzenetan 14:45etik 16:45era Giartzu gimnasioan edo eguaztenetan 16:45etik 18:45era Samadhi yoga elkartearen lokalean, Masterrekan.
Argibideak: 626 66 12 92 (Mentxu).

ARETXABALETA
**> Dantza afrokaribearrak Jaiki elkartearen eskutik**
Martitzenero, 19:30etik 21:00etara, kuartel zaharrean. Ekainera arte.
Izenematea 653 70 50 68 telefonoan edo *jaikielkartea@ayahoo.es* helbidean.

BERGARA
**> Erromeriako dantzak eta dantza soltea**
Jardun euskara elkarteak antolatuta, erromeriako dantzen ikastaroa otsailetik maiatzera, martitzenetan 19:30etik 21:00etara. Fandangoa eta arin-arina Juantxo Urbietak erakutsiko ditu eguenetan, 19:30etik 21:00etara: hastapen maila urtarrilean eta otsailetik maiatzera maila guztiak.
Izenematea eta argibideak Jardun euskara elkartean, 943 76 08 19 telefono zenbakian.

ARRASATE
**> Yoga ikastaroa**
Yoga ikastaroa Arrasaten (Txindoki dorrea, Bañez Doktorea 1): astelehen eta eguaztenetan, 09:30etik 11:00etara; martitzen eta eguenetan 14:30etik 16:00etara eta 19:00etatik 20:30era.
Argibideak eta izenematea: 635 71 06 16 (Maite) edo 943 78 31 26 (Ana).

ARRASATE
**> Eskulan ikastaroa Udaleko Emakume Sailaren eskutik**
10-12 lagunez osatutako talde txikian eskulanetako teknika ezberdinak ikasiz ondo pasatzeko ikastaroa da. Egurra, laminak, margoketa, birziklatzea, Van Dal, eztainua, zilarra, beruna eta kristala landuko dituzte Bea Arregirekin. Martxoaren 23ra arte, martitzenero 15:30etik 17:30era edota 18:00etatik 20:00etara.
Argibideak eta izenematea 943 79 83 70 eta 651 70 79 36 telefono zenbakietan.

ARRASATE
**> 'Estresa, nola gainditu?' ikastaroa otsailean**
Ekin Emakumeak elkarteak antolatuta, otsailaren 1etik 10era, astelehen eta eguaztenetan, 17:30etik 20:30era.
Argibideak eta izenematea: 943 79 83 70 edo 651 70 79 36 telefonoan.

ARETXABALETA
**> Flamenko dantza ikastaroa otsailaren 26tik aurrera**
Flamenko dantza ikastaroa, Jaiki elkartearekin. Otsailaren 26an eta martxoaren 5ean, 12an eta 26an, 18:00etatik 20:00etara.
Argibideak: 653 70 50 68 edo *jaikielkartea@yahoo.es* helbidean.

PROPOSAMENA

ARRASATE
**> Arizona Baby taldea Arrasaten**

*Second to none* izenburuko lanari esker, joan den urteko sorpresarik atsegienetakoa izan genuen Valladolideko hirukotea. Gaur, egubakoitza, Amaia antzokiko *hall*-ean izango ditugu. Emanaldi akustikoa egingo dute Javi Arizonak (ahotsa, gitarrak, blues harpa eta ukulelea), Ruben Arizonak (gitarrak) eta Marcos Arizonak (perkutsioa eta ahotsa).
Gaur, egubakoitza, Amaia antzokiko *hall*-ean, 20:00etan. Sarrerak Servikutxako kutxazainetan eskuragarri, 5 eurotan.



# Deiak

ARRASATE

**> Goikobaluren deia kantatu nahi duten guztientzat**

Kantuan interesatuta dagoen edonorendako ateak zabalik dituztela gogoratzen du Goikobaluk. Gaztetxo zein nagusiek elkarteko lau taldetan jarduteko aukera daukate: Goikobaluko tailerra (4-6 urte bitartekoak) eguaztenetan 17:00etan; Goikobalu Txiki (6-9 urte) eguenetan 18:15etan; Goikobalu Gazte (11-20urte) eguaztenetan 19:00etan eta Goikobalu Abesbatza (nagusiak) martitzenetan 21:00etan eta eguenetan 20:00etan.

Argibideak 615 76 02 89 telefono zenbakian.

# Lehiaketak

ARRASATE

**> Jokin Zaitegi beka, Herta Müller itzultzeko**

Arrasateko AED elkarteak eta Elkar argitaletxeak, Kutxaren laguntzarekin, Jokin Zaitegi Sariketa antolatu dute. Aurtengoa 23. ekitaldia da. Azken Literaturako Nobel saridunaren lana itzultzeko zuzenduta dago beka.
Hain zuzen ere, Herta Müller idazle errumaniar-alemanaren *Atemschaukel* (*Arnasaren kulunka*) eleberria itzularaztea da xedea.

Argibideak AEDn (943 77 12 28).

ARRASATE

**> Aratusteetako kartel lehiaketa deitu du Udalak**

Lehiaketan edozein pertsonak har dezake parte. Kartelen neurriak 50 x 70 zentimetrokoak izango dira. Informatika euskarrian (Pendrive edo CDan) ere aurkeztu ahal izango da kartela, DIN-A3 tamainako paperean inprimatuta. Kartelek derrigorrez testu hau izan beharko dute: *2010 Inauteriak Arrasate*. Irabazleak 400 euroko saria jasoko du. Lanak urtarrilaren 30ra arte jasoko dituzte Biztaleen Arreta Zerbitzuko bulegoan.

Lehiaketako oinarrien xehetasunak: *www.arrasate-mondragon.org*.

BILBO

**> Zinema eta animazioko film laburren lehiaketa**

*Nontzeberri.com* kultura webguneak Nontzefilmak Zinema eta Animazioko Film Laburren Lehiaketa *on-line* jarri du abian FANT Bilboko Zinema Fantastikoaren Jaialdiaren laguntzarekin. Lanek zinemakoak edo animaziokoak izan behar dute, eta azken horretan animaziozko teknika guztiak onartuko dira (3D, Flash, stop-motion, eta abar). Irabazleak 2.000 euro eskuratuko ditu. Lanak jasotzeko epea otsailaren 26an amaituko da, 13:00etan.

Lehiaketako oinarrien xehetasunak: *http://www.nontzeberri.com*

# Zinema

## ARRASATE

### AMAIA ANTZOKIA

**Amelia**
Zapatua: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Dos canguros muy maduros**
Domeka: 17:00.

**La ventana**
Eguena: 20:30.

## ARETXABALETA

### ARKUPE

**El secreto de sus ojos**
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

**Donde viven los monstruos**
Domeka: 17:00.

**El baile de la Victoria**
Eguena: 19:30.

## OÑATI

### KULTUR ETXEA

**Avatar**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Alvin y las ardillas**
Zapatua eta domeka: 17:00.

## BERGARA

### ZABALOTEGI

**La hamaca paraguaya**
Eguena: 20:00.

### GAZTETXEA

**12 monos**
Domeka: 18:00.

## ELGETA

### ESPALOIA

**Los hombres que no amaban a las mujeres**
Eguaztena: 21:30.

## ARAMAIO

### KULTUR ETXEA

**Perez sagua 2**
Domeka: 17:00.

## EIBAR

### COLISEO ANTZOKIA

**La herencia Valdemar**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**Rompedientes**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### COLISEO 1

**Rompedientes**
Egubakoitza: 20:30.
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**La herencia Valdemar**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### COLISEO 2

**¿Qué fue de los Morgan?**
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

**La herencia Valdemar**
Egubakoitza: 20:30.

## GASTEIZ

### GURIDI

**Avatar**
17:00.

**Nine**
17:00, 19:45, 22:30 (egubakoitzean eta zapatuan); 17:00, 19:45 (domekan).

**Sherlock Holmes**
17:30, 20:00, 22:30 (egubakoitzean eta zapatuan); 17:30, 20:00 (domekan).

**Sobrepasando el límite**
17:00, 18:45, 20:30, 22:30 (egubakoitzean eta zapatuan); 17:00, 18:45, 20:30 (domekan).

**¿Qué fue de los Morgan?**
17:30, 20:00, 22:30 (egubakoitzean); 20:00, 22:30 (zapatuan); 20:00 (domekan).

**Alvin y las ardillas**
17:00 (zapatuan eta domekan).

**No es tan fácil**
20:00, 22:30 (egubakoitzean eta zapatuan); 20:00 (domekan).

**Planet 51**
17:00 (zapatuan eta domekan).

**Hierro**
18:45, 20:30, 22:30 (egubakoitzean eta zapatuan); 18:45, 20:30 (domekan).

**Celda 211**
17:30, 20:00, 22:30 (egubakoitzean eta zapatuan); 17:30, 20:00 (domekan).

Egubakoitzetik domekara.

### FLORIDA-GURIDI

**Up in the air**
18:00, 20:15, 22:30 (egubakoitzean eta zapatuan); 18:00, 20:15 (domekan).

**El secreto de sus ojos**
20:15, 22:30 (egubakoitzean eta zapatuan); 20:15 (domekan).

**La cinta blanca**
18:00, 20:45 (egubakoitzean eta zapatuan); 17:30, 20:15 (domekan).

**La decisión de Anne**
18:00, 20:15, 22:30 (egubakoitzean eta zapatuan); 18:00, 20:15 (domekan).

**Ricky**
17:30, 20:00, 22:30 (egubakoitzean eta zapatuan); 17:30, 20:00 (domekan).

**Un tipo muy serio**
17:30, 20:00, 22:30 (egubakoitzean eta zapatuan); 17:30, 20:00 (domekan).

**Lluvia de albóndigas**
17:30 (zapatuan eta domekan).

**Amerrika**
17:30, 20:00, 22:30 (egubakoitzean eta zapatuan); 17:30, 20:00 (domekan).

Egubakoitzetik domekara.

### YELMO CINEPLEX

**Avatar**
(3-D emanaldiak)
15:30 (zapatuan eta domekan), 18:45.

**Avatar**
17:00 (zapatuan eta domekan), 18:00, 20:00, 21:00, 23:00, 00:00.

**Nine**
15:35 (zapatuan eta domekan), 17:50, 20:05, 22:20, 00:35.

**Sherlock Holmes**
17:30, 20:00, 22:30, 00:50.

**La decisión de Anne**
22:10, 00:10 (zapatuan); 20:10, 22:10, 00:10 (gainerako egunetan).

**Solomon Kane**
20:35, 22:35, 00:35.

**Número 9**
15:55 (zapatuan eta domekan).

**Up in the air**
16:00 (zapatuan eta domekan); 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.

**Rompedientes**
16:20 (zapatuan eta domekan); 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

**La herencia Valdemar**
15:45 (zapatuan eta domekan); 17:45, 19:45, 21:45, 23:45.

**Celda 211**
18:15, 20:20, 22:25, 00:30.

**Nico, el reino que quería volar**
16:15 (zapatuan eta domekan), 18:15.

**Fama**
15:40 (zapatuan eta domekan).

**Spanish movie**
16:35 (zapatuan eta domekan), 18:35.

**No es tan fácil**
19:50, 22:05, 00:20.

**Alvin y las ardillas**
16:10, 18:10, 20:10 (zapatuan); 16:10, 18:10 (gainerako egunak).

**Lluvia de albóndigas**
16:10 (zapatuan eta domekan).

**¿Qué fue de los Morgan?**
17:55, 19:55, 21:55, 23:55.

**Teniente corrupto**
20:15, 22:30, 00:45.

**Planet 51**
15:50 (zapatuan eta domekan), 17:50.

Urtarrilaren 22tik 28ra. Gauerdiko emanaldiak gaur eta bihar, zapatua.

### ÁBACO BOULEVARD

**Avatar**
15:45, 18:50, 22:00.

**Sherlock Holmes**
17:00, 19:30, 22:10, 00:45.

**La decisión de Anne**
20:00, 22:15, 01:00.

**Nico, el reino que quería volar**
16:15, 18:05.

**Bienvenidos a Zombieland**
16:10, 18:00.

**Teniente corrupto**
20:05, 22:30, 01:00.

**Celda 211**
20:30, 22:45.

**Solomon Kane**
20:20, 22:35.

**¿Qué fue de los Morgan?**
16:00, 18:05, 20:15, 22:20, 00:30.

**Alvin y las ardillas**
16:15, 18:20.

**No es tan fácil**
15:50, 18:10.

**Up in the air**
15:50, 18:10, 20:30, 22:45, 01:00.

**Rompedientes**
16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:00.

**La herencia Valdemar**
16:00, 18:15, 20:25, 22:40 (domekatik aurrera).

**Nine**
15:45, 18:05, 20:25, 22:45 (domekatik aurrera).

Urtarrilaren 22tik 28ra. Gauerdiko emanaldiak egubakoitzean eta zapatuan.

**LA CINTA BLANCA** ****

## Lasaitasunaren atzean, gizarte ezkutua

> **Zuzendariak:** Michael Haneke.
> **Aktoreak:** : Christian Friedel, Burghart Lkaussner, Leonie Benesch.
> Frantzia, Ale., Austria, Italia, 2009. 145 min.

*La cinta blanca* gomendatu baino lehen, kontuan izan behar dugu ikusleak zinemara joatean zer ikusi nahi duen. Film entretenigarri edo liraina ikusi nahi duenak hobe du beste filmen bat ikusi. Aldiz, lan desberdin bat, zuzendariaren marka duen film originala, ederra eta kezkagarria ikusi nahi duenak ezin du galdu Michael Hanekeren filma. Erritmo bereziak, kontatzen zaigun istorio latzak eta estetika zoragarriak (argia, planoen konposizioa) edertasun kezkagarriz betetako filma osatzen dute.

Fabula morala eta beldurgarria da *La cinta blanca*. Istorioa narratzaile baten ahotsetik datorkigu; hark duela urte askotxo, Lehen Mundu Gerra hastear dagoen garaian Alemaniako herri txiki baten izandako gertakizun harrigarri batzuk azaltzen dizkigu. Herri txiki baten hainbeste gauza gertatzeak istorioari ematen dio parabola baten kutsua: gizarte baten ordezkari bihurtzen da da herria. Eta ipuin hori kontatzeko Hanekek oso estetika berezi eta zoragarria erabiltzen du. Jantziek, aktore guztien aurpegiek, girotzeak, zuri-beltzeko argazkiak eta argiak benetan XX. mendeko bigarren hamarkadara eramaten gaitzute. Modu horretan, kontatzen zaigun guztiak indar magnetiko eta dramatiko izugarria hartzen du.

Argia eta zuri-beltzeko irudiak osagai narratibo garrantzitsuak bihurtzen dira. Herriko paisaiak argiz beteak: eguzkiak eta elurrak irudiei lasaitasun itxura ematen diete, baina itxura hori faltsua dela ikusiko dugu astintzen gaituzten gertakizun desberdinekin. Eta etxeetan erabiltzen den argi motelarekin ikusiko dugu lasaitasun eta itxura faltsu horren barrutik mugitzen diren ustelkeria eta itzalak. Horrela, Michael Hanekek miatzen jarraitzen du gizartearen alde ilun eta ezkutuetan.

**Antonio Zabala**

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**bono fotoa**



**Gure bailarako zein herritan dago argazkiko auzoa eta nola du izena?**

**Argazkia eta galdera** > Jose Felix Diaz de Tuesta

ZORIONAK AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEARI:

Bergarako **Blanca Elena Lasa**.
**Erantzun zuzena: Udalatx.**



ETXEZ ETXEKO BANAKETA
Larchago ardoak eta produktu ekologikoak
943 76 98 51

GARMENDIA ARDOEK EMANDAKO
**BOTILA ARDO PACKA***
ZOTZ ASMATZAILEON ARTEAN!

* Larchago iskillarapeko ekologikoa: botila bat.
Larchago beltz berezia: botila bat. Lerchago kriantza: botila bat.

ERANTZUNA ..................................................
IZEN-DEITURAK..................................................
HERRIA .............................. TELEFONOA ..............................

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara

Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2010-01-22

# Herri bakoitzeko, txakur bat

**88 HERRI ETA TXAKUR** Gipuzkoako herri guztietan atera dizkie argazkia txakurrei Manuel Montiel elgetarrak

**GIPUZKOA EZAGUTU** "Asma ezazu gura duzuna eta ezagutu Gipuzkoa; nik halaxe egin dut. Ez zara damutuko!", dio

**ERAKUSKETA** Ateratako argazkiekin erakusketa egiten dihardu eta 'Youtube'-n lau bideo eskegi ditu

**ENEKO AZKARATE** > ELGETA

Gipuzkoako herriak ezagutzeko hamaika modu daude, baina gure historiaren protagonistarena adinako bitxirik gutxi. Izan ere, Manuel Montiel elgetarrari hauxe bururatu zaio: argazki kamera aldean, herririk herri ibiltzea txakurrei argazkiak ateratzen. Eta, hala, 20 egunetan, Gipuzkoako 88 herrietan atera ditu txakurren argazkiak, herri bakoitzeko bat, arraza askotarikoak.

Eta argazki bakoitzari jarri dio markoa eta txakurraren izena eta arraza, eta zein herrikoa den. Horrekin, argazki erakusketa egin du. Elgetako Espaloian egin zuen abenduan, arrakasta handiz, eta orain Bergarako Nahikari tabernan egiten dihardu, hil amaierara arte, eta han ere jakin-nahi handia sorrarazi du. Aurrerantzean, Antzuola eta Aretxabaletan egingo du aurki, bi herri horietako udalek interesa agertu dute-eta.

*Asma ezazu gura duzuna eta ezagutu Gipuzkoa; nik halaxe egin dut. Ez zara damutuko!*



Manuel Montiel. LARRAITZ ZEBERIO

Horrelaxe ipini dio izena erakusketari Manuel Montielek. Eta hori izan da aitzakia lurraldea ezagutzeko aldenik alden, eta inoiz egon bako herriez gozatzeko: "Olaberria, Mutiloa, Altzo, Baliarrain..., izugarri politak iruditu zaizkit, herri txikiak, mendialdean daudenak", dio Manuel Montielek.

**ARAZORIK EZ**

Argazkiekin eta musikarekin lau bideo egin ditu eta *Youtube*-n eskegi ditu, "jendeak ezagut dezan nire lana". Iazko uztail eta abuztuan egin zituen argazkiak; 135 argazki guztira. 1.500 kilometro egin zituen. Kalean gora eta behera, txakurra ikusi, jabeei baimena eskatu eta argazkia atera. "Ez dut arazorik izan; lauzpabostek izan ezik, beste guztiek gustura laga didate txakurrei argazkia egiten" dio, hasieran arraro egiten zitzaien arren eskaera. Txakurrekin ere ez du arazorik izan, bati edo besteri, arriskutsuenei, lotuta atera dien arren argazkia.

Horrenbeste txakurren artean, zail egiten zaio politena aukeratzea, baina, bat aipatzearren, Zeraingo Pirinioetako mastin arrazako bat aukeratu du: "Oso atsegingarria" zen. Gipuzkoako herri ederrak ezagutzeko, edozein aitzakia da balekoa...



ARRAZA ASKOTARIKOAK Montielen erakusketako txakur batzuk. GOIENKARIA

## ahobero

### "ETAk ja ez du izango bere ekintzak txalotuko dizkion gotzainik"

**Antonio Basagoiti** > Euskadiko PPren presidentea

Ahoberoenen artean ahoberoena dugu Euskadiko PPkoen burua, txapeldunen artean txapeldun. Ederra bota du, oraintsu arte Donostiako gotzain izan den Uriarteren gainean. Betikoa: zuria edo beltza, nirekin edo nire aurka. Uriartek argi eta garbi eta sarritan erakutsi duen arren ETAren aurka dagoela.

## iturri onetik

### Bergarako Irizar jauregia berritu eta Udal Euskaltegia kokatuko dute bertan

Bergarako Irizar jauregia goitik behera berritu eta bertan Udal Euskaltegia eta Helduen Hezkuntza Iraunkorra kokatuko ditu Bergarako Udalak. E planeko dirulaguntzetara aurkeztuko dute berritze proiektu hori. Bergarako Udalari milioi eta erdi euro pasa dagokio Zapateroren dirulaguntzetatik. Bestalde, gaur egun Udal Euskaltegia dagoen tokian gaztelekua kokatu nahi du Bergarako Udalak.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > 'www.goiena.net/blogak/piperrautsa'

### Kanpaina hasi da

Datorren urteko udaberrian tokatzen dira berriro hauteskundeak, Udal eta Batzar Nagusietarako. Aurtengoa hasi berria dugunez, ia urte eta erdi daukagu tartean eta hori asko da, urrun dirudi, han behar luke. Baina tamalez kanpaina hemen dugu.

Normala da ezker abertzale legez kanporatua jo eta ke lanean aritzea, asko dauka galtzeko aurkezterik ez badu, eta berandu ere badabil. Baina ez da normala administrazioen martxan dagoeneko igartzea moteldaldi eta keinu esanguratsuak. Lopezek aldundiak eta udalak nahi ditu, EAJk gehiengoa, EAk poloa... Bale, nahi baduzue eman asteburuak horretan ea herritarrak konkistatzen dituzuen, baina astegunetan segi lanean denon moduan. Zuen alderdiak zuentzat dira garrantzitsu, guretzat ez hainbeste.

## ai, ene!



### Manikura berezia: zerra itxurako azazkalak

Originaltasunik ez diogu ukatuko eta ikusgarria ere bada; baina higuingarri samarra ere bai, eta, batez ere, deserosoa.

www.boingboing.net

ELGETAKO espaloia KAFE ANTZOKIA
Desnudos en CENTRAL PARK
GAUR, urtarrilak 22,
BI EMANALDI
20:00etan eta 22:30ean
2x1
Sarrera bat ordaindu eta beste bat opari!

Kafe antzokia - Maala 2 ELGETA - 943 78 90 85